

60

36ko gerra Ormaiztegin

Elixabete Garmendia Lasa






Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



Ormaiztegui
Udala



ASMOZ TA JAKITEZ
EUSKO
IKASKUNTZA





Lankidetzan

60

36ko gerra Ormaiztegin

Elixabete Garmendia Lasa



Azaleko argazkia: Ormaiztegiko trenbide zubia moztuta. 1936ko iraila.

GARMENDIA LASA, Elixabete

36ko gerra Ormaiztegin / Elixabete Garmendia Lasa – Donostia : Eusko Ikaskuntza, 2012.

161 or. : ir. ; 24 cm. – (Lankidetzan ; 60)

ISBN: 978-84-8419-246-6

I. Garmendia Lasa, Elixabete II. Serie III. Tit.

Eusko Ikaskuntzak, Ormaiztegiko Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak eskertzen diote liburuki honen egileari eta, elkartearen tradizioaren arabera, haren irizpide eta uste guztiak errespetatzen dituzte, nahiz horrek ez duen esan nahi bereziki haietako ezein beren gain hartzen dutenik.

ISBN: 978-84-8419-246-6

L.G.: SS 264-2013

Fotokonposaketa, inprimaketa eta koadernaketa: Michelena artes gráficas (Gipuzkoa).

36KO GERRA ORMAIZTEGIN

Hitzaurrea	9
1. Aurkezpen gisa	11
1.1. Informatzaileak	15
1.2. Ormaiztegi abiapuntu	21
1.3. Beste gertaleku batzuk	22
2. Oroitzapenen soka	23
2.1. Gerra aurrekoak	25
2.2. Gerra hasi	33
2.3. Gerra Ormaiztegin	37
2.4. Gerratik ihesi	42
2.5. Zubia moztu	49
2.6. Fusilatuak	51
2.7. Bainuetxea	53
2.8. Gerra beste toki batzuetan	59
2.9. Hildakoak	62
2.10. Errepresaliak	63
2.11. Gerra bukatu bezperatakoa	77
2.12. Gerra ondorengoak	78
2.13. Makiak	84
2.14. Bigarren Mundu Gerra	88
2.15. Ipar Euskal Herrian	91
3. Postdata gisa, osagarriak	97
3.1. Juan Mari Intxausti <i>Maixu</i>	99
3.2. Inazio Mercero Intxausti <i>Txiki</i>	100
3.3. Joxeba Ezkurdia	101
3.4. Amuategi batailoia	102
3.5. Batailoi abertzaleetako gudariak	102

4. Elkarrizketen transkripzioak	109
4.1. Kasilde Arzelus Loiola	111
4.2. Kontxa Intxausti Peña	120
4.3. Carmen Lasa Eguren	126
4.4. Joxe Ramon Lasa Eguren	130
4.5. Madalena Ramos Filguera	136
4.6. Joxe Urreta Izuzkiza	150
 Bibliografia, agiritegiak, internet	 157
 Argazki kredituak	 159
 Bibliographic Section	 161

HITZAURREA

1936ko gerra. Hain urruti dirudi... Bestalde, urte gogor haiek bizitza tokatu zitzaien haiek, atzo gertatutako gauza bat balitz bezela kontatzen digute garai hartan bizi izandakoa. Guzti hura, beraien bizitzetako parte garrantzitsu bihurtu da ordutik. Horrek adierazten du gertakizun haien benetako dimentsioa.

Ormaiztegitik ere pasa zen 36ko gerra eta bertan egotea tokatu zitzaien haiek gaurdaino gorde dituzte memorian orduan gertatutakoak. Beraien testigantzak izan liteke azken aukera kontu haiek berreskuratu eta betirako gure herriko historiaren parte bihur daitezen. Asmo horrekin bildu dira, garai hura bizitza suertatu zitzaien 6 herritarren testigantzak. Bakoitzak bere ikuspegitik kontatu dizkigu gertakizun haiek, bere barnean bizi izan zituen bezala hain zuzen.

Bataila odoltsurik gabe pasa zen Gerra Zibila Ormaiztegitik 1936ko uda bukaera hartan. Hala ere, gerra guztiek barnean daramaten sufrimendua erein zuen bertako jendearen artean. Gerratean zuzenean parte hartu zutenek eta beraien familiek dakite ondoen zer mailatako mina jasatea tokatu zitzaien momentu lazgarri haietan. Erbestera aldegin beharrean izan ziren familia haietako asko eta herrira itzultzean gerra haren "irabazleen" aldeko ziren herritar haiengandik jasan behar izan zituztenak, ez ziren izan eraman errazak ere. Ormaiztegitik hain maitatua duen zubia, bota beharrean izan ziren, Francoren tropen hornikuntza galarazi nahian eta hura botatzeko lanak egin zituztenetatik 3 atxilotu eta herriko kanposantuan fusilatu zituzten. Hau guztia kontatzen digute gure 6 testiguen, bakoitzak bere modura eta memoriak laguntzen dien heinean, amodio istorio eder bat ere, tartean delarik. Batzuek utzi gaituzte jadanik, denboraren legeak eraman ditu gure artetik. Besteek, ordea, istorioak kontatzen darraite oraindik.

Diktadura gogor baten ixilpean mantendu da gure herrietako memoria. Zor bat kitatu nahi dugu beraz. Gertatutakoaren egia guztioi azaltzeak, berma lezake guk eta gure ondokoek aire garbia eta behe-lainorik gabekoa arnastea. Zuen testigantzei esker: Kasilde, Joxe Ramon, Carmen, Joxe, Kontxa eta Malen (izeba Kontxa eta izeba Malen). Eskerrak ormaiztegiar guztion partetik. Plazer bat izan da zuen esanak irakurtzea eta bertan izan bagina bezala bizitza.

Ormaiztegi, zubien herria da: 1863 urtean Alexander Lavalley ingeniariak eraikitako zubi zaharra errepublikarrek moztu zuten 36an eta Francoren tropek berreraiki zuten. Bere zahartzaroa iristean, zementuzko zubi berri bat eraiki zuten ondoan, ez hain polita, gezurrik esan nahi ez badugu behintzat. Hala ere, ormaiztegiarrek ez genuen baimenik eman zubi zaharra botatzeko. Erreferendum bat egin genuen, zubi zaharra mantentzea erabakiz. Zertarako? Ez al zen izango, ordurako bagenekielako, nahiz eta zubi berriak eraiki behar izan etorkizun oparago bat izateko, behar beharrezkoa genuela zubi zaharrean gordetako egia izkutu haiek bertan mantentzea, egunen baten aireratuak izan daitezen?

Jon Intxausti
Ormaiztegiako Kultur Ondare zinegotzia

1. Aurkezpen gisa



Ormaiztegin 1936ko gerra ez zen bereziki gogorra izan, inguruko beste herri batzuekin alderatuz, behintzat: adibidez, Beasainen, hogeita hamarren bat gizon fusilatu zituzten nazionalek herrira sartu zirenean, 1936ko uztailaren 27-28an; Elgeta eta Eibar berriz, borroka leku gogorak izan ziren 1936ko udazkenetik 1937ko udaberrira. Ormaiztegik ez zuen halakorik bizi izan, baina badira bertako gertaera batzuk gerra haren historiara pasatu direnak. Ezagunena, *gorriek* tren zubia moztu zutenekoa, eta horren ondorioz herriko kanposantuan izandako fusilamenduak. Lau lagun hil zituzten nazionalek hilerriaren sarreran, horietatik hiru zubiaren mozketaren aitzakian.

Eta nolana ere, nola ez, gerrak sufrimendua ekarri zuen gure herrira, batez ere galtzaile gertatu zen bandoan konprometituta zeuden familietara: ihes egin beharra, heriotzak, kartzela, zigorrak eta errepresaliak... Hori lehen ilaratik bizi izan zuten gehienak joan egin zaizkigu; baina, zorionez, oraindik badauzkagu geure artean haien berri eman dezaketenak.

Eusko Ikaskuntzak eta Ormaiztegiko Udalak bertako ahozko ondarea biltzeko egindako deialdiari esker, herriko zenbait lagun kamera aurrean jarri ditugu, gerrari buruzko oroitzapenak kontatu zituzten. Informatzaileak sei gizon-emakume izan dira: Kasilde Arzelus Loiola, Kontxa Intxausti Peña, Carmen Lasa Eguren, Joxe Ramon Lasa Eguren, Madalena Ramos Filguera eta Joxe Urreta Izuzkiza. Hasierako egitasmoan, informatzaileen zerrendan, Ramon Ezkurdia Irizar ere ageri zen, baina, tamalez, makalduta zegoen 2009ko udan, eta ez zuen ia indarrik izan kamera aurrean jartzeko¹.

Grabazioak 2009ko uztailaren 6tik 22ra bitartean egin ziren, eta bideoz jasota daude banan-banan. Grabazio horien transkripzioak lan honen bukaeran daude erantsita. Udalaren eta Eusko Ikaskuntzaren deialdiak ahozko ondarea jasotzea zuen helburu, eta irizpide hori oinarritzat hartuta, hiztun bakoitzaren hizkera bere hartan errespetatu da, hizkuntzaren ikuspegitik ere bere ekarpena gorde dezan.

Oroitzapenak oroitzapen, tarteka kontraesanen bat, akats edo hutsuneren batzuk egon daitezke. Horrek, dena den, ez die baliorik kentzen testigantzei; alderantziz: akatsak zuzendu eta hutsuneak betetzeko akuilu izan daiteke sei lagun hauen bizipenekin osatutako puzzle moduko idatzi hau. Izan ere, lehen aldia da gure herrian gerra garaiari buruzko bilketa egiten dena². Sor litezkeen galderek, piztutako jakin-minak, han eta hemen arakatzek... lagunduko dute historia osatzen.

1. Lan hau bukatu eta gero informatzaileetako hiru hil ziren: Joxe Ramon Lasa 2010eko ekainaren 23an, Carmen Lasa urte bereko uztailaren 19an eta Kasilde Arzelus 2011ko martxoaren 29an.

2. Aurretik, Inazio eta Juan Mari Intxaustiri Carlos Blasco Olaetxeak egindako elkarrizketak daude. Ehun laguni egin zizkien elkarrizketak Blasco Olaetxeak 80ko hamarkadan. Intxaustitarrak Eibarko Amuategi batailoiko kide gisa ageri dira, baina horren aurretik eta ondoren bizi izandakoak ere kontaktatu zituzte.

Bergarako Iragi Euskadiko Ondare Dokumentalaren zentroan daude jasota ahots grabazioak eta horien transkripzioak.

Letra handiari adina letra txikiari jarri diogu arreta: anekdotei, pasadizoei, sentipenak agertzeari... Eta horrela, batzuetan, abentura kutsua hartzen du jarioak, batez ere orduan praka motxetan zebiltzanen ahotan. Erromantizismoak ere badu lekua, eta nola!, bere maitasun istorioaren hariari jarraitzen baitio Madalena Ramosek, eta bide batez bezala kontatzen ditu Errepublika garaian hasi eta II. Mundu Gerra bukatu arteko gorabeherak. Izan ere, hau ez da gerra estrategiari buruzko idatzi bat, gertakizun ikaragarri batek markatu zuen belaunaldiaren bizi puskak baizik, beraiek gogoratzen duten bezala kontatuak.

Aurrera joan baino lehen, aitorpen bat egin nahi nuke. Etxean txikitatik entzun nituen gerrako kontuak, gurean ez baitzen tabua gai hori; baina gatazka izugarri hari buruzko interesa Joxeba Ezkurdia zenari zor diot. 70eko hamarkadan izan zen hori, bere lantegian, Letag-eko almazenean. Zigarro-ketan bilduta, kontatzen zidan, irribarrerik galdu gabe, nola sartu ziren gerran orduko herriko gazteak, zertzuk bizi izan zituzten... Grabagailurik ez orduan, eta memoriak ezabatu dizkit, tamalez, hark emandako xehetasunak. Hala ere, berak piztutako jakin-min hura dago lan honen oinarrian.



Joxeba Ezkurdia. 1937-04-14

1.1. Informatzaileak

Kasilde Arzelus Loiola (Ormaiztegi, 1916). Arraitegi baserrikoa.



Kasilderen aita, Bixente Arzelus, Ormaiztegiko lehen abertzaleetakoa izan zen, EAJkoa. Beraz, etxean bertan ezagutu zuen abertzaletasuna, eta Emakume Abertzale Batzako kide egin zen.

1930eko hamarkadan, herrian zegoen telefono zentraleko langilea izan zen Kasilde. Hala, Ezkioko Ama Birjinaren agerpenak zirela-eta, oso gertutik jarraitu zuen mugimendu hura, telefono bidezko komunikazioa Ormaiztegiko zentraletik pasatzen baitzen. William A. Christian Jr.-en *Visionaries* liburuan, informatzaile modura ageri da.

Gerra hasi zenean, Briviescan (Burgos) zegoen, osasun arazoengatik hara joanda.

Nazionalak sartu eta gero itzuli zen Ormaiztegiara, 1936ko irailean. Ordurako, aita etxetik alde eginda zegoen, eta Bizkai aldean, Bartzelonan eta Iparraldean ibili eta gero herriratu zen. Kasilderen anaia Julen ere erbestean ibili zen, eta ahizpa Pilare, berriz, Bizkaian.

Gerra bukatu eta gero, Joxe Migel Irizarrekin ezkondu zen. Joxe Migel eta bere bi anaiak –Gregorio eta Alejandro– gudari izanak ziren. Alejandrok ibilbide luzea egin zuen karteletan, baita gerra bukatu eta gero ere, makien sarearekin nahastu baitzuten.

Franco hil eta gero, EAJko batzokiaren antolatzaileetako bat izan zen Kasilde. Berari esker dago Sabino Arana Elkargoak kudeatzen duen Abertzaletasunaren Museoa, Ormaiztegiko Emakume Abertzale Batzakoek zeukaten ikurrina.

Kontxa Intxausti Peña (Ormaiztegi, 1919). Tellerizahar edo Karterone ere deitzen zaion etxekoa.



Aita, Julian Intxausti, errepublikanoa zen, eta bide horri jarraitu zioten familiako gehienek. Anaietako bat, Juan Mari, gerra hasi zenean Ormaiztegiko Defentsa Komitearen arduradun izan zen. Nazionalak sartzean, familia osoak alde egin zuen herritik Sestaora, eta handik Santanderrera. Kontxak, bere ahizpa Maria Luisa eta Katalinarekin batera, eta osaba batekin, Frantziarako bidea hartu zuen gero, eta Borgoñan egon ziren hilabete batzuetan. Bitartean, hiru anaiak –Inazio, Juan Mari eta Xanti– frentean ibili ziren; lehen biak, Eibarko Amuategi batailoian; eta hirugarrena, EAE-ANVko batailoietan.

Familia osoa ukitu zuen errepresioak, bai gerra garaian eta baita hura amaitu eta gero ere. Kartzelan egon ziren –garai batean edo bestean– ama (Juana Peña), aita eta haren arreba Matea Intxausti eta anaia Xanti. Beste bi anaiak erbesterako bidea hartu zuten: Inaziok Argentinan egon zituen urte luzeak, eta Juan Mari Donibane Lohizunen bizi eta hil zen. Inazio Mercero Intxausti –Txiki– lehengusua, berriz, erbesteran egon zen luzaroan.

Carmen Lasa Eguren (Ormaiztegi, 1917)



Aitak, Joxe Mari Lasak, Ormaiztegioko lehen industrietako bat sortu zuen –JML; gerora, Onena–, motorrak-eta fabrikatzeko. Zortzi senidetan zaharrena, hamar urte zituela hasi zen Carmen aitari bulegoko lanean laguntzen, eta, beraz, oso gertutik jarraitu zituen gerrak lantegian eragiten zituen gorabeherak. Sarritan joaten zen Bilbora tailerrerako burubideak egitera.

Amaren aldetiko bi osaba, Pedro Eguren eta Jose Gebara –Pantxika Egurenekin ezkondua–, treneko makinistak zituen, eta hortik datorkio trenbideari aitortzen dion lotura.

Aita EAJren ingurukoa zen, baina batez ere euskaltzalea oso. Etxeko giro horri Patxi Etxeberria apaizak emandako irakaspenak gehituta, Olerti Egun, Lore Joko eta abarretan parte hartu zuen Carmenek, eta *El Día* egunkariko Euskal Orrian herriko kronika batzuk idatzi zituen *Zubiaundi* goitizenez, 1931-32 urteetan.

Gerra garaian ezagutu zuen gerora senarra izango zuena, Inazio Garmendia lazkaotarra, orduan Ormaiztegioko bainuetxean soldaduska egiten ari zena, Francoren bandoan. Hura ere *El Diako* berriemalea izan zen bere herritik, Lazkaotik, 1933an, *Aldatspe* izengoitirekin.

Joxe Ramon Lasa Eguren (Ormaiztegi, 1921)



Carmenen anaia, senidetan hirugarrena. Gerra sortu zenean hamabost urte baino ez bazituen ere, autoak gidatzeko zeukan trebeziarengatik harreman handia izan zuen Ormaiztegin lehen hilabeteetan egon ziren milizianoekin. Aitaren lantegian jardun zuen, eta gertutik ezagutu zituen bertan hartu zituzten errepresaliatuak, Beasain, Arrasate eta Eibartik etorritako langileak.

Gerra bukatu berrian, Bilbon egin zuen soldaduska, betiere buruzagi militarren txofer modura. Eta hala, zenbait gertakariren testigu izan zen: besteak beste, 1942an falangistek Begoñan egindako atentatuarena.

Madalena Ramos Filguera (Paris, 1916)

Gaztetxotan, Ormaiztegin bizi izan zen, aita –Florencio Ramos– Irizar altzari fabrikako langilea izan baitzen. 1946an, Juan Mari Intxausti Peñarekin ezkondu zen Donibane Lohizunen. Bitarte horretan, ez bakarrik 36ko gerra, II. Mundu Gerra ere hurbiletik bizi izan zuen. Izan ere, Donostiatik ihes egin familiarekin eta Bartzelonan egon zen aldi batean, Brigadista Internazionalentzako zegoen bulegoan lanean, harik eta aita bonbardaketa batean galdu zuen arte. Frantzian zegoen II. Mundu Gerra hasi zenean, eta alemanen okupazioa ezagutu zuen Ipar Euskal Herrian. Artean ezkontzeko zeudela, Juan Mari Intxaustik, Gernika batailoiarekin, Pointe de Graveko borroketan parte hartu zuen.

Beraz, bi gerretako testigantzak eskaintzen ditu Madalenak, betiere senarra izan zuen Juan Mari Intxaustirekiko maitasun istorioari helduta.

Joxe Urreta Izuzkiza (Ormaiztegi, 1925)



Hamaika urte besterik ez zuen 1936an, baina aita mikeletea zuenez, etxetik bertatik suertatu zitzaion gerraren eragina bizi izatea; izan ere, lanpostutik kendu eta kartzelan sartu zuten Antonio Urreta. Gainerakoan, herrian gertatzen zen guztia miatu zuen Joxe Urretak, geldirik egoten ez den mutiko biziaren begiekin.

Gerora, harremana izan zuen Ipar Euskal Herrian aterbetuta zeuden Juan Mari Intxausti eta Inazio Mercero Intxausti Txikirekin.

1.2. Ormaiztegi abiapuntu

Ormaiztegin dauka abiapuntua eta kokagune nagusia kontakizun honek, 1930eko hamarkadako Ormaiztegin. Zazpiehun biztanle zituen orduan herriak (707, zehazki, 1929an; eta 749, 1941ean). Baserri girokoa zen, baina neurri batean bakarrik; izan ere, Beasaindik Durangora doan errepidean kokatua, eta 1864an zabaldutako Irun-Madril trenbidea bertatik pasatzen zela, beste jarduera ekonomiko batzuetarako aukera zabaldu zitzaion herriari.



Bainuetxea eta trenbidea, Ormaiztegiko garapenaren bi giltza.

Batetik, Bainuetxea zeukan, 1853an irekia, eta horrek udatiarrak ekartzen zituen herrira, ez bakarrik ingurutik, baita Catalunya, Zaragoza eta Madriletik ere; Pedro Zangituk herriko baserriar batzuekin sortua, Antonio Izuzkizaren eskuetara pasa zen 1920ko hamarkadan. Bestetik, industrializazioaren barruan sartu zen herria; lantegi txikiak ziren, baina askotarikoak: teila-fabrika –Zelaiko, Telleriatarrena–, perra-fabrika –Azurmenditarrena–, motor-fabrika –Joxe Mari Lasarena–, San Antonio altzari-fabrika –Juan Kruz Irizarrena– eta karrogileena –Zezilio Irizarrena, gaur egungo Irizar autobus lantegiaren jatorria–; argindar zentrala ere jarri zuen gerora Iberduero izango zenak herrian. Zerbitzuen atalean, Bainuetxeaz gain, beste hauek ere bazituen Ormaiztegi: Ezkurdianeko fonda, bere konfiteria, garraio-zerbitzu eta abarrekin; Muruane taberna, apopiloak hartzen zituena; Amerikano Txikiaren taberna eta Ostatua, udaletxe azpian.

Kokapen geografikoak eta garapen ekonomikoak eragina izan zuten herriko gizartean: banaka batzuk izan arren, etorri zen kanpoko jendea –edota inguruko herri txikietako– herrira bizitzera eta bertan lan egitera. Industriak, bestalde, kanporako harremanak izateko bidea ireki zuen.

Horrela bada, politikaren aldetik ere garatzen zihoan herria zen. Lehengo garaietatik zetozen karlisten alboan, beste joera politiko batzuk azaldu ziren, hala nola, EAJko nazionalistak eta errepublikanoak.

Apurka eta poliki, emakumeak lantegietan sartzen hasi ziren: lehendabizi, industrialen familietako alabak; gero, gerra ondoren batez ere, edonor.

Ikasketen aldetik, unibertsitatea urruti geratzen zen, baina ohiko apaiz eta fraideen ondoan, aukera berri bati heldu zioten gazte batzuek, magisteritzari hain zuzen ere. Iruñean lau ormaiztegiar egin ziren maisu 30eko hamarkadan: Jose Campos, Joxeba Ezkurdia, Juan Mari Intxausti eta Alejandro Irizar. Eta aipagarria da azken hirurak bete-betean konprometitu zirela errepublikaren aldeko bandoan gerra garaian.

Ormaiztegi ari garela, ondorengo kontakizunetan bertako zenbait toki-izen azalduko zaizkigu: *Española* mendia, (herriaren hegoaldera dago, Idiazabalekin muga eginez; karlistadetatik datorkio izena, antza); *Mote* izeneko mendia (Españolaren inguruan); *Antoneneko zelaia* (izen bereko etxearen aurrean, herriaren erdialdean; Antoneneko nagusiak, Lizarazutarrak, tratanteak ziren).

1.3. Beste gertaleku batzuk

Ormaiztegin dugu abiapuntua, baina gerraren ibilerak beste hainbat lekutara eramango gaitu, galtzaile gertatuko zen aldekoie jarraituz. Nazionalak sartu ahala, ihesa mendebaldera, Bizkaia eta Santanderrera. Gero Bartzelonara joango ziren batzuk, Frantziara beste batzuk. Kontxa Intxausti, adibidez, Borgoñako Arnay-le-Duc-en egon zen bere bi ahizpa eta osabarekin; Dijondik 55 kilometrora dago herri hori, Frantziaren ekialdean. Iparraldeko Euskal Herrian ibili zen Kasilde Arzelusen aita, eta gerra ondoren hantxe aterbetu ziren Inazio Mercero *Txiki* eta Juan Mari eta Inazio Intxausti; honek Argentinara jo zuen gero.

Gerra bitartean, Espainiako toki ezberdinetan ibili ziren gudarietako batzuk borrokan, Santanderren, Teruelen... Preso hartu eta gero, kontzentrazio eta lan eremuetan, hala nola, Castro Urdialesen, A Coruñan, Albateran (Alacant), Miranda de Ebron, Campo de Gibraltarren... Kartzelak berriz, Donostiako Ondarreta eta Martutene edo Bilboko Lamiako eta Larrinagaz gain, Santoña, Algeciras eta Alcázar de San Juan azaltzen zaizkigu. II. Mundu Gerrak Frantziako Pointe de Graveraino ere eramango gaitu.

2. Oroitzapenen soka



Hiru urte iraun zuen gerrak, 1936tik 1939ra, baina testigantzek epe zabalagoa hartzen dute, aurrekarien eta ondorioen bila; azken batean, 30 eta 40ko hamarkadak biltzen ditu kronikak, tarteka hurrengo urteetara luzatuz.

Oroitzapenek atzera eta aurrera egiten dute behin eta berriz, memoria ez baita laua, eta gertakizunak kronologikoki antolatzen saiatu arren, salto egiten dute sarritan. Hitzunek aipatzen dituzten gertaerak kokatzeko, sarrera bat doa azpiatal bakoitzaren hasieran.

2.1. Gerra aurrekoak

1930eko hamarkadan bi gune politiko zeuden herrian: EAJren Batzokia batetik, eta Centro Republicanoa bestetik. Nazionalistak Ezkurdianen biltzen ziren hasieran, eta, gero, Muruanen eduki zuten Batzokia. Centro Republicanoa berriz, Amerikano Txikirenean zegoen, gerora Fausto Gurrutxagaren taberna egon zen etxean.

Karlistek –Francoren alde jarri ziren, gerora, gerran– ez zeukaten biltokirik, baina horrek ez du esan nahi presentziarik ez zutenik.

1931ko apirilaren 12an egin ziren udal hauteskundeen ondoren ezarri zen II. Errepublika Espainian. Ormaiztegin, Joxe Mari Telleriak bildu zituen boto gehienak, eta, hala, alkate izendatu zuten apirilaren 17ko batzarrean. Bilera hartan, Bixente Arzelus zinegotziak proposamen bat aurkeztu zuen “gainerako errepublika iberikoekin konfederatutako Euskal Errepublikaren alde” aldarrikapena egiteko. Udalbatzak ahobatez onartu zuen proposamena³.

Kasilde Arzelus

–Zuen attek (Bixente Arzelus) ekarri emen zon nazionalismoa herrira.

–Atte zan txerri tratantea. Villafrancan erosten zitun, Ordizin, eta juten zan Mondrago, Eibar, Elgoibar eta Markinara, hor ibiltzen zan. Ama berriz baserrin lanen, Arraitegi baserrikoa zan eta gu baserrin bizi ginen.

–Eta zuen atte nazionalista nundik nora?

–Horixe ezin det jakin. Nola haren burun sartu zan nazionalismoa ez dakit. Baino ibiltzen zan... Eibarko parrokoa oso nazionalista zan eta gero nik ez dakit nola zabaldu zan Eibarren eta hortan nazionalismoa. Eta hura bera kuadrilan ibiltzen zan Eibar eta Elgoibarko lagunekin.

3. Udalbatza honako hauek osatzen zuten: Joxe Mari Telleria, Antonio Izuzkiza, Bixente Arzelus, Joxe Mari Iurrita, Joxe Olaizola, Agustin Elosegi eta Juan Joxe Baztarrika.

–Ormaiztegin Batzokie zegon.

–Bueno, Batzokie... Lehenengo Ezkurdianeko –komedore bat zeuken beheran, sartu eta ezkerretara– komedoren. Eta igande atsaldetan edo iluntzen, afaltzeko izango zan, juntatzen ziren. Gure attek ekartzen zon notizik Eibartik; eta notizi hak leitu eta ean arten egiten zuen. Ba, ziren Ezkurdianeko Ramonen-eta atte, gero zan Largoa Arizmendikoa eta gero bestea zan Zufiaurre; Kaxkagorri esaten ginuna, Etxeberri Azpikoa –Isidore eta han atte–; Panaderiko atte, gure atte... horik ziren. Badakit seguro horik egoten zirela bileran. Ordun, ekartzen zon zerbait eskribituta Eibarren-eta hitz egiten zonakin, hak kontau, bilera izango zala edo... eskursiok ere egiten zituen. Besterik ez dakit. Ze ni arten gaztea –umea ez, e?, umetik pasata baino–...

–Etxen bertan ere nabarmen giro nazionalista emen zenduen.

–O! Giroa, giro-giroa, han, gure etxen. Sei urtekin hasi nintzen ni eskolara, baino eskolara juterako nazionalismoa ia baneuken burun.

–Kontatu zenidan iluntzatan, errosarion ondoren, kantatu ere egiten zenduela.

–Bai. “Euzkadin zan gizon bat”.

(Kantatuz)

Euzkadin zan gizon bat, behar degula maita
Sabino Arana Goiri, euskaldunen aita.
Hain gizon prestua eta jakintsua,
Errespetatu zagun gure maisua.

–Etxen ikurrine ere bazenduen.

–Baaai! Ikurrine, bat, gizeonezkona. Zergatik bi ikurrin izaten ziren, bat gizeonezkona eta bestea emakumena. Eta gizeonezkona zegon gure etxen. Egoten zan, baul txiki bat zan, umen erropak egoten ziren, eta han azpin sartuta egoten zan. Eta noizipehin attek erakusten zigun. Eta ikurrin hura Ayuntamentura eraman zuen; harutza juterako neronek plantxatu non. Eta bestea zan ikurrine emakumena, trapu zuri bat, haundie, eta gero eskinan ikurrinen kolorek zeuzken. Eta gero, egurretik txintxilika zeuken Ormaiztegikoa zala, zein urtetan egin zan... Nartxixonekok bordauta. Eta hura zegon gordeta Zelaikon. Hura ez zan atera ordun, bestea atera zanen, eta gero, Franco hil zanen, atera zuen hura eta *en cambio* bestea ez dakit erre edo zer egin zien Ayuntamentun, baino ez zan gehigo azaldu gure ikurrine. Baino emakumena zeran dago, Bilbon.

–Nazionalismon Museon.

–A, ikusita zare? Ze ederki bordauta dagon!

–Esan dezu zuen ikurrin hura Ayuntamentura eraman zuela. Izan ere, zuen atte kontzejala izan zan eta euki zon momentun baten iskanbila alkatekin-eta...

–Ba hori zan, herriko festak, sanandresak zetozen. Eta gazte jendea ari zan festatarako jartzen... ez dakit. Behintzet nahi zuen balseon egitea eta Ormaiztegin arten ez zan egiten, sueltan bakarrik. Eta alkate zegon osaba (Antonio luzkiza) eta gero teniente alkate zegon Lasa (Zelaetakoa). Eta ezetz, ez zala dantzarik egingo,

ez zala soinu loturik joko. Eta ordun Karteroneko nik ez dakit zan Juan Mari edo Inazio, bitako bat, jun ziren Donostira gobernadoreña eta hak eman zien permissoa, papel bat Ayuntamenturi esaten, uzteko dantzan. Eta ordun esan zion alkatek: “Ba ni hemen alkate nagon bitarten, hemen ez da balseon dantzarik egingo”. Hurrengo teniente alkatek: “Ba nik ere ez”. “Hortaz, dimitituta geratzen gera egun hortarako”. Gure attek baietz, hura konforme zegola-ta, eta hala egin zuen sanandres festea.

Kontxa Intxausti

–Zuen familie republikanoa zan. Nundik zetorkizuen hori?

–Gure attek (Julian Intxausti) esaten zion: republikan bizi gera, republikek ematen digu jornala, republikanok gera. *Ideas políticas* igual ez zitun hainbeste eukiko, baino republika baten bizi ginen, republikek pagatzen zion soldata eta bueno, ba republikanoa.

–Zuen attek lana egiten zion, zertan?

–Nik batzutan ezagutu det, beste batzutan entzun egin det. Entzun non baita bolaran ibili zala Beasaingo CAFera juten goizen seietako releborako, oinez. Orain esaiozu baten bati hori. Ba harutza juten zan. Eta han alemanak-eta emen zeren. “No, no, porque el carrito cuando hace fi-fi –esaten zion– el carrito tiene que hacer fa-fa-fa”, alemanak instrukziok ematen. Harutza jun oinez eta gero fi-fi-fi, fu-fu-fu...

–Gero trenbiden ibili zan.

–Gero bai, gero ibili zan. Juten zan Legorretaraino gauetz farolakin, karrilez. Ormaiztegitik Legorretaraino, *ya está bien, ¿no?* Eta gero buelta, merkantzin baten etortzen emen zan. Hori esaten zion. Eta gero, azkenaldira, zegon *guardagujas*.

Madalena Ramos

–¿Cómo fuiste a Ormaiztegi?

–Papá aprendió su oficio y fue a París, era de Donosti papá. Aprendió su oficio de ebanista-decorador. Estuvo varios años en París, pero él tenía la *maladie* de Donosti. Cuando teníamos amigos en casa –tenemos una foto de la Concha de San Sebastián– cantábamos esa canción... ¿cómo se llama? “Boga boga marinela!”; entonces mostrábamos la foto esa de la Concha. Pues ya tenía ganas de volver a Donosti. Porque la cosa es que yo tenía una hermana en París que era taquimecanógrafa y murió; hubo una epidemia de meningitis, y en el escritorio murieron tres. Murió a los diecisiete años Fermina. Por eso a papá ya París no le entusiasmaba.

Y entonces un amigo que trabajaba en la fábrica de Irizar, que era escultor, Redondo se llamaba, le dijo que el señor de Irizar necesitaba una persona que supiera trabajar en los muebles barnizados al duco. Porque allí hacían sólo muebles rústicos vascos. Y entonces este Redondo se acordó de mi padre y le dijo: “¿Por qué no quieres venir a Ormaiztegi? Te proponen un empleo muy

bonito, muy bien pagado y todo”. Lo consultó con mamá y dijo: “¿Por qué no?” Y entonces ya decidimos marchar a Ormaiztegi.

–¿Cómo os encontrasteis Juan Mari y tú?

–¡Ay, tengo una historia muy bonita! Pero éramos tontos en aquel tiempo, escondíamos... No es como ahora. La mujer, tímida, no se atrevía...

Yo era abanderada del pueblo cuando vino –no era Alcalá Zamora, no era Azaña... era otro, muy guapo, tenía el pelo blanco, ondulado–. Entonces Juan Mari me dijo: “–Tú tienes que ser la abanderada. –¿Yo?”. Porque nadie en el pueblo quería. Me hicieron un vestido largo, muy bonito; Juan Mari me llevó la bandera a casa, yo fui la abanderada del pueblo; se hizo una fiesta muy bonita. En fin... la bandera del Centro Republicano, la bandera de tres colores, rojo, amarillo y morado.

Solíamos tener el Centro Republicano, el Bujío que llamábamos; todos los domingos nos solíamos reunir unas cuantas, María Luisa, Kontxa, Valentina (Gurrutxaga)... Eramos cinco-seis chicas, cinco-seis chicos. Iban Ignacio, Juan Mari y otros tres. Solíamos hacer una chocolatada, poníamos el gramófono y solíamos bailar. Yo estaba enamorada de Juan Mari, pero él no lo sabía.

Joxe Urreta

–Herriko giroa, nolakoa zan?

–Hamen beti, eleziotan eta gogoratzen naiz –eleziok eskolan egiten ziren– eta ibiltzen ziren nazionalistak eta karlistak alkar joka eta... Gure atte eta badakit pakek egiten eta nola ibiltzen ziren, klaro, mikeletek nola ziren... Baino hemen baziren halako tipok.

–Alkar jo eta dana?

–Bai. Zuen osaba ere karlistea zan, Guillermo (Lasa). Gero, Azurmendi eta hok nazionalistak. Izuzkiza eta Zapateroa-eta, karlistak. Arraitegiko Bixente, nazionalista...

–Gero, republikanok ere bazeren.

–Republikanok eta baita komunistak ere. Aldama, ezagutu al zendun zuk? Gregorio Tellerian etxen bizi izan zan; andrea, Itsasokoa zon, Benantxi. Bera komunista edo... baino pertsona ona, e? Iberdueroko langilea zan. Andrea meztalara eta dana, baino harek sekula ez zion ukatzen andrei: “Meztalara jun, nahi badezu”, jun zeikela, baino bera ez.

–Republikanon arten Intxaustitarrak eta Txiki (Inazio Mercero Intxausti) zeren.

–Txiki, astokin jana eramaten ibiltzen zan, miliziano. Gero gerran. Boluntario jun zan; harrapau zuen, baino lehenengo frentera jun zanen, pasau egin zan bestaldera, segitun: berriz ere gorritara pasau zan. Gero, handik Frantzira alde egin zon eta han *Legión Francesan* edo egon zan, eta gero beste zera baten ere bai, boluntario junda. Baino kristonak pasatakoa hure, e?



Bixente Arzelus. c. 1940.



Ormaiztegiako Batzokiko Emakumeen Ikurrina.
1932-07-31.




Julian Intxausti. c. 1960.



Carmen Lasa eta Kontxa Intxausti I. Oleriti Egunean, Errenterian; goiko ilaran eskuinetik bigarrena eta hirugarrena. 1930-06-01.



Madalena Ramos eta Carmen Lasa. 1932-04-24.



Petit Amour
à nos amis Martin
A Madame Bobel
Maobine

Concepcion Agui de Martin 1928.



Ormaiztegiako gazte taldea Oñatin; goian, erdian, Inazio Intxausti. c. 1930.



Ormaiztegiako mutil taldea Liemin; behean, eskuinera, Joxeba Ezkurdia. c. 1930.



Ormaiztegiko eskolaumeak 1925-26 ikasturtean. Goiko ilaran ezkerretik eskuinera Alejandro Irizar eta Jose Campos (7. eta 8.). Bigarren ilaran Serafin Esnaola, Bernardo Azpiazu, Juanito Iturbe, Juan Mari Intxausti, Joxeba Ezkurdia, Gregorio Irizar eta Ramon Ezkurdia (1., 2., 5., 7., 8., 9. eta 10.). Hirugarren ilaran Eduardo Iturbe, Antonio Esnaola, Joxe Luis Mendizabal eta Xanti Intxausti (1., 4., 7. eta 9.). Beheko ilaran Sabino Ezkurdia, Sebastian Mendizabal eta Nikolas Gurrutxaga (1., 2., eta 3.).

2.2. Gerra hasi

1936ko uztailearen 18a zapatua zen. Aurretik ere bazebiltzan gerra hotsak, baina egun horrekek ekarri zuen albistea: Franco jenerala Errepublikaren aurka altxatu, eta gerra hasi zen.

Errepublikako agintariek Defentsa Komiteak antolatu zituzten herrietan. Ormaiztegin, Juan Mari Intxausti izan zen Komite horretako buru, eta bere esku hartu zuen herriko agintea, harik eta nazionalak sartu ziren arte.

Carmen Lasa

–Kontatu zazu nola jakin zendun gerra hasi zala.

–Nola jakin? ba gogon dauket. Maria Jesus Bordek, lagun batek, esan zidan bere etxeko leihotik goizeko bederatzik aldera: “¡Oye Carmen, que ha empezado la guerra!” –berak erderaz hitz egiteko ohitua zon–. Holaxe esan zidan, nik hala jakin non; eak radioa zeuken etxen, eta radioa entzun eta hola jakin; baino guk ez genduken radiatorik, arten ez genekigun guk ezer. “Oye, Carmen, que ha empezado la guerra”. Horixe izan zan hasierea.

Joxe Urreta

–Etxetik bertatik izan zendun zuk gerraren berri.

–Attek alde egin zon hemen sartu zirenen, baezpada ere, bildurrekin edo, eta Bilbauraino jun zan eta harrapau zuen eta kartzelan han egon zan, Lamiakon. Eta gero handik, nola ez zien ezeren zerarik bilatzen, librau egin zuen eta etxera etorri zan.

–Ze langintza zeuken attek?

–Atte mikelelea zan, hamen orain ertzainak bezela. Zeatik eramaten zituen ordun Caja de Ahorroskoa eta dana. Atte bastante eskolakoa zan garai hartarako, Urbizun jaioa izanagatik, Idiazabalgoa zan. Eta gero mikelete sartu zan. Afrikan gerran izan zan, *en la guerra del catorce*. Tokau egin zitzaion soldadu jutea eta orduko gerran. Eta gero mikelete sartu eta San Adriana eman zien, kontrabandoa-eta, ordun nola hor arbitriok egoten ziren kobratzeko; San Adriango tunelan ondoren egon zan, refugion, nere anaie han jaiotakoa da. Eta gero handik etorri zan Otzaurtera; Otzaurten zegon mikelete etxea eta kaminero etxea eta dana; ni han jaioa naiz. Eta gero beti ama –Ormaiztegikoa zan, Lapatzakoa– eta harek ere gogoa beti, Ormaiztegi eta Ormaiztegi, eta okasioa euki zonen eskau egin zon eta puestoa eman egin zien, hemen egon zan gerra hasi zan arte. Gerra hasi zanen, berriz ere kalera.

Joxe Ramon Lasa

–Komiteko jefea Juan Mari Intxausti zan. Alkate, Juan Azurmendi, eta kontzejaletan, bat, Inozentzio Telleria. Sekretarioa berriz, Fermin Bengoetxea.

Madalena Ramos

–**Al empezar la guerra, en Ormaiztegi, Juan Mari se hizo cargo del Comité de Defensa de la República.**

–Juan Mari creo que se hizo cargo de Ormaiztegi, y tuvo un comportamiento muy bueno, se portó muy bien con todo el mundo.

–**¿Cómo se escapó cuando entraron los nacionales?**

–Estaba Catalina (Urbil) en el bar (Ostatua). Juan Mari se había hecho cargo del pueblo. En esto, Catalina le dice: “Juan Mari, márchate, que ya bajan”. Las tropas de Franco bajaban por la Estación. Juan Mari dejó todo y saltó por la ventanilla –cuando voy a Ormaiztegi siempre miro a esa ventanilla, detrás del Ayuntamiento, lo menos habrá metro y medio–; saltó de ahí. Se fue por los montes, se fue a un caserío, de ahí a otro y pudo escapar. Pero no he sabido mucho.

–**Estuvo en el Batallón Amuategi.**

–Amuategi, sí.

–**La herida en el muslo, ¿dónde se la hizo?**

–Exactamente, no sé. Perdió el oído cuando estaba enterrado.

–**¿Cómo fue eso?**

–No sé si no escribió Juan Mari dónde pasó. De todas formas, él, de todas esas cosas, no ha querido hablar mucho. Estuvo enterrado en vida y le salía la mano, pero, ¿dónde fue eso? Luchó en tantos sitios... También eso el Txiki hubiera sabido.

Kontxa Intxausti

–**Zuen hiru anaiek gerrara jun ziren eta gainerakok alde egin zeduen herritik.**

–Lehenengo egunetan Ayuntamentun biltzen ziren gaztek. Hortan asko ibili zan Juan Mari, maixue. Eta gu genden bildurrez. Ailatu ziren Españolara eta aldin behin pun-pun, oilo bat. Guk genduken Granja Avícola Intxaurpe; *cuatrocientas gallinas*; horik genduzken gerra aurretio; oilo txuri-txurik. Handik ikusi egiten zuen. Gure attek: “Hemen ez dago egoterik”. Eta lehenengo jun ginen Zarautza, amaren familiko jendea. Oilok saldu; behiek berriz, Antonenekok zeuken kamioia, eta horik eraman ziguen Sestaora. Hango karnizero batek hil zitun; *tres vacas suizas lecheras*; danak kendu egin behar. Eta horik danak egin eta atea itxi eta jun ginen,

hamar lagun. Hala irten ginen. Hamar lagun ginen: attejaune –aman atte–, beste attejaunen anaie, atte-amak, eta gu sei senide, hamar lagun.

Kasilde Arzelus

–Gerra hasi zanen zu Briviescan zinen.

–Bai, Briviescan nintzen ni. Dezimak eta dezimak eta medikuk bialdu nitun haizea hartzeagatik Briviescara. Eta Briviescan, bakarrik nengon, ahizparekin jun nintzen baino gero bakarrik nengon. Lagun bat –atten lagune– zegon Bergarakoa, eta harekin animatuta eta hala.

Eta han nengola, zapatu gauen, eskandaloa kaminon eta Jesus! Zer pasatzen da? Leihoa iriki non eta segitun isteko leihoa: “¡Cierre inmediatamente la puerta y métase de ahí!”. Sartu nintzen barrura, ni ez nintzen atrebitzen ezta irtetzen ere. Falangistak hartu zuen hura; eta falangistak zeren herri guztin, hiru metroko tramotan, herri guztin. Eta gero ba hasi ziren etxek begiratzen; eta jai gauen Centro Republicanora jun eta listea hartu emen zuen –emen zuen, esan egin zien neri–. Eta hurrengo gauen, etxerik etxe han apuntatuta zerenak –hamahiru edo izan behar zuen– ba detenitu eta kartzelara eraman zituen. *A la cárcel* eta kitto. Hala eraman zituen eta hurrengo egunen gurasok ba gosarikin, kafesnekin edo ontzin batekin kartzelara, erai eramateko. Esan zien: “–Ya no está aquí, ya le han llevado. –Y, ¿a dónde?””, eta ez zekiela erak, han guardin zerenak ez zekiela nora eraman zituen. Eta gero esan zan –Villafranca Montes de Oca mendi bat dago, Briviescatik hasi eta honuzkaldera– eta harutza bota zituela danak hilda. Hori esan egiten zan, e? Nik seguro ez dakit. Ni nengon han bakarrik, hogeit urtekin... larri nengon.

–Elizara juteko laguntza izan zendun.

–Jai zan, zeatio zapatu gauen estallatu zan; eta jai goizen: *Ba, elizara jun beharko det*. Eta elizara irtetzen hasi nintzenen, ikusi nitun hainbeste han armakin!, ni ikau eta barrura sartu nintzen, eta atzera atera eta: *A ver si iba a la iglesia, y que ellos eran de la iglesia*. Eta hala eraman nituen, elizaraino eak lagundu zien. Nik mezarik eta ezer ez non egun hortan entzun. Jendea irten zanen, pilon irten nintzen; etxera sartu nintzen eta hiru bat egun edo hola egon ginen irten gabe, zeatio han, taberna hartan, zegon Pagaza... urtundua edo. Eta hura sozialistea edo republikanoa edo zan, eta haren bila... Eta nik ez dakit nun izkutau zan –alkarrekin jaten gendun mahai baten–, ez zuen bilau. Baino gure frentekoa, Carmen, Bergarako emakuma hori, haren gizona ere sozialistea zan, eta harek egiten zon... egunez ganbaran egoten zan izkutauta, eta gauen teilatun egoten zan, eta hura ere ez zuen harrapau.



Antonio Urreta mikeletea, Ezkion, Ama Birjinaren ustezko agerraldietan (ezkerrean). 1931.



Tellerizahar aurrean, ezkerretik eskuinera: Anjel Imaz, Juana Peña, Gonzalo Mercero, Matea Intxausti eta Pilar Mercero. 1938-39.

2.3. Gerra Ormaiztegin

Gerra hastean Errepublikaren aldeko milizianoak herrira etorri, eta Bainuetxean aterpetu ziren. Izan ere, Errepublikako agintariek errequisatu egin zioten Bainuetxea jabeari, Antonio Izuzkizari. Karlista nabarmena zen herrian Izuzkiza.

Bainuetxean kuartela eta Gurutze Gorria jarri zituzten. Iñaki Egañaren *Gerra Zibila Euskal Herrian* liburu sortan jasota dagoenez, Altsasu, Beasain, Ordizia, Zumarraga, Tolosa, Donostia eta abarretako milizianoak egon ziren Ormaiztegin; guztira laurehun bat lagun zituen bere agindupean Juan Mari Intxaustik⁴.

Bilboko Garellano erregimentuko soldaduak ere egon ziren Bainuetxean aldi batean.

Carmen Lasa

–Gerra hasi eta berehalaxe osaba Joxe Ramon milizianok karreatzen ibili zan.

–Bai. Ormaiztegin ez zan gudaririk-eta izan, milizianok izan ziren. Eta Joxe Ramonena... Joxe Ramon arten praka motxakin ibiltzen zan; mutil koxkorra zan baino automobile ibiltzen oso ondo zekin, etxen ikasita. Gure hiru anaiek etxen ikasi zuen, ordun autoeskuelarik ere ez zegon, baino horik ez zuen beharrik izan, etxen...

Eta... gauen ba Joxe Ramon ez zala etxera etorri, afaltzeko garaien eta ez zala etorri Joxe Ramon. Eta larritu ginen eta norbaitek esan zigun: “Bai, Joxe Ramon milizianok jarri due ba milizianok eramaten, automobilekin”. Eta Joxe Ramon handik egun batzutara agertu zan, Loiolatik, nunbait gero Loiolara jun zan eta handik etorri zan eta ia lasaitu ginen.

Joxe Ramon Lasa

–Zuk milizianokin izan zendun harremana.

–Milizianokin hasterako: hamen zegon mugea. Gerra zegon Mutilon, Seguran, Beasainen, eta hamen zegon mugea. Hamen bizi ginen, milizianokin bizi ginen. Bizimodu normala ez baino bastante normala egiten gendun. Lanik ez zan egiten, zergatik ez zegon lanik, hartuemanik ez zegon inorkin, nola gerrea zegon...

Miliziano asko zegon hamen, jende asko etorri zan kanpotik. Eta ordun ba bizimodue egiten gendun hamen. Eta gero ba gauzak estutzen eta estutzen eta estutzen zihozen, eta zubie bota egin zuen, botatzen hasi ziren. Bota zuen zati bat eta gero hurrengo egunen bigarrena. Ordun, egun hartan gertau zan Banoetxen udik ez zegola eta Banoetxea milizianoz beteta zegon. Han jatorduk, eta ohiak eta baziren, eta han bizi ziren. Udik ez zegola eta atteri esan zien juteko faborez bonbak arreglatzera-edo, ude jartzera, zergatik garbitasunerako behar zuela-eta.

4. Juan Mari Intxaustik Carlos Blasco Olaetxeari emandako elkarrizketan.

Gure attek esan zidan: “Jun hadi hi” –atte ez zan ba gauza horitarako propioa ere–. Eta nik hamabost urte neuzken eta nik banekin bonba zer zan, bonbak nola funtzionatzen zuen ere bai. Hala, ba jarri non ur hori, baino atsaldea, ia atsaldea zan, izango ziren bostak ingurue, eta ia tirok bertan ziren. Ia Gabiri aldetik, sobrare Liernitik sartu ziren honera, Gabiri aldetik zubie jotzen zuen eta berealdiko istilue zegon han. Ordun nik gauzak utzi nitun han eta etorri nintzen beheraka, beheraka beheraka, honera, Ezkurdiane ondora.

Ezkurdiane ondoren kotxe bat zegoen eta neri ez zitzatan besterik okurritu kotxe hura hartzea. Nola giltzarik ez zeuken martxan jartzeko, kablek soltau nitun, unitu nitun kable horik eta atzera berriz Banoetxera jun nintzen. Zertara, ez dakit. Miliziano bat nik ondoren nurekin. Jun ginen eta geroz baino geroz estugo, tirok bertan ziren ia. Atzera goitik behera etorri ginen, bizkor. Frenurik ez zion kotxe horrek eta zuen etxeraino etorri nintzen gelditu gabe. Estaziotik ere tirok hantxe, bertantxe. Bazetozen, sartzen ari ziren ia. Atzera jo atzeraka kotxea eta Zumarraga aldera jun nintzen.

Milizianokin hartuemanak horren aurretik ziren. Jaietan, mezatatik ateratzen ginen eta –mezea egunero egoten zan hamen, igandetan ere bai–, ordun ba mezatatik atera eta nere bila milizianok, klaro, beste inork ez zion nahi izaten sobrare, eta ni errez engainatzen nituen eta ni gustora, ibiltzeagatik. Eta kamioneta bat, ganadu kamionetea zan, kamioneta haundie ere ez baino bitartekoa edo hola, Zumarragara eramateko, nola perie egoten zan, Zumarragara... Hak gerrea ez zuen nahi, hak nahi zuen juergea! Eta hakin Zumarragara jun eta etortzen nintzen eta hala ibili ginen.

Milizianok kanpokok ziren gehienak. Altsasuko koadrila bat bazan, oso onak.

–Emakumerik?

–Herrikok, Marina Sagarna eta Igarako hiru-lau baziren.

–Ez ziren armakin ibiliko...

–Bai, bai, destakatu egin ziren.

Gero, danak aurrera jun ziren, gaztek. Eta batzuk jungo ziren batailoi sozialistatara eta beste batzuk abertzaleetara. *Por ejemplo*, Alejandro Irizar ere (Panaderikoa) jun zan, eta batailoi euskaldun baten egon zan; tenientea zan hura.

Carmen Lasa

–Behin tiro arten harrapatu zintuen...

–Ordun lantokie itxita zegoen. Gerrako lehen egunek oso nahastuk izan ziren, gauzari ez zitzaion antz ematen. Lantokie itxita baino attek Ezkurdianeko Xabin Bilbaura bidali nahi zion, lantokirako zerbaiten bila; eta papel batzuk behar eta ni bidali nindun attek lantokira papel horin bila. Jun nintzen, lasai. Gero, hasi ziren hortik requete naparrak, Segura aldetik, hasi ziren tiroka. Jo! Eurie bezela.

Kanka-kanka-kanka! balak tailarran gainen; ni bakar bakarrik han; ez non irten nahi, nola irtengo nintzen... baino eurie balitz bezela eta dana puskatu behar balue bezela, teilatu guztie. Ni bildurrez, bakar bakarrik, garraxika... baino denbora asko egin non hola. Eta halakon baten, denbora askon jardun eta gero gelditu ziren eta etxera jun nintzen. Baino estuasun galanta pasata. Nik uste non, benetan sinisten non, han hilko nintzela. Hori zan lehenbizikoa, lehenbiziko egunetakoa. Eta naparrak Segura aldetik Ormaiztegira; Segura hor bertan dago ba, mendiz jun ezkeru gertu dago. Hura zan estuasun ikaragarrie. Pasa zan.

Joxe Ramon Lasa

–Tiroaldik izaten ziren hamen. Ez dakigu Españolatik edo bestealdetik edo nundik etortzen ziren. Mikeletek zeren ordun, gerra hasiera hartan; Ezkurdiarri atzen, arbolak zeren; arbolak eta danak txikituta utzi zituen. “–Baino nora botatzen dezue ba? –Al-dun-dun, al-dun-dun!”.

Joxe Urreta

–Nazionalak sartu zirenen zuen etxan inzidente bat izan zuden.

–Bai. Itsue zan gure attona; hura gerra karlistan ibilitakoa zan. Hain zera sartu ziren... horik sartzen dire etxan... Kuarton zegon eta fusilekin ia tiroa botatzera zihetzen. Eta don Josek (Campos, apaiza) ezetz, itsue zala eta uzteko, eta hala utzi zuen. Gero hari egin zioen entierroa bi izar sei puntakokin, teniente. Gero enterau ziren karlistan gerran ibilitakoa eta... trapu zera horitako bat, bandera nazionala kajen gainen eta txapel gorrie bi izarrekin jarri zien. Entierroa... bueno... kategorie!

–Attona hori zan...

–Jose Ignacio Izuzkiza, aman-eta atte, Lapatzakoa hori ere, eta Izuzkiza horin parientea; nik uste det iloba zola Antonio Izuzkiza.

–Nazionalak sartu ziren egunera itzulita, iluntze baten sartu zirela esaten dezu.

–Bai, bai, kaminoz etorri ziren gehienak, Beasain alde hortatik. Hemen, Mote gainen egoten zan frentea.

–Moten edo Españolan?

–Mote txikigo hori da, Ojarbira juteko dagon hori, Españolara atzerago. Hor egoten ziren. Txiki-eta ordun astokan jana eraman eta ibiltzen ziren, miliziantzat –bueno, gorrik esaten zan– horintzat.

–Ordun, Españolan gorrik egon ziren.

–Klaro, Españolan gorrik egon ziren denbora gehienek. Nazionalak Etxegarartetik sartu ziren, Etxegarartetik Idiazabalera jun ziren. Eta Ormaiztegi hartu baino lehen, ia Donosti aldera jo zuen horik. Eta frentea hemen egon zan.

–Baino gero requetek egon ziren hor, ala?

–Bai, bai, bai, requetek. Seguran eta hor bata beste tiroka ibili ziren.

–Bertakok?

–Bertakok edo, naparrak edo... napar jende asko zan hor ordun-eta.

–Beasain aldetik kaminoz etorri zirela diozu, Beasain hartuta?

–Beasain hartuta zegon. Ormaiztegi gerogo, eta gero Zumarraga. Hemendik segi zuen, behetik gora. Gero hor ibili ziren, Elgeta alde hortan, hor, uff! ikaragarritzko zerak euki zituen. Ni akordatzen naiz hemen, abioiak pasatzen ziren, Junkerrak edo ez dakit zer esaten zien, karga-karga eginda, Durango eta Gernika eta horik danak bonbardeatu zituenen. Pentsa zazu, gu, gertu zalakon, Gabirira-eta junda, ikustera. Leku onen zan! Mutikok! Berealdiko hotsa, berealdiko tanborrada hotsa egon zan ba, bonbardeokoa, eta guk uste gendun hortik berehala zerela. Gabirira jun ikustera, keba! Pentsa zazu nun dagon Durango eta Gernika.

–Bonbardeon hotsa aditzen zan...

–Adituko ez zan ba! Bergara eta Elgetan eta botatzen zituen... Elgetan frentea fuertea egon zan, e?

Carmen Lasa

–Lehengo baten esan zenidan hegazkinek pasatzen zirela hemendik.

–Oi! Ba udazkenen usok pasatzen direnen talden, uso asko... hegazkinek hola. Hamasei-hemezortzi hegazkin, danak alkarrekin pasatzen ziren. Alderdi hontatik Durango aldera, eta Elgetan eta Durangon eta hor egiten zituen bonbardeok. Horik ikusten ginutzen eta hemendik entzuten ginutzen bonban hotsak.

Kasilde Arzelus

–Gero, etorri nintzenen, ikusi non zubie botata, danak ikaraz genden. Eta esan nien, nundik sartu dire? Eta Lierni aldetik etorri emen ziren.

Eta etorri ziren gure etxe pareraino, Arraitegiraino, han zeuken topea. Eta gure atekatik jun ziren galdezka eta amak esan emen zien: “Ba, kanpon da”. Eta gero esan emen zien: “Hara, oraintxe dator” –automobilien hotsa aditu emen zon amak-. Eta tarra jarri emen ziren, eskopetak hola zituela. “–Zer egin behar degu? –Ez, ezer ez, ezer ez, etorri dedila”.

Eta ordun artasoro bat genduken eta arto arten zegon gordeta guardaguja bat, estazioko guardagujea –izena eta dana nekin, gero trenak harrapau zon gixajoa-. Eta irten emen zan atenna –ezagutu egiten zon automobile- eta esan emen zion: “Están delante de tu casa, así que, tú verás”. Buelta eman eta jun zan atzera. Eta esan emen zon amak: “Laster da, laster da... Buelta eman do!”. Hari irtetzen zitzaion momentu hartan pasatzen ari zana.

Eta hala, jun zan Eibarrera. Geratu zan Eibarren, bastante denboran egon zan. Eta hemendik, soldaduk-eta Santalutzin egin zuen bastante denbora –ordun ezagutu zon Mari Carmen Telleriak gizona, Brunet, bai–.

Joxe Ramon Lasa

–Eta zubie bigarren zatie bota zuen garaien, orduntxe gertau zan sartzea nazionalak. Ikusten zan ba dana botako zuela. Hak sartu ziren eta nik ospa egin nun nere kotxe horrekin. Eta Zumarragan hartu nituen Gregorio Telleria –Ixiarren-eta atte–, Julian Zabala, Juanito Manzidor eta Agustin Elosegik. Horikin gogoratzen naiz behintzat. Horik esan zien: “Hi gurekin hamen, e? Ez inora mogitu, hi gurekin!”. Eta ohiak eta bilau zituen eta ni bialdu nituen ohira eta eak kalera jun ziren, eta ni han lo.

Ormaiztegitik Zumarragara hasi ziren tropak mogitzen. Zumarragatik, Eitzako gainetik begiratzen ginutzen, horruzkaldetik gora bazetozen ia eta ordun Azpeiti aldera jo gendun. Azpeitira jo gendun eta han egon nintzen izeba Dolorexekin (Lasa). Izeba Dolorex eta hok zeren detenituta, han.

–Detenituta?

–Bai. Hor zeren sekretario zana (Fermin Bengoetxea), eta izeba Dolorex (Lasa) eta holako batzuk zeren harutza eraman eta... bueno, detenituta... horik ia gudarín mende sartu zituen, ezta? Ezer ez gertatzeko, ze beste horik edozein disparte egin zeiken ba. Izeba Dolorex zegon bere iloban etxen –elizen ondón bizi zan bere iloba–. Eta ni ordun harutza eraman nituen. Igande baten sartu ziren tropak Azpeitira, eta ordun han egon ginen hak sartu arte, eta astelehena edo asteartea izango zan, etxera etorri behar gendula ba. Eta nik Loiolan beste kotxe bat bilau non. Kotxe asko zegon Loiolan, ze batailoi euskaldunek zeren harutza zentrauta, Loiolara. Eta kotxe hori, furgoneta txiki bat zan, *Fiata* –gero gertatu zan Irungo batena zala, bilau zon jabek– honera ekarri non, Juanito Manzidorrekin, biok etorri ginen furgoneta hartan. Hari ere kablek askatu, zubie egin, eta martxan jarri eta honera. Hor gelditu zan ia gure zera, milizianon eta asunto dana hor gelditu zan; ze deskuidon aurrera jun izan bagine, auskalo zer gertauko zan. Ia Azpeititik etxera etorri nintzen.

–Zenbat denbora egin zendun hemendik kanpora?

–Nik egingo nitun sei bat egun edo hola. Milizianokin gastau zan Zumarraga. Harutza ailegatu ginenen, han gastau zan. Klaro, hok hartu nituen... umea nola nintzen, “hau ez zegok uzterik” pentsauko zuen-eta. “Hi, gure ondotik ez apartau hi!”. Gero Azpeitin izebakin jarri nituen eta han bukau zan nere festa hori.

–Nolatan zeren Zumarragan beste ormaiztegiar horik?

–Horik, ihes eginda. Ze, Gregorio Telleria, *por ejemplo*, ibiltzen zan kotxeekin, Juan Mari Intxaustikin. Horik ziren hemengo arduradunak. Eta Gregoriok bere serbiziok, bueno, Zumarragara edo jun behar bazan, horik ibiltzen zitun. Juanito Manzidor, ez dakit, kargun bat zeuken edo... Eta Julian Zabala eta hok, nazionalistak nola ziren, bildurre; ze aditzen ginutzen ba Beasainen eta zer gertau ziren. Ordun jendea

bildurtuta zegon hamen, eta jendek ez zon nahi hok harrapatzerik, eta ordun ba... ihesi. Gero, ba jun behar zendun Bizkai aldera. Eta jendek familik hamen utzi eta... hor gelditu ziren danak, horik danak. Gero, beste jendea, por ejemplo Eduardo Iturbe, Gregorio Irizar, Jose Luis Mendizabal... hok danak aurrera jun ziren, gaztek, Santiago Intxausti... Bueno, Intxausti familia, danak jun ziren aurrera; hok Sestaon familie zeuken eta harutza jun ziren; eta Xanti eta hok, Juan Mari-eta, hor ibili ziren frenten, Eibarko frenten.

2.4. Gerratik ihesi

Nazionalak sartzean, ikusten denez, jende mordoskak alde egin zuen herritik. Gehienak laster itzuli ziren, baina Intxausti Peñatarren familia osoa, sakabanatuta, batetik bestera ibili zen. Kasilde Arzelusen aita eta anaia Ipar Euskal Herrian aterpetu ziren, Bartzelonatik pasa eta gero; han bizi izan zuen gerraren zati bat Madalena Ramosek.

Kontxa Intxausti

–Gu ez ginen enteratzen, e? Guk ez gendun jakiten nun zebiltzen. Aldin behin baten batek... Inazio, herituta, masailen, *en el Hospital de...* Algorta. Gero sendatu zan eta berriz ere frentera, nundik nora ez gendun jakiten. Xanti berriz txofer, kapitanen batekin edo.

Gero Bilbao erori zan, Sestaotik Santanderrera jun ginen; attejaune hil zan hemendik irten eta berehala. Santanderren jende asko juntau ginen eta janakin eta oso gaizki; radiotik esaten zuen eta gu juten ginen zine baten sarrerara; ematen ziguen *un pedazo de queso de bola y un cacho de pan*; gure bazkarie hori izaten zan; barrura sartu, hura jan eta etxera. Eta gero anuntziatzen zuen radiotik: “mujeres, niños, mayores... que se apunten al barco”. Eta halako baten attek: “Ba apuntau egin beharko dezue”.

Eta apuntau ginen hiru ahizpak eta osaba hori. Hori, solteroa, gurekin bizi zan eta hirurogeita hamar-hirurogeita hamalau urte izango zitun; Amerikatara jun, sobrare osasunek ez ziola laguntzen-eta... gure etxera; behetik gorako terrenok bere izenen zeren; gukin bizi zan, ondo.

Laurok apuntau eta barkun sartu ginen, “Sarastone”, *carbonero inglés*; bagihotzen –ez dakit, egun pare bat edo zenbat– biden; lehenengo egune zan eta hotsegin zuen: “¡Cervera a la vista!”; kainonazon baten zai; kainonazon bat edo bi botako digu; edo bestela berak nahi don puerto batera. Danak negarrez, hiru mila lagun; azkar esaten da, e? Hiru mila lagun. Denborea pasatzen, pasatzen... ez zan ezer gertau. Hurrengo egunen: “¡Tierra a la vista!”. Hori ia notizi hobea zan. Pozik.

Jetxi, Saint-Nazaire, Frantzin. Mapan ikusten da, sarrera haundi bat. Ordurako zeuken montatuta tren bat kotxe askokin; sartu ginuzten kotxe horitan *los tres mil*; bazihon trena eta halako baten gelditu, eta azkenengo bagoia han gelditzen zan. Hurrengon, segi aurrerago, berriz ere gelditu... holaxe partitu ginuzten. Eta gu

Viaducto y balneario de Ormaiztegui, Guipúzcoa



Zubia eta bainuetxea: gerraren bi gertaleku nagusiak.



Española aldetik tiroak herriaren erdiraino iristen ziren. c. 1930.

ailatu ginen a *Dijon*, eskubi aldera, goien. Harutza ailatu ginen eta handik herritxo batera, Arnay Le Duc. Hor egon ginen hiru hilabeten. Hor ginen hogeita hamar lagun: attonak –agurek–, umek, amonan bat ere bai.

Han egin zuen estali bat kanpon –hori zan eskola bat–; egin zuen estali bat kanpon, fregadera eta sue. Eskolako pabelloi bat zan. Jarri ziguen bina tabloi eusteko, hiru ohol eta gero txorrokako koltxoiak; horik bueltan eta erdin mahaie. Aste baten bi-hiru andra, janak erosi, preparau... Erropak labaderotan garbitzen ziren. Apuntatzen ziguen koaderno baten gastuk eta *que pagaba el gobierno*. Nik ordun frantzesia berrie non eta nere talden nik egiten non erosketea.

Eta gainerantzen, hiru hilabete pasa ziren; bitarte hortan Santander erori zan; atte-amak genduzken han; eta izeba Matea (Intxausti) –atten arreba– genduken hemen, eta hari eskribitzen ginun eta harek esan zigun nola atte-amak Santanderren zerela.

Kuestioa da, egun baten idatzi zigun esanez osaba hori –bere izenen zeren terrenok eta– nola anuntziatu zuen presentatzeko “los que habían abandonado los bienes” edo. Eta nola etorri? Harek *oui* esaten ere ez zekin frantzesez; nola etorri behar zan han goitiki Irunera bakarrik? Prefektok papela edo egin zion eta papel harekin etorri zan Iruneraino trenez eta hor zeuken zai izeba Matea.

Ordun, garai hartan, Beasainen zegon komandantzie, eta han presentau behar zan; presentau zan komandantzin; ordun izeba Matea alkatena jun eta esan emen zion hau eta hau, esplikatuz zion eta bueno, “nere esku dagona nere aldetik egingo det”; hurrengo egunen libratu zuen. Ordun ia etorri, etxea zabaldu eta... dana hustuta.

Beatzi ohi zeren. Mueblekatik etzan izango, ze garai hartan mueblek, ahal zan bezela; baino koltxoiak –beatzi koltxoi–, mantak, izarak eta ontzik eta dana... ezer gabe. Militararak izango ziren batzuk eta beste batzuk herriko jendea igual eta... hola.

Joxe Ramon Lasa

–Karteronekoi min haundie egin zien. Etxe hortan egoten ziren falangista horik. Naparrak. Bati ljiota deitzen zien.

Madalena Ramos

–Iban avanzando las tropas de Franco. Ya mucha gente de Irun entraba en Francia y... avanzaban, avanzaban... y tuvimos la ocasión de venir a Francia, pero entonces no dejaban salir a los hombres y papá quedó en San Sebastián. Mi mamá, mi hermana y yo embarcamos en el “Marqués de Comillas”, pero con la intención de ir a París, porque ahí teníamos muy buenos amigos.

Eramos unos cincuenta en el barco. ¡Oí, por favor, qué mal lo pasamos! Vomitábamos... teníamos *la maladie de mer*. La cosa es que llegamos a San Juan

de Luz y ahí nos esperaba la policía; bajamos del barco y nos vacunaron –nos llevaron al Ayuntamiento para vacunarnos–. Yo les dije que teníamos intención de ir a París y me dijo el gendarme: “–No, no, no, usted habla francés y español y va a dirigir el convoy; van ustedes a ir a Barcelona. –Pero, no, si papá... –No, no, no, nada de París, ustedes van a Barcelona”.

Nos dieron un sandwich de jamón –se portaron bien en lo que cabe– y ya, pues rumbo a Barcelona. Pasamos por Figueras, que nos acogieron muy bien; bajamos en Figueras, cada familia nos acogió, nos llevó a su casa para comer, ya después fuimos para Barcelona.

Ya nos acogió el Socorro Rojo Internacional. Había una pareja muy buena, de unos sesenta años, nos acogieron muy bien, nos dieron de comer y nos alojaron en el Socorro Rojo. Y ahí pues había máquinas de coser y yo tenía mucha idea para coser. Estuvimos un mes o así en el Socorro Rojo; hacían lo que podían, dormíamos en el suelo pero, en fin... éramos jóvenes entonces, no nos afectaba; solíamos coser, hacíamos pantalones, chaquetas...

Con el tiempo quisimos independizarnos, y ya buscamos un piso en la calle de Cortes, una avenida muy bonita, un piso muy bonito. Y ya las tres fuimos a vivir allí.

Yo tenía una prima carnal casada y él me dijo, el marido –que también luchaba pero yo creo que era más bien extremista, de Carlos Marx; ¿no era un poco comunista eso?–. En fin, me dijo: “Oye, tú sabes escribir a máquina y taquigrafía, preséntate”. Necesitábamos trabajar para poder comer, y entonces entré en la Delegación de las Brigadas Internacionales como mecanógrafa. Estuve dos años; trabajé mucho, mismo los domingos. Yo allí ví pasar todos los voluntarios internacionales; pasaban por mí porque yo sellaba todos los pasaportes de los que iban voluntarios.

–Durante la guerra, ¿tuviste noticias de Juan Mari?

–Sí. Es decir... En Barcelona había la Delegación Vasca y mis padres estaban inscritos. Y un día Juan Mari bajó del monte y fue a la Delegación, y coincidió con mi padre, y como eran socialistas, mi padre le tenía mucha simpatía a Juan Mari. Solían tener reuniones de vez en cuando en Ormaiztegi; solía decir papá: “Buen chico, ese Juan Mari”; cuando oía eso, me ponía contenta.

Se encontraron: “–¡Oi, Florencio! –¡Oi, Juan Mari!”, se abrazaron. “¿Qué tal Malen, Margarita, qué tal? Ah, pues tengo que ir a verles”. Yo entonces ya tenía veinte años, coqueta, y como sabía que iba a venir me puse un vestido muy bonito, me pinté... Ya subí, ya Juan Mari en casa... Hizo así, hacía mucho tiempo que no me veía, ya yo era chica joven, presumida, y... mecanógrafa. Charlamos cosas del pueblo, tomamos el aperitivo...

La cosa es que ahí le gusté. Cuando ya marchó, recibí una carta en la Delegación. Me mandaba una foto, hablándome en plan de amigo. Yo contenta, “me apreciará como amiga”. La cosa es que nos bombardearon a papá. Yo no sé cómo supo,

me escribió una carta y escribió a mamá, diciendo que ya sabía que había muerto Florencio y que si necesitábamos de su ayuda, de decirle; que él cobraba como capitán y que, a veces, entregaba a los soldados; que él nos ayudaría.

Para entonces ya hacíamos los papeles para ir a París. Yo le escribí una carta –estaba en Albacete–, le dije: “Juan Mari, he recibido tu carta, muy agradecida, pero nos marchamos, nos vamos a París definitivamente. Mamá, cuando hay bombardeo, se pone muy enferma. Yo no me hubiera ido, ni Margarita tampoco, pero mamá sí. Te digo adiós, Juan Mari, y te voy a decir una cosa: te he querido y te quiero. Igual nunca más te volveré a ver, pero tú tienes que saber que siempre te he querido”. No recibió la carta nunca. Iban avanzando los otros, se desplazaban... así que él no sabía que le había querido.

Kasilde Arzelus

–Zuen familie ere erdibituta egon zan ba...

–Bai. Ahizpa jun zan segitutik Markinara –gure ama Markinakoa zan eta haren lehengusu batzun etxera–. Denbora guztie han egin zon... Eta attek eta Julenek... ibili ziren ahal zuen tokin; zeatio bi aldiz ere biali zituen Frantzira; gero handik etorri... eta atteri ipini zien lana, zeozer emateagatik, jana emateko jendeari, platerak betetzen janakin. Eta Julen berriz, ahal zola defenditzen. Bonbardeo bat izan emen zan ordun Bartzelonan, bonbardeo haundie; atte emen zihen Ayuntamentura hildakon listea ikustera –listea jartzen emen zuen–. “Ez zegok ba hemen. Nun ote da nere semea?”. Eta eskilaratan behera dihola topatu berekin; bera, atte hil ote zan jakitera. Eta handik bi-hiru egunera beste bonbardeo bat, eta ordun ere hala galdu ziren. Eta hok Frantzira jun ziren eta atte ez zan *campo de concentración*-era jun, nik ez dakit zeinen bitartez, han zebilen Frantzin. Eta Julen *campo de concentración*. –Ez dakit liburu bat leitu dezuen–...

–Gurs?⁵

–Bai, Gurs. Ez zon nahi izaten, etxera etorri zanen, “ez iazue aitau ere”... bere bidez ez gendun jakin ezer. Gero, liburu hori leitu non eta asko pasau zuen.

Julen etorri zan. Pasatzen ziren automobilkadea Frantzik Espainira. Eta gero, Espainin, lokal haundi bat zeuken eta txertatu egiten zituen, bakoitze txertatu egiten zuen eta handik jakiten zuen zein zan eta dana.

Eta gure atte etortzeko jarri zan... Lehenengo gu Punttura juten ginen, o sea que Irundik eta Nafarrora bitarteko errekea, erreka hartan bera alde batetik eta gu bestetik, hizketan aritzen ginen atekin; baino hori izaten zan Franco Donostira edo Pamplonara edo etortzen zanen, soldadu edo militar guztik haruzkaldera juten ziren eta ordun jakiten gendun eta juten ginen ikustera.

5. Beamen, Zuberoatik bertan zegoen kontzentrazio eremua.

–Ze distantzira?

–Gertu, igarin pasatzeko modun. Behin anaiek, Davidek, pasa egin nahi; esan ginun, ez, zeatio gaizki ikusi behar gera eta ezetz; xendarmek edo, nola dire Frantzikok? Goitik ikusi zuen nola hizketan ari ginen; ez zien ezer esan beste; peligran zegola eta igotzeko.

Eta hala, ez genekigun nola komunikatu bata bestetik eta zubin, Irungo zubin, ez zuen ametitzen ez kotxerik eta ezer pasatzerik. Baino zeren bi maletero preparauta, maletak eraman, pixau... Eta maletero hori zan Eibarkoa, eta ezagutzen ginutzen, eta gu zubin honuzkaldetik tabernan egoten ginen, ama eta Davi askotan, eta bestaldeko alden zegoen beste taberna bat; guk eskribitzen ginun papel bat eta atteri pasatzen zion, eta gero, honuzkon, atzera ekartzen zigun; eta hala komunikatzen ginen alkarrekin.

–Han zegola, zuen atte gaixorik ere egon zan...

–Operatu egin zuen; Roseraieko⁶, ez dakit klinikea izango zan, etxe bat zala esaten zion berak. Jun nahi izan gendun operaziorako eta... *que somos peligrosos y que no*. Han zegoen Antia (Dionisio, Gabirikoa), eta harek kaso egin zion eta harekin komunikatzen zan.

Eta beste batzutan berriz komunikatzen ginen... geok ere ez gendun diru asko, ez zegoen dirurik, baino inguratzen genduna behintzat Lazkaoko fraileei ematen ginun. Askotan, hogeituro igoal e?, baino ahal zana. Attentzako. Eta hak frailetan, han ematen zien atteri.

–Beloken⁷.

–Bai.

6. Roseraieko klinika Bidarten zegoen (Lapurdi), Jaurilaritzak sortua gerratik ihes egindako gudari eta errefuxiatuentzat.

7. Beneditarren abadia, Ahurtin (Lapurdi).



Inazio Intxausti. 1942-08-15.



Matea Intxausti.



Joxe Migel Irizar, Maria Loiola, Kasilde eta Bixente Arzelus (eskuineko azken lauak). c. 1944.

2.5. Zubia moztu

Atzera egin behar dugu, 1936ko irailera. Francoren aldekoek hartuta zeukaten Beasain uztailearen 27tik, eta aurrerako bidea eragozteko, Ormaiztegiko zubia etetea erabaki zuten Errepublikako agintari militarrek. Hasierako asmoa zubia lehertzea izan zen, eta horretarako dinamitzaile asturiarrak bidali zituzten, baina herriko errepublikanoek konbentzitu zituzten agintariak horrelakorik ez zezaten egin; orduan, zubia moztea erabaki zuten⁸.

Eibarko udal arkitektoa zen Urbano Mantxobasek zuzendu omen zuen mozketa, eta Bergarako Labe Garaietako soplelistak ekarri zituzten lan hori egitera. Madrilerako noranzkoan, bi zati moztu zituzten; irailaren 15ean hasi eta bi egun behar izan zituzten horretarako; ozta-ozta bukatu zuten, ze 1936ko irailaren 18an, nazionalek herrira sartzea lortu zuten.

1937ko otsailaren lehen egunean hasi ziren berriro trenak zubitik pasatzen, hilabeteak eraman zituen "gau eta eguneko" lanen ondoren.

Carmen Lasa

–Zubie moztu zueneko...

–Herrin hotsa zabaldu zan zubie moztu behar zuela, eta gu ba nola zubie hain ondo ikusten gendun etxetik, etxeko galeri haundi hartatik, han genden zai zer ikusiko. Eta, jo!, gure atte larri zegon, harek ez zeuken gogorik zubie mozten ikusteko; guk bai, baino berak ez. Eta danok barrura eraman ginutzen, etxen barrura, ezer ez ikusteagatik.

Eta gero bai, moztu zuen. Eta gero etorri ziren –horixe, Paris, Madrid, Lisboa eta danak lotzen ditun zubie da hori– eta etorri ziren... nola zan jeneral hura?

–Mola.

–Jeneral Mola eta danak etorri ziren ikustera zer gertatu zan zubie moztuta. Eta...

–Konpontzera?

–Ez lehenbiziko egunen e? Denborakin konpondu zuen. Baino guk genduzken bi osaba makinistak, trenekin ibiltzen zirenak. Horregatik, gu trenari oso lotuta genden, oso lotuta. Eta azkenengo trena zubin osaba Periko (Eguren) makinan eta bere lagune... Susperregi. Azkenengo trena pasa zuenak Ormaiztegin eak ziren, Irundik Altsasura.

Gero autobusek jarri zituen Beasaindik Zumarragara jendea ibiltzeko, eta hola. Eta gero zubie konpondu zuen. Baino zubie konpontzeko jarri zituen behe behetik, bidetik goraino zerak... andamiok jarri zituen eta ikaragarri argi. Gau guztie herrie

8. Inazio Intxaustik kontatzen du hori, xehetasun guztiekin, Carlos Blasco Olaetxeak egindako elkarrizketan.

argitan egon zan eta gaeuz eta egunez lana egiten zuen, hogeita lau ordutan. Eta hala ba zubi hori –horixe, garrantzi haundikoa zan–, hala ba, konpondu zuen zubi hori.

Osaba Periko izan zan merkantzi batekin azkena pasa zana zubin moztu aurretik eta gero ere, pruebatan, gogon dauket, bi makina lotu alkarri –makina horik ziren Brown Boveri, makina elektrikok, e?–. Ba bi makina hola lotu alkarri bide baten eta beste bi makina beste biden, eta indar guztin lau makina, Zumarraga aldetik Beasain aldera, eta gero Beasain aldetik Zumarraga aldera berriz ere, zubie pasatzen, ea ondo zegon, pruebak egiten.

Joxe Urreta

–Zubie bota zuenekoa, zer daukezu gogon?

–Ba gu mutikok ginen eta ezin geldik egon eta jun eta ikusten nola eroritzen zan. Behera erori zanen uden tubok eta danak puskau zitun, lehenengo tramok behinpehin. Eta gero kitto, nazionalak sartu ziren eta danak alde egin behar izan zuen; bestela, dana botako zuen hori, e? Baina bi puska botata geratu zan bakarrik; Zumarraga aldeko puska hori bota zuen, goikoa.

Zuzen ebagitzen hasi ziren hori, baino gero trabau egiten zan behera eroritzeko, ze behera erori behar zonen beste puntetik jotzen zon, eta gero ebagi zuen diagonalen; diagonalen ebagi zuen eta goiko puntea nola barrurago zegon, ordun librau egiten zan. Horrekin gogoratzen naiz ni.

–Jende asko ibili zan hortan?

–Jendea goien ibiliko zan gehiena, behean ez. Gora juten ez zuen uzten. Zenbat lagun ibili ziren? Hori ezin deiket esan.

–Nazionalak sartu zirenen hasi ziren konpontzen.

–Segitun hasi ziren. Jende ikaragarri ekarri zuen: enkofradorek eta arotzak eta igeltserok eta danak. Eta ordun hasi ziren repuesto horik egiten, *los sucedáneos*, horik eusteko. Lehenengoa altxau zuen lau makinakin... –ordun ez zegon Usabiagarik, Goiherririk⁹ ere ez– kablekin tira egiten zioen; eta gero makinak patinau egiten zuen karrilen, eta egiten zioen kanalak egin, harriz bete ez patinatzeko, eta harekin altxau zituen.

–Lau makina?

–Lau makina, Beasain aldetik bi eta Zumarraga aldetik beste bi, tiraka. Gero, altxau zuenen, goien, ez dakit nik rematxau edo soldeau edo zer egingo zuen, eta gero azpin segitun postek egin zituen. Sujetauta geratu zan hori. Oraindik hor dago zein altxau zuen eta zein pusketa jarri zioen.

9. Usabiaga eta Goiherri: garabi enpresak.

–Antz ematen diozu?

–Edozeinek antz ematen dio horrei, kuadrok diferentek dauzke.

–Zuek etxen apopilok euki zenituen.

–Guk etxen apopilok euki gnutzen, zeatik jendea bestela nun zeratu behar zuen? Gure etxen egon zirenak enkofradorek ziren; bat zamoranoa edo ez dakit nungoa zan, jatorra oso, eta bestea ataundarra; oso mutil onak ziren, e? Eta klaro, pupilajea pagatu egiten zuen eta nola gure atte oraindik kanpon zegon, badakizu, familiri eusteko ba... Baino etxe askotan egon ziren apopilok hemen, e?

–Zubie martxan jarri zuenen, inaugurazioa ere egin zuen.

–A bai, inaugurazioa. Mola etorri zan; gero handik laister hil zan –bueno, edo hil zuen, ez dakit zer pasau zan– hor, Burgos alde hortan abioi koskor batekin erori zan-eta. *General Mola* etorri zan, bai, hori inaguratzera; oraindik presentzin dauket: attona majoa zan, antiajukin eta...

–Gogon daukezu?

–Baaai, horrekin akordatzen naiz ni. Gu, mutikok, ez ginen geratzen-eta...

2.6. Fusilatua

Zubia moztu izana zigorrerako aitzakia paregabea izan zen Francoren aldekoentzat. Hilabetera gauzatu zuten zigor hori. 1936ko urriaren 15ean, gauerdian, hiru lagun fusilatu zituzten Ormaiztegiko hilerriko sarreran: Antonio Galdos Ugarte, Guillermo Martínez eta gizon gazte ezezagun bat –Santanderkoa, dirudienez–.

Guillermo Martínezi, *Jefe Xaharra* deitzen zioten Oñatin, tren geltokiko arduraduna izana baitzen; herri hartako Centro Republicanoko presidentea izan zen Errepublika garaian; 77 urte zituen.

Antonio Galdos (Oñati, 1906) Unión Cerrajerako enplegatua zen, eta Bergarako Labe Garaietan lan egiten zuen soplestista gisa. Bere alabak, Manttoni Galdos Urbeloak (aita hil eta gero jaioa, 1937an), ozta-ozta izan zuen aitaren berri txikitik; gerora, han-hemenka bila ibilita, Antonioren azken egun eta orduak berregitea lortu zuen¹⁰.

10. Antonio Galdosen lankide izandako bi gizonen lekukotzari esker, 1980an, notarioaren aurrean sinatutako agirian, honela jasota geratu ziren gertakizunak:

[...] fue requerido por las Fuerzas del Gobierno del Frente Popular para trasladarse a Ormaiztegui, a donde fue conducido, ordenándosele verificara diversos trabajos en el Puente del Ferrocarril de la línea MADRID-IRUN (RENFE), para el derribo del mismo.

Que realizado el trabajo a que fue sometido, regresó a su domicilio, continuando su vida normal en la familia, acudiendo a su trabajo como lo había hecho siempre.

Y que el día quince de Octubre de mil novecientos treinta y seis, una vez ya las fuerzas del Ejército Nacional entraran en Vergara, hallándose trabajando en la misma fábrica de "UNION

...

Beste gazte bat ere fusilatu zuten Ormaiztegiko hilerrian: Felix Alzelai Beldarrain; D. Juan Muguruza maisuaren ikaslea izana zen Hernanin. Hil baino lehen, D. Juanekin egotea eskatu omen zuen: hari utzi zion familiakoei bere berri emateko enkargua¹¹.

Donostiako Elizbarrutiko Artxibo Historikoan, Ormaiztegiko parrokiari dagozkien dokumentuetan, Antonio Galdos eta Guillermo Martínezen heriotza agiriak daude, urriaren 16ko datarekin, eta Julian Alzelairena urriaren 10eko datarekin, hirurak D. Jose Campos erretoreak sinatuak. Ez da azaltzen Galdos eta Martínezekin batera fusilatu omen zuten hirugarren lagun horren inolako arrastorik.

Carmen Lasa

–Zubie moztu zuen, bai, eta esan zuen Bergarako Altos Hornosko sopletista batzuk zirela. Eta gero gertatu zan ba sopletista horik Ormaiztegiko kanposantun fusilatu zituela.

Nik –gaixo nengon ordun eta ez non lo asko egiten– bi gauetan entzun nitun fusilamentun deskargak; bi gauetan izan ziren. Nik gero esan, gauen halako hotsak entzun ditut; deskarga itxi-itxi bat eta gero ta-ta-ta, horik *los tiros de gracia*; horik danak garbi entzun nitun nik bi gauetan. Eta bizi ginen holaxe, giro hortan, bildurtuta.

Joxe Ramon Lasa

–Zuk Ormaiztegin fusilatutakok ikusi zenitun.

–Nik ikusi nitun zubie bota zuenak –esaten zuenak–, Bergarakoa edo Oñatikoa bat... Nik Xerafinekin (Esnaola) hitz egiten non gizon haietaz. Eta gainera entierroa egiten ez emen zien utzi, baino ixilka egin emen zien, esan zidan neri Xerafinek. Eta horik konfesau zitun Ormaiztegiko erretorek (Jose Campos); erretorea karlista zan, eta erretorea bera ere ikarauta gelditu zan. “Baino gizon hok, nola hil behar dituzue? Neri eziazue gehigo ekarri holako jenderik!”. Erretorea bizi zan

...

CERRAJERA, S.A.”, en Vergara, como lo había hecho siempre, fue detenido y conducido a Ormaiztegui por miembros del expresado Ejército Nacional, fusilándosele inmediatamente el mismo día quince de Octubre de mil novecientos treinta y seis, a las puertas del Cementerio de la expresada villa de Ormaiztegui.

Ormaiztegiko elizako heriotza agiria ere lortu zuen Manttoni Galdosek, don Gaspar Insausti apaiazak emanda, eta hor beste xehetasun hauek ageri dira:

Su cadáver fue inhumado el día 16 de octubre de 1936 en el Cementerio de esta villa de Ormaiztegui. Recibió Santo Sacramento de la Penitencia, administrado por el Capellán de la cárcel de Vergara.

Zubia moztu izanak errepresaliatu gehiago ere eragin zituen. Hala, Eibarko Santos Iriondo Astarloari (32 urte, UGTkoa), hoguei urte eta egun bateko kartzela zigorra ezarri zioten (Gutiérrez Arosa: 172).

11. Xofi Muguruza Zangituren ahozko testigantza, 2010-03-31n.

hor, Camposeneko etxen, erretirauta edo hola zegon. Baino, klaro, heriotza nola zeuken, konfesau nahi zuen eta baietz, eta hala konfesau zitun. Eta hala hil zituen hiru horik. Horik ikusi nitun nik. Eta gero beste bat ikusi non, Hernaniko mutile, deskuidauta hil emen zuen, Felix Alzelai, Hernaniko semea. Eta hura ere... Bueno, itxurarik ez zuela, arpegie txiki txiki eginda uzten zien, ez zitzaien antzik ematen. Felix Alzelai haren oinetan goizen ikusitako borzegik, eguardin falangista batek zeuzken jantzita. Nik horik ikusi nitun.

Ordun gu mezarara, attek bialtzen nitun mezarara egunero –zazpi ta erditan mezea– eta Xabin Ezkurdia eta biok biltzen ginen meza ondoren. “Atzo ere tirok izan dituk ba...”, jungo gaituk, ez gaituk... aber zein diren ba ikustera. Ez jutea hobe zan, hak ikusteko, zergatik koadro txarra zan hura, erabatekoa.

Ba bai, bertan enterrau zituen horik danak. Eta Hernaniko mutil horren familie urte askotan etorri zan honera, kanposantura, santu guztin egunen, otoiitz pixkat egitera edo lora batzuk jarri edo...

Joxe Urreta

–Zubie moztu zuen aitzakin fusilatutakon arrastoa, han, kanposantun...

–Nola fusilatu zituen bai, eta gero nola juten ginen ikustera hiru zulok, nun zeren eta; zeatik han asientu bat dago, eta han eserita jartzen zituen nunbait. Atea dago hola, ez? Eskubitarra, Arizmendiko biden eta aten arten asientu bat dago, petril bat... Gero kendu zituen, e? zulok; masekin edo tapau egin zituen. Baino egon ziren han hiru-lau zulo. Bala tirok ziren hak, pertsona pasautako tirok.

Kasilde Arzelus

–Urte batzuk aurrera eginda, hemen fusilatu zituenen berri izan zendun...

–Hak fusilatu zituen ni etorri baino lehen Briviescatik.

Eta gero etorri ziren, Franco hil eta laister, emakuma bi, Oñatitik. Etorri ziren panaderira zeozer jakitera. Esan zidan batek: “Zu akordatzen al zera kanposatun hil zuenik eta...”. Baietz, aditzera, baino besterik ez. Nekiela bakarrik batek apaize eskau zola. “Ba nere atte zan”.

2.7. Bainuetxea

Herrira sartu, eta milizianoek hutsik utzitako Bainuetxea beren mende hartu zuten nazionalek, eta frentetik zetozenak garbitu eta txukuntzeko toki bihurtu zuten. Baziren bertan soldaduska egin zutenak ere; adibidez, gero Ormaiztegiara ezkonduko ziren bi lazkaotar: Eusebio Bastida eta Inazio Garmendia; barbero lana egiten zuten.

Herriko neskak berriz –tartean gabiriarren batzuk ere bai– zerbitzu sozial modukoa egitera joan behar izaten zuten hara; erropak garbitu eta plantxatzera, batez ere. Baina

lana ez zen nonbait horiekin agortzen, eta herriko zenbait etxetara izarak-eta partitzen zituzten, garbitu zituzten.

Bainuetxean bukatu zuten Tellerizaharrekoiei –Intxaustitarrei– errekiatutako koltxoi, izara eta gainerakoek.

Ormaiztegi Udal Artxiboko dokumentuetan, 1936-37 urteetan, faktura ugari ageri dira herriko denda, taberna eta abarrek luzatuak, erreketeei, falangistei eta militarrei emandako zerbitzuengatik (egurra eta ikatza, jan-edanak, tabakoa, apopilotza...). Udalak ordaindu zituen faktura horietan, Regimiento América nº 23 eta Regimiento España aipatzen dira, eta “Hospital Militar” deitzen zaio Bainuetxeoari.

Carmen Lasa

–Herrin zegona, Bainoetxea, batzuk Ospitala deitzen zioen.

–A! *Parque de Despiojamiento* zan Bainoetxea. Eta horrera etortzen ziren eta nunbait zorri asko, baino... jeneralak eta danak, e? mutilek bakarrik ez. Eta hor garbitzen ziren, erropak aldatu eta... Ni ez nintzen behin ere jun, baino herriko neskak taldeka juten ziren erropak garbitu eta gero plantxatu eta egitera.

Joxe Urreta


–Gerra garaian Bainoetxea nola zegoen...

–Zuen atte eta hor egon ziren. Bastida bestea, eta beste Lazkauko bat. Hiru ziren horik. Hor nik uste herituk ere ekartzen zituela, hamen gertu baldin baziren behinpehin.


Gero kuartela ere egon zan hor, guardiazibilen kuartela ere. Gu soldadukin ez ginen zeratzen... zeatik hor soldadu gutxi, ondo zerenak frenten behar zuen-eta.

Kasilde Arzelus

–Hor zeren... jendea, ba asko sartzen zuen, batzuk herituta-eta, hor jende asko egon zan. Eta erroparik ez zeuken danantzako lain. Eta hor, esango zizun Kontxak, nola erropea haren etxetik eraman zuen. Etxe guztiko erropak, bueno, izarak eta hori. Eta garbitzeko-eta, frailetan (Gabiriako Pasiotarren Komentuan). Baino ordun labadorarik ez zegoen; zeuken eak holako ontzi haundi bat jaboiaikin bueltaka bueltaka ibiltzen zana eta gero nola uide nahikoa zegoen bertan, aklaritzen zuen... Baino etxe guztitara pasatzen zituen iluntzan izarak; bakoitzentzako bina-hiruna ematen zituen; eta gure etxera ailegatzen zirenen: “Aquí uno más, porque éstos son de los otros”. Han egoten ginen gau guztin, zeatik egunez ez zegoen sekaten jartzerik, zorrie ikusten zan izaratan, nola! korritzen zon arten, garbitu eta gero... Eta sukalde gainen, garbitu eta jartzen ginutzen alanbre baten. Gau guztin egonda gare gu erropak sekaten; sue egin eta erropak sekaten.




Bi egun behar izan zituzten zubia mozteko. 1936ko iraila.



Egunez eta gaez aritu ziren zubia konpontzen. 1936-37.





Zutabe berriekin indartu zuten zubia, 1936-37.



Kutxa Fototeka



Mola jenerala Ormaiztegin, zubia konpondu eta geroko inaugurazioan.
1937-02-01.



Antonio Galdos, Ormaiztegi hilerrian fusilatua; bost hilabete lehenago ezkondu zen, Arantzazun, Maria Urbeloarekin.
1936-04-25.



Bainuetxean soldaduak artatzeko zentroa eduki zuten nazionalak.

Gainera argie ere txikie genduken, eta gure ama eskulanak egin beharrekoa, jostune zan; eta neri erakusten ari zan opoa egiten galtzerdin; ez gendun ondo ikusten eta, –mahai haundi bat genduken sukalden–, mahaien gainen silea jarri, argi gehiagokatik...

–Izara horik partizera zein jutun zan?

–Ez dakit. Herriok ere izan zitezkeen. Ni ez naiz akordatzen, zergatik horrek hartarainoko errabie ematen zigun... ba hartu, eta eramaten ginutzen eta kitto. Eta ez nizuke esango baten bat Ormaiztegikoa ote zan. Zeatio gero biltzen zituen erropak eta dirue soldaduntzako eta ordun gure etxera etorri ziren bi emakuma dirue eta erropea edo zeozer eramateko; eta gure amak diru asko ez, eta duro bat eman emen zien, eta gero txamarra haundi bat, nola tratun ibiltzen zan atte, txamarra haundi bat, ona. Parre egin emen zien! Besterik ez, eta parre! Gure amak esaten zon, “balekie zer dagon gure etxen”... Eta horregatik esaten dizut, hak ibili ziren esken. Automobilen ere norbait ibiliko zan, herrikoa, pentsatzen det nik... bestela nola jakingo zuen gu bestekoak ginela eta guri gehigo emateko-eta? Ez naiz akordatzen zein ibiltzen zanik; kamioneta zahar baten ibiltzen zirela bai.

2.8. Gerra beste toki batzuetan

Bilbo erori eta gero Bartzelona izan zen Errepublikaren aldekoen egoitza nagusietako bat. Ramos Filgueratarrek han biltzea lortu zuten, baina ez luzarorako... Hiri hark jasan zuen bonbardaketa batean galdu zuten aita. Horren ondoren, Pariserako bidea hartu zuten.

Madalena Ramos

–Fuimos a Barcelona y yo encontré ese empleo (en la oficina de las Brigadas Internacionales). Hacía seis meses que no sabíamos nada de papá. Sabíamos que habían cogido Bilbao... y por mediación de la Cruz Roja supimos dónde estaba papá, y él sabía dónde estábamos. Es decir, que cuando los de Franco ocuparon San Sebastián fueron todos a Bilbao, pero después ya cogieron Bilbao.

Entre tanto mamá cayó muy enferma; se hizo mucha mala sangre y cayó muy enferma. Creíamos que tenía un cáncer en el vientre, estaba bastante mal. Y un día, a eso de las doce de la noche, tocan el timbre. “¡Oí! ¿quién será?”. “No bajes” –mamá–, “¿Cómo no voy a bajar?” –yo no tenía miedo de nada–. Bajo... a mi gran sorpresa, ¡papá! Venía el pobre con un pan, creyendo que...

“¡Pa-pá!”. Nos abrazamos. “Mamá está muy enferma, mamá”. Subimos en el ascensor. “¡Mamá! ¡Papá ya está aquí, papá!”. Entonces ya se abrazaron, mi hermana Margarita... nos abrazamos todos. Yo creo que mamá a partir de ahí iba mejorando.

Como papá era muy buen ebanista, encontró en seguida trabajo. Ahí pues ya mamá se curó y todos trabajábamos. Mi hermana estudiaba mecanografía, como yo; decíamos, estamos todos trabajando, todos vivos... pero un día...

Nosotras comíamos donde trabajábamos: mamá –porque estuvo de cocinera en la Delegación–, mi hermana venía a comer, y yo. Pero papá comía en casa. Y recogimos una viejita que llamábamos Machaquito, la pobre estaba sola y la recogimos –que también falleció en el bombardeo–, y entonces le daba de comer al mediodía.

Y un día, el teléfono; mi prima: “–¿No sabes, Malen, que han bombardeado vuestro barrio? –¿Cómo? ¿qué? –Sí, la Universidad, la calle Cortes, han bombardeado todo eso”. Como era la una del mediodía, dije: “Papá estará en casa, todavía no habrá ido al trabajo”. Telefonée, y nada. El Capitán de la Delegación, le pedimos permiso si nos podía acompañar en coche a casa, porque había media hora de donde trabajábamos a nuestra casa. Y efectivamente, cogimos el coche y fuimos hasta la calle Cortes, y toda la calle, todo, estaba derrumbado. ¡Era grande la calle Cortes! La cosa es que pasó un camión cargado con trilita y en ese mismo instante pasó un avión que era la Legión Cóndor, y ahí las bombas cayeron en el camión de trilita y estalló toda la calle Cortes, toda. –Hace poco la he vuelto a ver, después de muchos años, y estaba todo reconstruido, como antes–. Cuando vimos todo, “¡Ay, papá! ¡Ay, papá!”. Nos acercamos y estaban sacando cuerpos, y esperamos a ver si sacaban a papá, y no lo sacaron. Ya llegaba la noche y tuvimos que ir a dormir a Sarriá, donde unas personas conocidas que nos acogieron, y al otro día a la mañana otra vez volvimos a la calle Cortes. Siempre sacaban cuerpos y entonces sacaron a papá y a la pobre viejita, Machaquito. Papá, por lo visto, bajaba las escaleras para ir a su trabajo, que estaba muy cerquita, y le pilló en las escaleras. Tuvo un golpe en la cabeza; estaba enterito, con un golpe en la cabeza.

Muchas noches había bombardeos y bajábamos –Queipo de Llano, que solía hablar... anunciaban los bombardeos–. Precisamente la víspera bajamos al refugio, al Metro, y estábamos los cuatro y, “papá, mamá, cuánto nos gusta Barcelona, ¿por qué no nos quedamos después de la guerra? Porque pronto va a terminar la guerra, supongo”. Entonces papá dijo: “¿Por qué no? Igual nos quedamos”. Subimos a casa y es cuando al otro día ocurrió eso.

Y así sacaron a papá y quisimos llevarlo a casa, pero no nos dejaron. Los llevaron al subterráneo del Hospital, donde había más de trescientos cadáveres. Y a papá le llevaron al fondo. Yo empecé a pasar –había cabezas de un lado, sangre por todo, cuerpos completamente destrozados–, pero no tuve coraje; mi hermana tampoco. Y mamá, que ha tenido mucho coraje toda la vida, ella pasó sobre todos los cuerpos ensangrentados para coger los papeles que papá ponía en la faja, las poquitas economías y sacarle la alianza. Ya pues volvió mamá toda ensangrentada, de todo lo que había. No nos dejaron llevar el cuerpo, los enterraron todos en una fosa común; ahí nos hicieron el certificado de defunción, que lo tengo ahí.

–¿Y qué hicisteis en Barcelona después de morir vuestro padre?

–Ya mamá no quería quedarse en Barcelona, porque cada vez que bombardeaban se desmayaba, y entonces decidimos volver a París, pero era muy difícil en plena guerra. Escribimos al socio que tuvo papá en París, que tenía una hija, una bella

persona, muy creyente, muy católica, les escribimos a ver si nos podían reclamar, porque para salir hacía falta un certificado de *hébergement* –alojamiento se dice–; que nos podían recibir y albergar en su casa. Nos mandaron ese certificado y así podíamos hacer un pasaporte. La cosa es que yo tuve que hacer un pasaporte español, porque a pesar de haber nacido en París, yo tenía que haber escogido, a los veintidós años, mi nacionalidad, o francesa o española, pero como no lo hice, ni pensábamos en esas cosas entonces, yo era española, tenía veintidós años. Ya volví a París *à titre de réfugié*, pero española. Nos pusieron muchas dificultades para trabajar: yo no podía ser mecanógrafa, no podía ser esto... teníamos que ser *bonne à tout faire*, de servicio, como criadas.

A pesar de todo lo malo, tuvimos un poquito de suerte. Una familia pedía una doncella y una cocinera. Y en esa casa había, la madre y el padre, y la hija casada con dos niños, y para trabajar necesitábamos un contrato de un año; así que la joven me hizo un contrato de un año y la abuela hizo a mi hermana otro contrato de un año, pero las dos en la misma casa. Yo me ocupé de los niños, que nos adoraron; queríamos a los niños, desde luego... cuando marchamos nos hicieron un certificado de maravilla. Eran personas muy buenas, muy creyentes. M. Chabagnat escribió un libro sobre el Más Allá, que tengo aquí, que nos dedicaron.

Estuvimos un año. Yo para los niños y servía la mesa, de doncella, con un delantalito, mis puños blancos, la *coiffe* blanca... La cosa es que tuve... cuando iba al comedor y decir: “Madame est servie”, ¡ay! Sentí, ¿cómo decir? No es que me supo malo, pero... me emocionó. “La señora está servida”, en fin. Me ocupé mucho de los niños. La niña, que tenía tres años, y el niño, cinco años, *Jacqueline et Gérard*... les quisimos a esos niños...

En verano me fui a la Haute Savoie, de vacaciones con los niños y Mme. Chabagnat. Era muy bonito, porque los domingos íbamos a Megève, Chamonix y todo eso, unos dos kilómetros. Ahí no tuve novio, pero había un cocinero que se enamoró de mí, allí, en Comblux, estaba de jefe cocinero en un hotel. Se enamoró.

Yo no sabía que Juan Mari estaba enamorado de mí. Y yo también de él, pero no nos dijimos. Como nos separamos *avant la guerre*! De ahí tengo mucho que contar, pero eso le interesa más a Almodóvar.

2.9. Hildakoak

Francoren bandoan hildakoek, herri guztietan bezala, izan zuten plaka bat elizatarian; Errepublikaren alde hildakoek ez dute sekula halakorik izan. Dena den, hildakoen kontu honek agerian uzten du gerra garaian gertatu ohi zen gauza bat: bando batetik besterako aldaketak, alegia; aldaketa derrigortuak, ezinbestean.

Carmen Lasa

–Gerran hildako ormaiztegiarrik?

–Batzuk badire. Bat, *Chiquitín* esaten zien, Juan Cruz Irizar. Hamar senide ziren, bost anai eta bost ahizpa, Irizarrenekoak. Mueblek egiten zituen, oso onak. Eta horkoa bat ba galduta, ez dakie nun eta ezer ere.

–Hau, Irizar, Francokin?

–Bai.

Joxe Ramon Lasa

–Nazionalakin hildakok: Juan Cruz Irizar, *Chiquitín*; familie Iruñan zegoen ordurako eta handik jun zan gerrara. Pedro Irazusta, Arizmendikoa¹². Beste bat Jose Luis Mendizabal, Jazinton eta anaie; besteekin jun zan, baino nazionaletara pasa behar izan zon, eta hakin hil zan, Teruelen edo. Beste bandon hildakoa, Jose Mari Albisu, Ugartekoa –Angelita eta Katalinan anaie–, Eibarko frenten; Amuategi batailoikoa zan. Hak danak Juan Marik eraman zitun: Alejandro Guerra, Nikolas Gurrutxaga –Xexteronekoa–...

–Beasainen sartu zirenen fusilamendu asko egin zituen frankistek; hango fusilatuk ezagutzen zenitun, batzuk behintzat.

–Beñaran zan bat, hori guardiazibiletako tenientea edo zan. Zaldi zuri baten gainen etortzen zan honera, askotan, askotan. Eta Beasainen fusilatu zituenak bat Andres (Izagirre) karnizeroa, Bitoriano Oñatibia –hori Banco San Sebastiango kobradorea zan–, Uriben atte –Uriben-Etxeberria, horin atte– eta... gehigo ere hil zituen. Horik nik ezagutzen nitun pertsonak ziren. Bitoriano Oñatibia hori etxera etortzen zan atena, letrak kobratzera; hortik ezagutzen gendun asko. Oso jende ona!! Oso jende ona!! Eta horik protestau zuen, ikusten danez, sartu ziren garaien. Orain Banco Guipuzcoano dagon exkina hortan etxe bat zegoen, eta Iraola pastelerie eta hor zeren; su eman eta erre egin zuen. Hura ikusi zuenen alborotau ziren gizon hok, “baino zertan ari zerate?”. Jende zuzena nola zan, hura ez zuen onartzen. Esan zuen, “baino, zer da hau?”. Protestau zuelako, “etorri gurekin!”, kanposantura eraman eta jo eta seko.

12. Pedro Irazusta Murua tuberkulosiak jota hil zen, Talavera de la Reinan (Iñaki Zubizarreta Irazustaren ahozko testigantza, 2009ko urrian).

–Bestela ere hildako bat izan emen zan hemen.

–Bai, hamen, Españolako hortan. Hor hamengo mutil batek hil zon Segurako mutil bat. Han tokatu bik, bik jungo ziren defenditzera, bakoitzek bere burue defenditzera, eta hamengok hil zon Segurakoa; honera ekarri zuen gorputz hori.

–Zein zan Ormaiztegiko mutil hori?

–Oso mutil jatorra, Sosoagakoa, Juan Bautistan anaie (Agirrebengoa).

Lierniko elizan, atzen, zuloa egin zuen, eta handik disparatzen emen zuen Españolara. Egongo ziren holaxe, bakarka jundako batzuk, ze frenterik hor hola ez zan egon.

2.10. Errepresaliak

Kontakizunetan behin baino gehiagotan azaltzen zaigun Serafin Esnaolaren familia izan zen zigortuetako bat; aita, Roberto Esnaola, herriko medikua zen; ama, Damiana Bidaurreta, Alegiko maistra. Abertzaleak zirela-eta, biei kendu zizkieten lanpostuak, eta herritik alendu: aita Santandergo Castañedara eta ama Palenciako Bustillo del Páramora.

Iruñean ikasketak egin eta magisteritza titulua zeukaten herriko hiru gaztek –Joxeba Ezkurdiak, Juan Mari Intxaustik eta Alejandro Irizarrek– ez zuten sekula maisu posturik izan erregimen berrian. Kasilde Arzelusek *depurazioa* pasatu behar izan zuen, lehendik zeukan telefonista postua berreskuratzeko.

Bixente Arzelusi Soraluzen eta Ormaiztegin zeuzkan etxebizitzak konfiskatu egin zizkieten; zergak berak ordaindu behar zituen, baina errentetako dirua erregimen berrikoek jasotzen zuten. Aurrekoaz gain, ondasunak konfiskatu zieten artean, Ormaiztegin, Franzisko Goia, Fernando Larrea eta Pedro Laskibar ageri dira; Jazinto Ezkurdiari kamioia eta autoa konfiskatu zizkieten; gainera, isuna ere jarri zioten: 750 pezeta, 1941ean¹³.

Izan ere, gerra ez zen fronteetan bakarrik jokutzen. Soka luzea zekarren berekin: salaketak, debekuak, zigor batailoiak, kartzela, erbestealdia...

Kasilde Arzelus

–Gero, Ormaiztegiko zubie bota zuenen, ia ordun etxera etorri beharko nola edo, nola etorriko nintzen... amak konsegitu zon jutea (Briviescara). Harutza juteko ere izan zon! Jun zan zeran bila, pasaportea –papel bat ematen zuen, hemendik Villafrancara juteko ere ez ziguen uzten, Ayuntamiento atera behar gendun–; ateratzera jun zan papela eta esan zien oraindio gaztea zala eta... behintzet ez zien eman gure amari. Eta emen zetorren Ayuntamiento behera, eta Guillermo

13. Barruso (2005): 519.

(Lasa). Honek esan emen zion: “Zer pasatzen zazu, Maria?”. Ba hau eta hau. “Ez iezu kasorik egin; etorri zaitetz bihar goizeko seiatarako honera eta jungo zera”. Eta halaxe, ama jun zan goizeko seiatarako Ayuntamentura eta soldaduk emen zihetzen, hemen janik ez eta Vitorira jan bila, Gasteiza. Eta harutzaino eraman emen zuen, estazioraino, soldadu horik. Eta gero han trenea hartu eta Vitoritik etorri zan nere bila.

Eta Ormaiztegin jarri zuen Bainuetxen Ospitala, eta morok eta danak zeren, e? Bueno, beltz beltz horik ez. Eta Bergaran egin zuen parapeto bat edo, bestek ez pasatzeko; esaten zien *Cinturón de Hierro*. “Hemen? Hemendik ez dituk pasako. Hemen nola pasako dire ba?”. Eta ordun abioiak ekarri zituen eta abioiak in segitun puskau zuen. Eta handik jun ziren ia Bilboraino kasi segidan, bastante tardau zuen baino bastante segidan. Eta herri bakoitze hartzen zuenen, kanpaiak, elizako kanpaiak, eta gainera desfile bat edo manifestazio bat egiten zuen kalen danak, ean aldeko danak irtetzen ziren.

Hala, Bilbora jun ziren eta nere atte, Joxe Migel ere han zan –nere gizona– eta Alejandro –Joxe Migelen anaie–. Nere gizona eta bere anaie Bilbon, entregatzeko asmon zerela, etxe baten sartu emen ziren. Eta etxe hortan irten gabe ezin egon eta hirugarren egunen ezer gabe emen zeren eta “irten behar diagu ba norbaitek”. Eta hala, Joxe Migel irten emen zan ikustera herrin zer pasatzen zan edo ze ambiente zegon. Eta bertan, aten ondoren, ikusi do Antianekoa, Beorretakoa. Eta ziren Joxe Migel eta bera oso lagunak, eta “motel, motel! Kendu zak erropa hori!”. Eta berak kendu erropea eta soldaduskako erropea –bera soldadu zebilen– eman zion Joxe Migeli. “Orain jun hadi etxera, baino erropa horrekin, e?”. Eta beste aldekon uniformekin etorri zan Ormaiztegiara.

Alejandro, nere gizonan anaie, zan caballerikoa. Eta izango zan sarjento baino gehigo, bastante mando zeukena. Hamabost urte egin zitun kartzelan harek.

–Gudarie zan.

–Bai, gudarie zan. Harek bere burue hain gaizki ikusi zonen, tiro bat eman zion bere bururi, baino ez zan hil, e? Begie galdu zion; eta ospitalera eraman zuen eta handik Puerto de Santa Mariara detenituta; han hamar urteko kartzela eman zion, baino bost urte egin zonen –egiten zion bat bi bezela lana egiten zionari– eta harek egiten zion eta hamar urtetik... bost urtekin ia irten zan kalera.

–Zuen atte eta anaie, nola itzuli ziren?

–Ari zan denborea pasatzen eta attek etorri nahi zion. Eta Eibarko *Pacomio* –gaitzizena, horkok danak gaitzizenakin zeren, Eibar eta Elgoibarkok-eta–, eta Pacomio honek galdetu zion gure osabari, amaren anaiei, nun zan atte edo zeozer. Esplikatu zion dana nola genbiltzen eta Pacomiok aditu. “¿De quién estás hablando, de Vicente? Este no puede estar allí, ¿eh? Ya le traeré yo”. Eta hala, abixau zion, lehenengo espedienten sartzeko. Automobile izaten zan... animalik bezelaxe. Eta medikue, ez dakit ba, Irungoa edo, eta hari esan zion gure atte ez txertatzeko. Eta pasa zanen, hizketan egin emen zuen, eta pasa. Eta gu genden irterako aten, taxi baten, ama eta ni; sartu da atte, Pacomio, eta Eibarra jun gin; eta han egin zion denbora asko.

Eta Eibar zegon ordun, han ere bonbardeo haundik egin zituen, bonbardeok edo sue izan zan behintzat, erre egin zan Eibar asko, Irun bezelaxe, Eibar ere erre egin zan. Eta Ayuntamentuko papelak eta danak erre egin ziren, Ayuntamentun izango zan aberirik haundina. Eta ordun Pacomiok, nola papelik ez zegon, sartu emen zon hangoa balitz bezela. Eta han, Eibarren egon behar. Baino ez zeuken gogorik, etxera ere etorri nahi zon, eta etortzeko Joxe Kapadorea –etortzen zan astero gure etxera, txerrik kapatzera– eta harek eta bestea Elkoro –argizalea, Araxes edo ez dakit zer zeuken–, hura, attek meseden bat eginda edo zeozer, ba horik bik egin ziren responsable gure attenak guardiazibiletan, Beasainen. Eta ez zon presentatzerik eta ezer izan. Harrezkero ez zan txerrikin eta hasi, edadea ere bai-eta...

–Zenbat urte?

–Hirurogei pasata zeuzken. Zeatio David soldaduskarako zegon, baino hirurogeitik pasata egon ezker, seme bakarrak jun behar zon. Eta hala Davidek esan zon “ni jungo naiz soldaduskara” eta hala Julen etorri zan etxera.

–Eta Pilareren historie.

–Pilare, nazionalista zan hura. Hemen eskau zuen nazionalistan... Bittori Astarbe, Errotakoa, Franco zon gizona apeliduz, Bittori hori presidente edo sekretaria zan Batzokikoa. Ordurako Batzokie ia Muruanen genduken. Jun ziren Batzokira eta ez zuen ikusi ezeren apunterik, eta ordun esan zien apuntatzeko zeintzuk ziren nazionalistak, Bittori Astarbe honeri. Ipini zitun batzuk, danak ez, esan zidan: Hara! inor, pixkat deklarauta zegona, Pilare bezela, Mercedes, Bittori bera... horik danak apuntatu zitula, baino ni ez ninula apuntau, eta nik gogor egiteko Batzokin ez nengola.

Eta gero, badakizu, ni telefonon nengon, eta telefonotik despatxauta, ez zegon lehengo konturik. Eta etxen nengon. Eta alkaten andrek, Manoli Lasak, abixau zidan: “Oso gaizki dabiltz, zergatik soldadun eskun dago telefonoa, ez baserrin izenik entenditzen due, ez telegramarik, eta han dago mordoa, eta jungo bazine...” esan zidan. “Bai, ni jungo naiz”. Eta hala jun nintzen. Eta zegon teniente Moriones eta komandante... bat Lara eta bestea Moriones.

Hortarako ni han nengon telegrama horik apartatzen, gero mutilek bialtzeko etxetara, eta sartu zan osaba (Antonio Izuzkiza). “–Zuk zer egiten dezu hemen? –Ba, telegrama horitxek... –Ez al zegon beste inor hau egingo zonik?”. Eta hola, jenio txarren nola esan zidan, ni ixilik. Hura barrun sartu zanen tenientek esan zidan: “–¿Qué te ha dicho? ¿Quién es ese señor? –Pues éste, ahora le han hecho alcalde, es mi tío”. Dana kontau nion, nere atte eta nola han zeren, ahizpa ere bai, eta ni gaixokatik kanpora junda nengola eta nola etorri nintzen, eta esan zidan: “Quédate tranquila aquí, que vas a seguir aquí. No hagas caso”. Hala, han segí non.

Halako baten nun etortzen zaten bi falangista eta bi requete beste gizonezko batekin Ayuntamentura. Sartu nituen sekretarin, sekretarioa ere han zegon, eta *la depuración me hicieron. Había que hacer la depuración*. Eta galdera batzuk egin zien –orain ez naiz gogoratzen, zergatik hain nerbiosa nengon ordun– baino hiru-lau aldiz esan zien Batzokin nengola eta nik ezetz. Ahizpa bai eta atte ere bai, baino

ni ezetz. Ezetzen, ezetzen... nik uste det jo banituen ere ordun ezetz esango nola, e? Gogor jarri nintzen. Eta halako baten, hainbestearainoko galderak eta egin zidan, esan nion: "Hor dago sekretarioa eta horren alaba da nere lagune eta nun ibiltzen naizen jaietan eta beste gainerakotan, horrek daki". Eta sekretariori galdetu zion: "–¿Es verdad? –Sí". Nahikoa egin zon zergatik hura ere halamuzkoa zan. *Que sí.* Eta orduntxe libratu nintzen ni han egoteko.

–Lehengon esaten zenidan, gogorrena, despreziok.

–Mine emateko asko, eta familikok asko. Beti, hak ez direla honezkero etorriko-eta... hamaika holako aditu gendun.

–Pilareren senargaiarena gelditu zaigu kontatzeko.

–Pilareren nobioa, bai. Justo Andueza, Legazpikoa. Ez det uste gerrako garaien ikusi ere egin zirenik; zeatik hura soldadu gerrara jun zan eta gurea baserrin geratu zan, Pilare; jakin zon herituta ospitalen zegola, eta juteko asmotan zegon. Burun zeuken balea. Ez det uste alkar ikusi zirenik.

–Lehen Alejandro (Irizar) historie kontatu dezu, baino Gregorio (Irizar) ere Batallón de Trabajadoresen egon zan.

–Kontxak esan al dizu? Ze, Xanti (Intxausti), bik alkarrekin egon ziren horik. Ni ez naiz gogoratzen gure Gregorio nun egon zan eta nola egon zan eta... Baino dakit Xantikin bik zebiltzela, zeatio gero Alejandro kartzelan egon zanen Donostin, Xanti eta ama eta danak kartzelan egon ziren. Asten egun baten libre genduken bixita, baino beste egun baten juteko solizitau eta pagau eta dana egin behar zan. Tortila bat eramaten bazitzaion, dana zula-zula egiten zuen kutxilokin; melokotoi potek, danak irikita...

–Hori Ondarretako kartzelan?

–Bai.

–Xanti eta Gregorio Coruñan ibili ziren, La Bacollako aeropuertoa egiten.

–A, bai, eta gure Julen ere bai. Julen pasa zanen Frantzitik, hiru egunen bagoien eduki zituen, atera gabe, hura bete arte. Eta lehenengo eraman zuen Bilboko aeropuertoa egitera, eta handik eraman zuen Extremadurara, kaminok egitera. Ailegatu zan oso gaizki. Lagun batek eskribitu zigun bera ez zala gauza ibiltzeko eta nola zegon, eta gu ezin jun harutza, eta nere apuron jun nintzen don Jeronimona. Don Jeronimok segitun telefonotik hots egin zion herri hartako apaizei. Eta hurrengo egunen apaiz horrek platano bat behintzat –besterik ez dakit zer– eraman emen zion eta ospitalera erretirau. Hura ere bastante azkar uste det irten zala, zeatik, esango dizut, Txiki han zegon, bik zeren; eta gure attek partidun bitartez atera zon Julen handik, lanen bat edo bilau zien. Eta Txikik ez zon ahazten; sekula ere ez zon gogoko izan Txikik, bera atera ez zolako gure attek. Herrikok baino, hura oso sozialistan aldekoa zan eta gurea berriz partiduk atera zon.

–Julen gudari ibili zan?

–Ez, ez zeuken edaderik harek. Nik hogeitabat, harek lau gutxigo...

–Eta Joxe Migel, zure gizona, gudari ibili zan?

–Bai! Mendin ere bai, zeatik esaten zon, ze usaie erre zuenen... Gernika. Hurrengo egunen ze usai zegon haragi errena.

Carmen Lasa

–Karteronekok itzuli zirenekoa...

–A! Ba horik, hola, abertzaletakok ere ez det uste zirenik, gehiago ziren ezkertiar xamarrek, euskaldunek baino ezkertiar xamarrek. Eta ba etxea azkenen itxita gertatu zan, danak alde eginda. Ez dakit inor kartzelan egon zan horitakorik, edo bestela ihes egin zuen. Eta gero ba halakon baten, ba hilabetera edo bi hilabetera edo, ba nik zera ikusi non, lixibea zabaldua ean soro ertzen, erreka alden. Poz bat hartu non lixiba hura zabaldua ikusita! Halakorik ez zan ezer ikusten herrin, danak bildurrez. Halako gauza batzukin piztu egiten ginen, ze hainbeste gauza triste genduzken...

Kontxa Intxausti

–Zuk beti eduki dezu susmoa herriko jendekatik?

–Bai, danerako jendea gare-eta...

Gero etorri ziren atte-amak Santandertik. Eta gero, klaro, guri jarri ziguen *julio-agosto-septiembre*, oporretan pabelloia libre zegon. Eskolea zan eta gero eskolea hasi egin behar zuen eta esan ziguen: “La frontera de Barcelona o la frontera de Irun”. Ordun ia gure etxera, sarrera baitzegon, hiru ahizpak Irunera etorri ginen. Eta hor irten ziren responsable batzuk, izeba eta Xapa, zapateroa, hori ere jun zan; sobrare berari larritasun pixka bat sartuerazi zien gorrik hemen egon zirenen eta Juan Marik lagundu zion; eta gero berak hori estimatu eta jun zan responsable bezela egitera Irunera, tia Mateakin, Joxe Zapateroa. Etorri ginen etxera eta gero gerokok.

–Horik izan ziren uztaile, abuztue eta iraile 37kok...

–Bai, treintaisietekok.

–Kartzelako kontuk aipatu behar ditugu.

–Batzuk izan ziren. Bat, eraman zituen tía Matea, Pilar Mercero eta nere ama Tolosako kartzelara. Han zerela, mutil ruso batzuk. “Que ¿cómo estaban ahí? Que venían con txitxibitas –lentejak edo–, que les cogieron en el mar”.

Gero, *en la cárcel de San Cristóbal*, maiatzen¹⁴, ihes egin zuen ez dakit zenbat presok. Pilarrek nobioa Estankokoa zeuken, Bernardo (Azpiazu), gero gizona izan zona, eta haren bidez libratu zan. Ama eta izeba Matea Donostiko Ondarretara eraman zituen; maiatzetik gabonak bitarten, bixitarik gabe eta janik sartu gabe egon behar izan gendun.

14. Iruñea, 1938ko maiatzaren 22a.

Izeba Mateak postal baterako eskubidea zeuken. Amak ere bai, baino ez zekin idazten, gurutze bat egiten zon eta kitto. Kuestioa da, eak egiten zuen postal bat asten –zentsuratuta–, eta guk egiten gendun beste postal bat. Oraindik ere gerrak segitzen zon, eta *la tía Brígida*. *La tía Brígida* “ba oso gaizki dago bolara hontan, ataken bat eman dion edo, oso pattal zegola”. Eta hurrengon ba ia sendatu ote zan eta... gerran gorabeherak hor ematen ginen beai, galdu edo irabazi, frentetan zer egiten zuen. Gero ia gabonetan libre utzi zituen bixitak eta ia juten ginen.

Izeba Mateak egin zitun hiru urte eta egun batzuk kartzelan; alargune, eta seme bat zeuken (Anjel Imaz), eta hura gukin egoten zan.

–Ez ziren hor bukatu kartzela kontuk.

–Ez, ez, ez. Gero anai gazteena, Xanti... Beste bik, zaharrenak, Santanderretik ihes egiteko modue izan zuen, Inaziok eta Juan Marik, baino honek ez. Eta hartu zuen baino ez zeuken hola, kartzelara eramateko... Kuestioa da jendea ere behar zuen, zubik eta kaminok-eta egiteko ordun; *Batallón de Trabajadores*en sartu zuen; eta La Bacollako aeroportua, esaten zon: “Guk egin gendun hori”.

Eta zeren Panaderiko Gregorio eta Gabiriko baserri bateko mutile, hiruek ezagunek eta oso lagun egin ziren. Bueno, hasi ginen bialtzen jana, egurrezko kajatan: Gabirikok babarrunak ekarriko zituen, Panaderikok nolabaiteko ogie egiten zuen eta guk arrautza egosik-eta... enfin, bialtzen ginen kaja bat. Utzi egin behar izan gendun; egiten zuen iriki, janak hartu eta gero han sartu edozer: aza zaharrak eta eta egur pusketak-eta sartu, josi eta hura entregatu.

Gero Julian Zabalak –hori zegon ezkontuta Panaderiko Mercedesekin, Gregorion arrebakin– txapazko zera bat egin zon, kaja bat; giltza bat biali ginen hari korreoz eta bestea guk; han sartu gauzak, baino han ere tapea altxatu egiten emen zuen. Holaxe egon ziren denboran.

Gero eraman zituen Andaluzi aldera. Eta egon ziren *en no-sé-qué de Filomena Díaz*. Eta esaten zigun kartan, “badare inpreso batzuk eta horik bete itzezue, eta bi firma bilatu eta Ayuntamiento eraman”... Harek nahi zon nunbait ejerzitara pasa eta ordun ematen dizue egun batzuk etxera juteko-edo. Eta guk egin gendun gestio hori, sekretario zahar harek leitu eta tris-tras, *a la papelera*. Eta hortan egin zitun sei urte etxera etorri gabe, papal hori ez zeukelako.

Gero ia libratu zuen, etorri zan, lanen hasita zegon, eta ordun gertau zan... Ba ordurako beste anaie ere, zaharrena ez, bigarrena, harrapatu zuen ez dakit ze lekutan, Donostira ekarri, juizioa egin zien, defenditu zan eta eman zien *libertad con destierro*. Ordun Valentzin egon zan, kunplitu arte. Gero Valentzitik etorri, jendea detenitzen hasi ziren eta ihes egin zon Frantzira.

–Danok bildu zinetenerako, noiz ote zan?

–Danok ez ginen bildu azkenen, zeatio Frantzian zeren anai zaharrenak, hak ez ziren juntatu gukin. Juan Mari halako baten etorri zan, Inazio ez; baino gero Juan Mari ezkondu zan, bestea ere bai Igarakokin, Frantzian; Frantzian segitzen zuen haik. O sea, ez ginen danok juntau. Ez ginen inor hil baino... haik Frantzian segi zuen eta guk Ormaiztegin.

Joxe Urreta

–Zuen atte kartzelan Lamiakon egon zanen, zu ere jun zinen bixitan.

–Amakin jun nintzen, bai, bixitatzera. Hango konturik ez naiz ni asko gogoratzen, e? Badakit jun ginela trenen, Zumarragatik izaten zan trena; Maltzagan transbordoan egin, Donostitik zetorrena hura hartu... Baina handik laister librau zuen eta etxen lanik gabe zegoen; etxen familie eta lana bilau behar, eta Iberdueroko kolumnak pintau eta hola ibili zan; eta gero Ormaiztegiko zubie pintatzen ere bai. Eta gero Diputaziok, nola enpleatuk hangok ziren absorbitu egin zituen, baina ez zegoen mikeleterik eta, kaminero. Ezkioko kaminon ibili zan lanen eta gero eman zien Gabiriko trama, Ormaiztegitik Gabirira, eta hor ibili zan. Eta gero ia arbitriotarako berriz ere hots egin zien eta presentatu zan eta ordun Salinasen egon zan, Salinas de Leniz, han ere arbitriotan. Gero handik Bergarara etorri zan eta Bergaratik –ez dakit zenbat denbora egin zon– gero eman zien Etxegaraten eta handik jubilau zan, zeatik ia gero arbitriok ere kendu zituen eta... Hirurogeita hamahiru urtekin hil zan.

Carmen Lasa

–Lehen esan dezu bildurrez bizi zinetela, eta zuen etxera ere sartu ziren gainera, registratzera.

–Baaai! Etorri ziren polizik eta ohiko koltxoiai eta danai buelta ematen zien; danak astintzen zituen. Eta ordun attek zeren rebista eta liburu danak –ba rebistak izango ziren Arantzazukoa eta...– larri atte, leihotik behera botatzen, liburu danak, harrapatzen zitun danak. Eta polizik ba ohiko koltxoiak eta danak jirutzen.

–Hori zeinekatik egin ote zuen?

–Jakin egingo zuen nazionalistak ginela edo; hori jakingo zuen. Herritan jakinda egongo ziren; horregatik izango zan gure etxera jutea.

–Bilbaura jun zinen hartakoa, Larrinagara.

–Bai, ni Bilbaura sarri juten nintzen. Kobrezko haria Bilbautik etortzen zitzaigun, motorrak egiteko; rodamentuk ere bai, beti SKF. Ni Bilbaura asko juten nintzen eta herrin bazekien hori. Trenen juten nintzen, Zumarragan trena hartuta, Vascotako trena, Maltzagara; eta gero Maltzagan ezartzen zien Donostitik zetorren trenari bagoia.

Eta hemen bi neska zeren senargaie kartzelan zeukenak. Bat Pilare Arzelus, gero hil egin zan, gazterik; senargaie zan Justo Andueza legazpiarra. Eta beste bat Eulogia Otegi, eta Modesto Campos zan haren senargaie. Eta kartzelan zeren, beste asko bezela. Eta nerekin jungo zirela ba Bilbaura. Eta behin, ez dakit ba nik, Eulogjakin jungo nintzen? Larrinagako kartzelara. Gogoratzen det aldapa bat zegola Larrinagako kartzelara juteko Bilbaun. Eta egun hortan bagihozten eta handik behera, aldapan behera, emakuma bat, baserrikoa izan behar zon, zeatik buruko painuelokin eta hola eta eskun saskitxo bat, eta negarrez zetorren. Gu aldapan gora eta bera aldapan behera; negarrez zetorren. Beregana jun nintzen eta galdetu egin nion: zer dezu? Eta esan zidan: “Ba semea dauket kartzelan eta harena etorri

naiz eta goizetan jarrita egoten da aten gainen fusilatu dituenen orrie, izenakin. Eta gaur goizen etorri naiz, eta nere semen izena han dago, bart fusilatuta”. Etxera zihon negarrez emakuma hura.

–Tailarren mobilizatuk izan zenituen, soldaduskara jun orde z baten batzuk egon ziren hor lanen.

–A! Ahal zuen guztik. Ahal zuen guztik egiten zuen hori, tailarren baten sartzea, frentera ez juteagatik, horixe!

Joxe Ramon Lasa

–Zuen tailarren, hasieran langilerik gabe gelditu emen zineten, danak alde eginda.

–Danak. Gelditu zan German Campos bakarrik. Zeintzuk ziren? Joxe Antonio Antia, Santiago Intxausti...

–Joxe Maritxalar aipatu zendun.

–Joxe Maritxalar, ia ordurako Arrasatera junda egongo ziren horik. Hori zan, Maritxalar, *cabo de Miqueletes* Caja de Ahorrosen, buru egiten zon, eta horren semea Joxe. Urte asko egin zitun gure tailarren. Hori, gerran, nazionalak harrapatuko zuen eta “Viva la República” hots egin, eta horregatik fusilatu emen zuen.

Tailarren, soldaduskan truke egon ziren Juan Arrondo, Gabirikoa, eta beste bat zan katalan bat, Agustin... Hura iheska etorri zan honera. Eta gero, Ataungo beste gazte bat ere bai.

Eta gero, Bilbo erori zanen hasi ziren ia jendea lanera etortzen, frenten eta gorrikin ibilitako jendea. Eta ordun sartu ziren hemen Mondragoko horik eta Beasaingok. Beasaingok ziren lau: Alfonso Olabe, Guillermo Abalia, José Lozares eta José Miralles. Hori sozialistea zan, baino instruitue zan oso, eta jakintsue. Hamendik alde egin zon Frantzira eta neri pena eman zidan, zergatik oso asko zekin. Eta gero beste Mondragoko bat, Valentín Zabarte, Agustín Heriz eta Esteban... *Bapez*. Hori abertzalea zan. Eta gero beste bat... Etxeberria! Zumarragako bat ere bai.

Hok danak ziren frentetik etorritakok, danak, danak. Arrasatekok Muruanen egon ziren eta katalana Ezkurdianen. Baita ere Eibarko beste bat, Tomás Garate *Perder*. Eta hori egun baten, ama gaixo zeukela eta, gure attek eta hartu Gregorio Tellerian kotxekin eta eraman zuen Eibarrera. Eta Eibarren zegon alkate Ignacio Anitua, gure ezagun haundie, atteri gauzak erosten ziona. Eta enteratu eta esan zien berriz juten bazan, kartzelara sartuko zuela. Hori egon zan etxera jun gabe urte askotan, laubost-sei... Paulo karnizerok (Apaolaza) tabernea zeuken, hor egoten zan appilo.

–Gerra ondorengo represaliarik?

–Bai, multak. Gure atteri bost mila peseta kendu zien, nazionalistea zalako. Panaderikok bastante persegitu zituen.



Esnaola-Bidaurreta familia Ormaiztegiko Muxika etxean; eskuinean zutik, Serafin. c. 1927.



Kasilde Arzelus eta Joxe Migel Irizar, honen lagun mina zen Jose Azarola pianistarekin. c. 1944.



Bixente Arzelus Iparraldean ibili zen garaian. c. 1938.



Bittori Astarbe, Pilare Arzelus, Maria OiARBide, Eulogia Otegi eta Maritxu OlaiZola. c. 1930.




Xanti Intxausti eta Gregorio Irizar Zigor Batailoian, La Bacollan (A Coruña); erdian Felix OiARBide, Gabiriako Bidaurreta baserrikoa. 1940-10-06. Xanti Intxaustik etxekoei idatzia.




Julen Arzelus Caracasen; han bizi izan zen urte luzez, taxilari gisa lanean. c. 1950.



Ezkerretik hasita, Julita Lasa, M. Luisa Intxausti, Pilar Mercero eta Katalina Intxausti; aurrean, Kontxa Intxausti. 1938-11-15.



Argazkiaren eskaintza Ondarretan preso zeuden Juana Peña eta Matea Intxaustiri.



Burgosko Presondegi Nagusia; El Dueson heriotz zigorrera kondenatu eta gero Burgosera eramandako gudalburu eta ofizial arabar eta gipuzkoarrek ageri dira bertan; hauen artean Inazio Maiora, Zumarragakoa, M. Luisa Intxaustiren senarra. CNTko Durruti batailoiko kapitain izan zen (behetik hasita 3. lerroan, eskuinetik hirugarrena). 1942ko urria.

PUBLOS DE SUSCRIPCION

Se suscriben en la Administracion del Boletín Oficial, en la Intervencion de Finanzas provinciales. Los expedientes de fuera de la Capital se pondrán bajo el número de expediente por libro que se les dé. El pago de la suscripción y demás por año...

PRECIOS DE SUSCRIPCION

Table with 2 columns: Category and Price. Includes 'Por un año', 'Por seis meses', 'Por tres meses', 'Por un trimestre', 'Por un mes', 'Por un día'.

Boletín Oficial de Guipúzcoa

SE PUBLICA LOS LUNES, MIÉRCOLES Y VIERNES

Artículo 1.º. Las leyes sancionadas en el Parlamento. Las Resoluciones y Decretos de los Ministros de la Gobernación, de los Ministros de los departamentos de la Presidencia, de la Justicia, de la Instrucción Pública, de la Guerra, de la Marina, de la Fomento, de la Agricultura, de la Industria, de la Sanidad, de la Hacienda, de la Previsión Social, de la Sanidad, de la Instrucción Pública, de la Guerra, de la Marina, de la Fomento, de la Agricultura, de la Industria, de la Sanidad, de la Hacienda, de la Previsión Social...

Artículo 2.º. Las leyes sancionadas en el Parlamento. Las Resoluciones y Decretos de los Ministros de la Gobernación, de los Ministros de los departamentos de la Presidencia, de la Justicia, de la Instrucción Pública, de la Guerra, de la Marina, de la Fomento, de la Agricultura, de la Industria, de la Sanidad, de la Hacienda, de la Previsión Social...

Gobierno de la Nación
Ministerio de Educación Nacional

Ilmo. Sr. Vistos los expedientes de Depuración instruidos por la Comisión Depuradora D) de la Provincia de Guipúzcoa, con arreglo a lo dispuesto en el Decreto número 66 de 8 de Noviembre de 1936 y disposiciones complementarias. Examinada la propuesta de la Comisión Superior Dictaminadora de Expedientes de Depuración y el informe de la Dirección General de Primera Enseñanza, Este Ministerio ha resuelto: 1.º—La confirmación en el cargo con derecho al percibo de haberes desde la fecha en que se presentó a servir su Escuela a la Maestra de Abisaur, doña María Calzada Andrés. 2.º—La confirmación en el cargo de las señoras siguientes: Doña María A. Arbizu Echeveste, Maestra de Gavirán; don José Martín Crespo, ídem de Azcoitia; y doña Isabel Navarro López, ídem de Archaizola. 3.º—La inhabilitación para del des-

empeño de Escuelas a doña Rosalía Lizarrabiz Díez, Maestra interina de Baxain. 4.º—La confirmación al cargo con inhabilitación por diez años para el ejercicio de cargos directivos y de confianza en Instituciones Culturales y de Enseñanza a doña Mariela Ayo Aramburiz, Maestra Nacional de Abasizqueta; y doña María Casilda San Pedro, ídem de Irún-Olavarría. 5.º—La confirmación en el cargo con inhabilitación por veinte años para el ejercicio de cargos directivos y de confianza en Instituciones Culturales y de Enseñanza al Maestro de Retartaria, don Adolfo Velasco Cruz. 6.º—El traslado forzoso fuera de las Provincias Vascongadas, con prohibición de solicitar cargos vacantes durante un periodo de un año, e inhabilitación para el ejercicio de cargos directivos y de confianza en Instituciones Culturales y de Enseñanza a doña Teresa Olasagasti Sustiza, Maestra Nacional de Retartaria. 7.º—La suspensión de empleo y sueldo por un año, aludiendo de abono el tiempo que estuvo suspendido, tratado forzoso de la Provincia y limitrofos con prohibición de so-

licitar cargos vacantes durante un periodo de dos años, e inhabilitación para el ejercicio de cargos directivos y de confianza en Instituciones Culturales y de Enseñanza al Maestro de Aduna, don Ignacio Ruiz Fernández. 8.º—La suspensión de empleo y sueldo por dos años, aludiendo de abono el tiempo que estuvo suspendido, tratado forzoso fuera de las Provincias de Alava, Guipúzcoa y limitrofos, con prohibición de solicitar cargos vacantes durante un periodo de cinco años e inhabilitación perpetua para el ejercicio de cargos directivos y de confianza en Instituciones Culturales y de Enseñanza a la Maestra del Plan Profesional, doña Concepción Garín Basterrechea. 9.º—La separación definitiva del servicio y baja en el Escalafón correspondiente al Maestro de Urbeñeta, don Miguel Frago Frago. Lo digo a V. U. para su conocimiento y efectos consiguientes. Dios guarde a V. U. muchos años. Madrid, 30 de diciembre de 1939. Año de la Victoria.—JOSE INARIZ MARTIN.—Rubricado.

Administrador jefe y de Adjuntos provinciales ORMAIZTEGUI


Ilmo. Sr. Vistos los expedientes de depuración incoados por la Comisión Depuradora D) de Guipúzcoa e n arreglo a lo dispuesto en el Decreto número 66 de fecha 8 de Noviembre de 1936 y Ordenes complementarias. De conformidad con la propuesta de la Comisión Superior Dictaminadora de expedientes de depuración y el informe de la Dirección General de Primera Enseñanza, Este Ministerio ha resuelto: 1.º—La separación definitiva del servicio y baja en el Escalafón de los Maestros doña Teresa Eiviti Ortiz, de San Sebastián; Doña Martina Astizarría Aramburu, de San Sebastián; Don Feliciano Rodríguez de Elbar; Doña Noemí Marqués Martínez, de San Sebastián; Don Luis Alvarez-Hernández de Ibañeta; Don José Alcántara, de Fuenterrabía; Don Francisco Terro Carrasco, de Mondragón; Don Augusto Peña Balbás, de Mondragón; Doña María de la Asunción Quintanilla, de Corrika; Don Ricardo Fernández Gallo, de Lezo; Don Arturo Martínez Velilla, de San Sebastián; Don Adolfo Crespo Sáinz de Beasain; D. Andrés B. Atarés Sola, de Lezo; Don Manuel Sola Miera, de Corrika; Doña Victoria Santiago Izquierdo, de Alzira; Doña Resurrección Martínez de Hernani; don Tomás A. Sierra, de Motrico. 2.º—La inhabilitación perpetua para el desempeño de Escuelas de los Maestros: Don Juan Iruretagoyena García, del Plan Profesional; Don José Ezcudilla, interino de Ormaiztegui; Don Juan María Inchausti, interino de Ormaiztegui; y don José Saiz González, interino, de Augusta. 3.º—Inhabilitación para el desempeño de Escuelas en las provincias vascongadas e limitrofos durante un periodo de cinco años e inhabilitación perpetua para el ejercicio de cargos directivos y de confianza en Instituciones Culturales y de Enseñanza de las Maestras interinas doña María Victoria Urresti Hondo, de Arpeitia; y doña María Rosario Echeñique, de Mondragón. Lo digo a V. U. para su conocimiento y efectos consiguientes. Dios guarde a V. U. muchos años. Madrid, 30 de diciembre de 1939. Año de la Victoria.—INARIZ MARTIN

Joxeba Ezkurdiani eta Juan Mari Intxaustiri maisutzan aritzeko behin betiko debekua, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean. 1940-01-22.

ACCIDENTE FERROVIARIO

Descarrila un tren entre Beasain y Ormáiztegui, resultando tres viajeros muertos y más de treinta heridos, algunos de gravedad

Don Sebastián, a las 8.30, en el momento de la explosión del tren, se encontraba en el momento de la explosión del tren...



El tren se había descarrilado al intentar el conductor dar un adelantamiento de un vagón a otro...

El tren se había descarrilado al intentar el conductor dar un adelantamiento de un vagón a otro...

El tren se había descarrilado al intentar el conductor dar un adelantamiento de un vagón a otro...

El tren se había descarrilado al intentar el conductor dar un adelantamiento de un vagón a otro...

El tren se había descarrilado al intentar el conductor dar un adelantamiento de un vagón a otro...

El tren se había descarrilado al intentar el conductor dar un adelantamiento de un vagón a otro...

El tren se había descarrilado al intentar el conductor dar un adelantamiento de un vagón a otro...

El tren se había descarrilado al intentar el conductor dar un adelantamiento de un vagón a otro...

El tren se había descarrilado al intentar el conductor dar un adelantamiento de un vagón a otro...

El tren se había descarrilado al intentar el conductor dar un adelantamiento de un vagón a otro...

Advertisement for 'Laxen-Busto' laxative, featuring the text 'Laxen-Busto Laxante - Golocina' and 'Los niños siempre piden más'.

Advertisement for 'CREMA DENTAL CIENTIFICA' and 'PROFLEXIN', featuring large stylized text and a small illustration of a person.

La liberación de Madrid en su aspecto internacional

Por JOSÉ MARÍA CASTRO

Madrid puede decir que la liberación de Madrid...

El día siguiente, de hecho, el momento de la liberación...

El día siguiente, de hecho, el momento de la liberación...

El día siguiente, de hecho, el momento de la liberación...

El día siguiente, de hecho, el momento de la liberación...

El día siguiente, de hecho, el momento de la liberación...

El día siguiente, de hecho, el momento de la liberación...

El día siguiente, de hecho, el momento de la liberación...

El día siguiente, de hecho, el momento de la liberación...

El día siguiente, de hecho, el momento de la liberación...

El día siguiente, de hecho, el momento de la liberación...

El día siguiente, de hecho, el momento de la liberación...

El día siguiente, de hecho, el momento de la liberación...

El día siguiente, de hecho, el momento de la liberación...

El día siguiente, de hecho, el momento de la liberación...

El día siguiente, de hecho, el momento de la liberación...

El día siguiente, de hecho, el momento de la liberación...

El día siguiente, de hecho, el momento de la liberación...

El día siguiente, de hecho, el momento de la liberación...

El día siguiente, de hecho, el momento de la liberación...

El día siguiente, de hecho, el momento de la liberación...

El día siguiente, de hecho, el momento de la liberación...

El día siguiente, de hecho, el momento de la liberación...

El día siguiente, de hecho, el momento de la liberación...

El día siguiente, de hecho, el momento de la liberación...

El día siguiente, de hecho, el momento de la liberación...

El día siguiente, de hecho, el momento de la liberación...

San Sebastián

deportes

FUTBOL

Comunicación del partido Oñate-Bilbao

En el partido celebrado en el estadio de San Sebastián...

El partido terminó con un empate a cero...

El partido terminó con un empate a cero...

El partido terminó con un empate a cero...

PELOTA

El día siguiente, de hecho, el momento de la liberación...

El día siguiente, de hecho, el momento de la liberación...

El día siguiente, de hecho, el momento de la liberación...

El día siguiente, de hecho, el momento de la liberación...

El día siguiente, de hecho, el momento de la liberación...

PATATA DE SIEMBRA

El día siguiente, de hecho, el momento de la liberación...

El día siguiente, de hecho, el momento de la liberación...

El día siguiente, de hecho, el momento de la liberación...

El día siguiente, de hecho, el momento de la liberación...

El día siguiente, de hecho, el momento de la liberación...

El día siguiente, de hecho, el momento de la liberación...



Fotografía de un momento del partido...

El día siguiente, de hecho, el momento de la liberación...

El día siguiente, de hecho, el momento de la liberación...

El día siguiente, de hecho, el momento de la liberación...

2.11. Gerra bukatu bezperatakoa

1939ko apirilaren 1ean bukatu zen gerra. Lau egun lehenago, martxoaren 28an, tren istripua izan zen Salbatoren (Ormaiztegi eta Beasainen artean dagoen auzoan). Hurrengo eguneko *El Diario Vasco* egunkariak zioenez, hiru lagun hil ziren –bi gizonetzko eta emakumezko bat– eta hogeita hamarretik gora zauritu, haietako batzuk larri. Apirilaren 1eko aleak ohar labur bat zekarren, hildakoen familiakoei eta zaurituei zuzendua, esanez beren izenak eta bizilekuak “al Señor Interventor del Estado de San Sebastián” jakinarazteko; beste aipamenik ez zuen izan istripu larri hark. Martxoaren 29ko aleak Madril erori izana zuen hizpide nagusi, Francoren garaipen erabatekoaren atarian. Egunkariak ez du argitzen halakorik, baina Ormaiztegin entzun izan da makinista Duque de Zaragoza ote zen, José Mencós y Rebolledo, Alfonso XIII.aren tren gidari izandakoa, eta 1941ean RENFE sortu zutenean oso aurrean ibiliko zena.

Joxe Urreta

–Gerraren bukaera aldera, zuk ikusitakoa, espresoa erori zanekoa.

–A bai, Salbatoren erori zanen. Ba ni ordun Beasaina bizikletan nihen, eta Salbatore paren nintzela, orduntxe erori zan tren hori. Zeatik trenek ordun –orain kalefakzioa eak ekartzen due–, baino ordun horik eramaten zuen bagoi bat, makinea eta kotxen tarten bagoi txiki bat, kalderekin, eta han juten zan gizon bat ikatza botaz, trenari beroa pasatzeko. Eta esan zuen haren kulpea izan zala deskarrialtzeko, zeatik estabildade gutxi zeukela... esan egin zuen.

Ordun gure atte eta kaminoa egiten ari ziren Ezkiora, eta aguazil difuntue, trena belozidaren ikusten zuen ba hor Zumarraga aldetik, eta esan zon: “Aurrekoa aurrera zihok, baino atzekok segi egiten zioke”... Baino ez zuen danak segi, e? Hortik behera makinea jun zan, baino beste bagoiak behera jun ziren. Eta atzen zetozen hiru bat bagoi edo, soldaduk ibiltzen zirenak, eta soldadu batzuk eta usok edo ez dakit zer zetozen kaiola batzutan. Eta hak goien geratu ziren, hak suertea euki zuen, baino bestek behean geratu ziren; hiru kotxe erori ziren behera. Eta ordun Tejeriako jendea ari zan lanen, lurtegie, lurre ateratzen Lapurretze ondoren... eta danak, bueno, mogimentu ikaragarrie, danak harutza jun eta...

Emakuma bat, besoa harrapauta zeuken, eta palanka batekin altxa, eta berriz ere erori... garraxi batzuk bai... Eta gu hantxe, dana ikusten.

–Hor makinista ilustren bat emen zan...

–Duque de Zaragoza izan behar zon.

–Izango zan makinistan burue edo...

–Makinistan burue ez dakit izango zan, baino ordun badakizu, entxufetik edo... zihola makinista hure, bai.

2.12. Gerra ondorengoak

Francotarrek, herriak eta hiriak okupatu eta agintea eskuratu ahala, berrogei urtez luzatuko zen erregimenaren estiloa ezartzen zuten. Adibidez, mutikoak behartuta zeuden *flechas y pelayos* taldeen desfileetan parte hartzera. Elizan, *Te Deum* antolatzen zituzten, nazionalen garaipenak ospatzeko, eta hara ere derrigorrean joan behar izaten zuten batzuek.

Francok ondo lotuta zeukan dena, baina izan zen gorabeherarik erregimen haren alde zeuden karlista eta falangisten artean. Joxe Ramon Lasa halako gertakizun baten testigu izan zen Bilbon. 1942ko abuztuaren 16an, hildako *requeteen* aldeko meza bat ospatzen ari ziren Begoñako santutegian; José Enrique Varela jenerala zen ordezkari gorena; karlistek Fal Conde buruzagiaren eta erregearen aldeko oihuak bota zituzten; falangista talde batek aurre egin zien, eta haietako batek eskuko granada bat bota zuen: 117 zauritu eragin zituen. Ondorioz, lau falangista epaitu, eta haietako bat, Juan José Domínguez, fusilatu egin zuten Larrinagako kartzelan, irailaren 1ean.

Carmen Lasa

–Flechak eta pelayok.

–Gure etxen hiru mutil zeren, Joxe Ramon, Jose Inazio eta Migel. Eta Jose Inaziok jantzi egin behar izaten zon *de... flecha*, bai, *de flecha*; eta ez zon nahi izaten. Istilu onak ibiltzen ginutzen! Gu bildurrez, polizik etorriko zirela etxera; eta... hura juten zan ganbarako eskilaratan eta han izkututzen zan. Eta hola ibiltzen ginen.

Joxe Urreta

–Tokatu zitzazun pelayo izatea ere.

–A, bai, *pelayo*! Hemen ibiltzen ginen desfilatzen-eta; eta gero kornetea jotzen.

Hemen zerrajerie egon zan. Mondragotik etorri ziren hiru-lau lagun, soziok zirenak; tinta fabrikako hortan bizi ziren. Harek lehendik jakingo zon tronpetea jotzen eta gu, hiru-lau mutiko juten ginen, tronpetea jotzeko, desfilatzeko. Uniformea, alkondara urdine ibiltzen gendun, txapel gorrie borlekin... hola.

–Arma ere bai...

–Egurrezko fusile; egurrezkoa izaten zan, bai.

–Mutiko asko?

–Asko, asko.

–Desfilea nundik nora?

–Bueno, Bainoetxen zegon horko zentroa, militarrek egoten ziren eta hor ibiltzen ginen, frontoi alde hortan.

–Zeinek agintzen zon?

–Horixe ez dakit... Hura, honezkero, desagertuta egongo da behintzet; ia bastante edadekoa zala badakit baino...

–Ez zan hemengoa?

–Ez, ez, keba, kanpokoa zan.

–Nahi ta nahi ez jun behar zenduen?

–Nik ez dakit obligau egiten ginutzen edo... zerbait izango zan, bestela ez dakit... edo geuroz jun ginen edo... badakizu, beti zerbait probatzeatik.

–Zu beste zeinekin juten zinen?

–Nere lagunek gehienak izango ziren hor, pentsatzen det, kirakok gehienak. Ia danak hilda dire baino...

–Razionamentue ere ordun izango zan ba...

–Hori beste kontu bat zan ia. Ordun kartilea zenduken, haragie eta hartzeko rasionamentu bat, razioa zenduken; familin zenbat jende zeren eta hori danak, Ayuntamentun atera behar zuen; eta kartila horrekin juten zinen goizen, ni askotan bostak edo seiek igual, lehenengoa izateatik, Paulo karnizerona (Apaolaza); hura zan hor haragie ematen zona ordun. Eta gero ogie berriz, ez dakit artokin edo harekin edo zer egiten zuen; jaten hasten zinen eta eskutan zeratzen zan; ogi irinik batere ez, baino zerbait jan behar zan-eta...

–Estraperloa ere izango zan.

–Bueno! Estraperlo asko, horixe zegola, baino orain motoristak daren bezela ordun zeren, nik ez dakit soldaduska egindakok edo... Zegamako bat ibili zan hemen, oso ganadu ederra ez, Alustiza; horik ibiltzen ziren motokin. Gero, karrerak eta hasi zirenen ere, hok ibiltzen ziren... gero ia kanbiau zan.

–Baino zer ziren, polizik?

–Polizik, polizik. Zeatik jendea Naparrora juten zan gari bila, Abarzutza alde hortara eta asko. Ataunen jende estraperlista ikaragarri zegoen, e? Gauez ibiltzen ziren jeneralen, eta horik, polizik, geratu egiten zituen, eta askori dirue edo kentzen zien, jeneroa zekarrena kendu egiten zien behintzat. Trenen ere jende asko ibiltzen zan, Alsasura junda. Estaziotan kontrola egoten zan ba...

Hamen, ez dakit zeintzuk baino bakarren batzuk baziren hamen, hor, ubi muturren zerak bota, estaziora ez juteagatik, eta gero bila jun eta... garie edo zer zekarren... Gero, oligorik ere ez zegoen. Gure amak makina bat aldiz seboekin, karnizeritik ekarri, tinajatan urtu eta gero kutzarekin zartagira bota... ez zegoen oligorik.

–Gose gosea, dana dala, ez zenduen pasa.

–Ez, gu gosekin ez ginen egon; goserik ez gendun pasa, hori ez. Eta gero zeran, arrautzak ere bai; orain ez da egiten baino, gure amak gaixok, baserrikoa izan hura!

arrautzak ekartzen zituen okasioa zeukenen, ahal dan merkeena hartu, karetan sartu tinaja baten, eta oso ondo konserbatzen dire, e? Eta hala eukitzen zitun.

Kontxa Intxausti

–Herrira itzuli zinetenen, etxea hutsik...

–Batek koltxoia uzten zigun, bestek... *de prestado* ibili ginen, harik eta guk egin arte.

–Jendek laguntzen zizuen?

–Bai, bai, laguntzailek ere bagenduzken. Bestelakok ere bai baino laguntzailek ere bai.

–Beste kontu bat, Te Deumak izaten emen ziren elizan...

–Bai, holako egin zuela eta kanpaiak. “Orain ere badek”. Blin-blon, blin-blon... kanpaiak. Eske Franco berrogei urten eduki gendun hemen; kontuk atera itzezu bitarte hortan zenbat persekuzio. Eta etortzen ziren; “hemen izango dire ba neskazahar horik”; hiru bat; etortzen ziren gure etxera, besteetara ez dakit juten ziren. Atea itxita edukitzen gendun eta hor ba aldabea jo eta ni izaten nintzen kargu hor neukena; atea iriki: “De parte del comandante que a las siete hay Te Deum, iy para asistir!”; eta bestek: “Sí, sí, ipara asistir!”; buelta eman eta juten ziren. Ordun, baten batek jun behar zon *al Te Deum* eta juten zan atten osaba hori, hor dago, Joxe Gabriel, fotografín. O sea, bakoitzek genduzken...

– ...zereginek erabakita.

–Gure attek gero, beti ibilita ganadukin eta hegaztíkin eta... oílo batzuk ipini zitun eta behi bat erosi zon: honek txahala egin eta katea eroñera abiatu zan Beasaina; oinez zihola, alkatea, Joxe Mari Telleria; hura bidera atera emen zitzaion: “Ez daukezu juterik”. Eta buelta etxera.

–Gerra bukatu eta gero, zuen etxen hartzen emen zan radio debekatue...

–Nola zan? Pirenaica! Gure attek jartzen zon... eta gainerantzen ba lana egin eta...

Nik egin non beatzi urten Beñaran, lana, *haciendo punto*, *calcetines* eta gero udako goantek. Eta klaro, han egiten non txanpona atteri ematen nion.

–Zuen atte eta ama oso markatuta gelditu ote ziren gerrako kontu horikatik?

–Atte ez zan... ama, Aizarnazabalgoa, gehiago hitzegitekoa zan; atte seriogoa.

–Gorrotorik eta?

–Ez.

–Zuk ze sentipen?

–Aurrera atera ginen eta pozik.

Madalena Ramos

–Vinimos a San Juan de Luz. Yo tenía noticias por mediación de Ignacio, que estaba en la zona libre, y me decía que (Juan Mari) estaba en el campo de concentración en Albaterra; eran no sé cuántos miles, muchos se suicidaban; a la mañana les daban una sardina y a la noche otra sardina en conserva; estuvo diez meses. Y él más tarde me dijo que, pensando en mí, no se suicidó; pero yo no lo sabía.

Juan Mari, primero estuvo un año en Valencia, le destinaron a Valencia cuando salió de la cárcel. Luego fue a Ormaiztegi, y ahí trabajaba en Zumarraga, donde los hermanos... eran unos cubanos, de contable.

Carmen Lasa

–Gerra ondorengo giroa?

–Ba giro tristea. Horixe, lantokik ere ahal zuen bezela... gehiena bildurre; bildurre asko, horixe, nola ez. Kartzelatan ere baziren batzuk eta... bildurre.

Joxe Ramon Lasa

–Bildurre zegon haundie.

–Gerra bukatu eta laister soldaduskara jun behar izan zendun.

–Lau urte. Gure kintea zan *del 42*; guri deitu ziguen gerrea bukatu eta segitun. Lizentziatu eta gero ere hilabete batzutan egon nintzen ni, ze jeneralak esan zidan Afrikara jun nahi zola eta faborez egiteko biaje hori, eta hiru-lau hilabete gehigo egon nintzen, biaje hori egiteagatik.

–Gobernadore militarren txofer zinen Bilbon.

–Bizkaiko gobernadore militarra. Aurrena jun nintzenen zegon jeneral bat oso zaharra ia, baino gero hasi ziren gaztek mogitzen; gobernu militarra zegon orain Athletic dagon tokin, Sotanen; zoragarrie... hango saloiak eta sukaldeak eta kapila...

Enbajada Amerikanok rebistak ekartzen zitun, Europako kontukin. Egun baten koronel batek: “Esto no es para ti”, eta kendu egin zidan; ez zuen nahi jakiterik kanpoko konturik; eta Bilbon erori zan ordun *fortaleza-volante* bat, oso famatuk ziren ordun, haundinak; Frantzin jota zegon eta etorri zan honera, eta Erandion jetxi zan; haren gasolinak nik erre nitun, berrehun bat litro bai.

Inglesa zan (pilotoa), bueno, ingles-amerikanoa, eta nik esaten nion lasai egoteko; mutil haundi bat zan, sasoi haundiko gizona. Hala, lasaitu gendun; gero eraman zuen, eta ez dakit zer izango zan.

Beste anekdota bat badauket. Karlistak organizau zuen Begoñan bilera bat; jende bastante bildu zan; sartu ziren meztara eta gu kanpon. Varela ere han zegon



Joxe Urreta eta Jose Inazio Lasa Beasaingo festetan. c. 1940.



Joxe Ramon Lasa, familiako lagun zen Pilar Usarraga donostiarrarekin. c. 1940.



Juana Peña eta Julian Intxausti urrezko ezteietan. 1959ko iraila.



Intxausti Peña familia gurasoen urrezko ezteietan. Goiko ilaran, ezkerretik hasita, Inazio Maiora, M. Luisa, Katalina, Xanti eta Juan Mari Intxausti, Madalena Ramos, Kontxa Intxausti eta Migel Mari Irizar. Erdiko ilaran Itziar Maiora, Juanita Intxausti, Juana Peña, Julian Intxausti eta Gurutze Irizar. Behean Izaskun Irizar, Pontto Intxausti, Kontxi, Imanol, Alejandro eta Mikel Irizar eta M. Angeles Intxausti. 1959ko iraila.

–hura ezkondu zan Bilboko Casildita... aberats horitakoa–. Varela ordun pixu haundikoa zan, Francon hurrenetakoa. Danak mezatan zerela atera ziren batzuk eta hasi ziren: “¡Viva el Rey! ¡Viva Fal Conde!”, eta segitun bonba batzuk, hiru bonba edo bota zituen. Sei mutil gazte ziren; eta horik emen ziren falangistak, eta jun ziren bilera hori zatitzera; hiru bonba bota eta hogeita hamahiru heritu izan ziren.

Baino han zan gero komerie, jendea bildurtu zan eta gu ere bai, batzuk paitek salto egin eta... ni ere korrika hasi nintzen, baino esan non: “Baino nik ez zeukeat juterik!”. Varelan txoferrak-eta atera zituen pistolak; etorri ziren zera horik eta Gobierno Militarera jun ginen danak.

Gero, horik, juzgatu egin zituen; bat egin zan responsable, eta hori Larrinagako kartzelan afusilatu zuen gero. Fusilamentu hortara ere ni jun nintzen, auditorekin, *auditor de guerra*; jeneralak esan zidan: “Tienes que hacer un servicio hoy, a las diez de la noche. Vete a la Gran Vía –ez dakit ze numero zan, *cuarenta y cinco* edo–, a Auditoría de Guerra”. Auditorea hartu non nik eta esan zidan: “A la cárcel de Larrinaga”. Hala, jun ginen, eta goizeko seietan afusilatu zuen hori. Ni, harrituta gelditu nintzen.

2.13. Makiak

Gerra bukatutakoan, Errepublikaren alde borrokatutako zenbait soldadu gerrilari bihurtu ziren, eta mendira jo zuten Francoren kontrako erresistentzian aritzeko. Aralarren eta Aizkorriin badira oso antzeko bi istorio: Amezketan Makin-Borda deitzen diotena dago; eta, Aratz mendiaren barrenean, beste artzain-txabola bat. Bietan, goardiazibilek maki bana harrapatu eta hil egin zuten. Aralarren hildakoa mando baten gainean jarrita Amezketara jaitsi, eta bertako hilerrian lurperatu zuten, ez izenik, ez besterik, eremu sakratutik kanpora.

Ormaiztegin ez zen horrelako hilketarik izan, baina bai makien arrastorik. Batetik, Tellerizaharrekoek izan zuten haietako biren bisita. Bestetik, Alejandro Irizar atxilotu zuten, makien laguntzarako sareari lotuta¹⁵.

Kasilde Arzelus

–Irten zan (Alejandro Irizar, kartzelatik), etxen zegon –ni ordurako ezkondu, hura kartzelan zala ezkondu nintzen–, baino hura etorri zan gixajotuta erabat. Eta bera

15. *Maquis. La guerrilla vasca 1938-1961* liburuan (Mikel Rodríguez Álvarez, Txalaparta), 1944ko azaroaren 30ean makien hariari jarraituz egindako sarekada baten berri ematen da:

Fueron arrestados numerosos nacionalistas, sobre todo en Vizcaya, y otros tuvieron que escapar a Francia. También consecuencia del apresamiento del primer grupo, fue la detención en San Sebastián de una red establecida en septiembre para conseguir salvoconductos y documentación. Un policía, fingiéndose maquis recién llegado del exterior, se presentó al contacto José Esquizabel, dueño de un bar. A partir de él fue arrestado Alejandro Irizar, secretario del Ayuntamiento de Ormaiztegi, que conseguía impresos oficiales y papel timbrado merced a su puesto.

zan bastante zekina garai hartarako, maixue zan eta, Mondragon zegon maixu gerrea zeratu zanen. Eta ordun zegon alkate Olaizola –Olaizola ez zan partidu... baino karlistatan apuntatu, bere burue defenditzeko, karlistatara– eta egin zuen alkate.

Inor ez emen zegon, danak alde eginda edo... eta esan emen zion Alejandrori: “Egingo al dek ofizinakoa zeozer Ayuntamentun, zeatio ezer gabe gerek-eta”. Eta baietz, gustora; eta hala jun zan Ayuntamentura, sekretariora bezela egitera. Handik pixka batera etorri zitzaion gizon bat Ayuntamentura.

Baino gizon horren historie haundie da. Lehenengo, Lapatzakok zeuken taberna bat Donostin; eta taberna hortan zegon alaba soltera bat eta gizon bat juten emen zitzaion sarritan, gerrako kontuk galdetu-eta... Eta handik atera zon behintzet nola Alejandron lagune, Juan Mari Intxausti, Frantzin zegola. Eta etorri da eta esan dio nola eskumuinek eman zion eta esan ziola harek emango ziola salvoconductoa –esan ziola berak–. “–Eta norako nahi dek ba, Madriderako edo... –Ez, ez, ez. Bartzelonarako. –Nik hori ezin deiket eman, zeatio puertoko tokirako nik ezin det eman”. Hala, aritu emen ziren hizketan eta hizketan eta atzenen konbentzitu do Bartzelonarako egiteko. Eta Bartzelonarako egin dionen, solapea altxatu eta polizie!

Eta handik hartu zuen eta eraman zuen Donostira lehenengo; Ondarretan sartu zuen eta juizioa egin arte han egon zan, bastante denbora; eta egin zien, hogeituro urteko penea eman zien; eta hogeituro urteko ezin emen dire Donostin egon eta jun behar zon penalera; penalera bidali zuen Santoñara, eta han egin zitun beste hamar urte.

Eta nola hogeituro urte zeuken hasi ginen aber libratzen gendun. Lana egiten zon, han, Santoñan, lan asko egiten zon; zeatio Puerto de Santa Marian zegon bitarten, ingles bat emen zegon berakin eta inglesa ikasi zon. Eta gero, Martutenera jun zanen izan zan garaie, ba gerrea bukatuta edo... makinak eta ekarri behar zituen estranjeritik, zeatio makina danak militarizatu zituen eta dana estropeatuta zegon, eta jarri behar zituen makinak; eta makinak etortzen ziren ingelesez, nola montatu behar zan-eta, eta harek traduzitu egiten zon; hango makinan zera erderaz jartzen zon. Eta hori egiteagatik ematen zien hilen bost erreal edo –gutxi behintzet–, hala ematen zien baino lana egiten zon.

Eta jun ginen eta esan ziguen ezin leikela irten, *reincidente* zala, beste hamar urte bete behar zitula. Disgusto ikaragarrie izan zon berak. Joxe Migel jun zan frailetara –gure etxen frailek izan dire, pasionistak (Gabirikoak), etxen bezela, zergatik hak ez zeuken telefonorik, guk bagenduken eta han enkargu danak rezibitzen ginutzen, eta beti frailen bat etxen zegon–. Eta esan ginun zer pasatzen zan Alejandrakin. “Oi! guk daukegu fraile bat, Irunen dago, zeran ibili zana, Francokin batailoien –apaiz bezela, e?– harretxei esango diogu”. Eta hala, jun zan Burgosa eta juezana jun zanen esan emen zion: “Baino neronek eman zioat horri kastigue –bueno, erderaz–. Neronek juzgatu det. Nun egon zerate orain arte?”. Eta hala, haren bitartez libratu zan. Hamar urte egin zitun, bost urte besten... hamabost urte kartzelan egin zitun harek.

Kontxa Intxausti

–Handik puxka batera etorri ziren baita bi maki –bolarea zan–... etorri ziren bi. Bat zan eibartarra –oraindik ere bizi da, horren apellidue gogoratzen banaiz esango dizuet– eta bestea asturianoa. Nola Juan Marikin egon ziren Frantzin, ondo zegola... norabaitera zihotzen. Pistola bat utzi zuen etxen.

Gure attek –soldaduskarik ere ez zon egin– ez zion batera inportantzirik eman; baino gero Xanti etorri zan tailarretik eta... pistolea; ordun, zer egin zon? zaku baten bildu, eta gure terrenon zegon zulo bat edo –ezberdintasunek egoten dire– eta han utzi zon.

Kuestioa da, sobrare harrapatu zituen beste bi horik, eta esan zuen pistolea gure etxen utzi zuela; ordun polizie etorri zan eta Xantik: “Pues tiré al río”. Eta ordun ekarri zuen buzoa eta errekan ez zuen bilau, klaro. Ordun sobrare eman egin zien eta esan egin behar izan zon nun zegon; etorri ziren berekin polizik, eta etxe ondotik igo eta han zegon, zulo hartan zegon pistolea.

Ordun ba hori, atte eta ama, Xanti ere han zegon, M. Luisa Zumarragan –ahizpa–... behintzat lauek egon ziren batera Ondarretan; eta osaba eta ni berriz, egunero Ayuntamiento presentatuz. Ordurako ia sekretarioa aldatuta zegon; sekretariok esan zidan: “Biok etortzen ez zaitezte ibili, zu etortzea nahikoa da”. Etortzen nintzen, Ayuntamiento presentau eta bale. Eta gero jarri zigun juezak edo fetxa bat, ilbeltzan hamarra, eta goizeko beatzietan halako juzgadutan Donostin egoteko. Ilbeltza zan, elurre zegon, ordurako izeba Matea hiru urte eta piko eginda zegon kartzelan, etorrira zegon eta gurekin bizi zan; ordun, harek lagundu zigun osabari eta neri goizeko sei ta erditako trenerako; elurre zegon eta bota haundi batzuekin eta jun ginen; hura bueltatu zan etxera eta gu Donostira. Juzgadura jun ginen eta leitu zigun –ez dakit zer leitu zigun– ta-ta-ta, “y quedan ustedes en libertad”. Oso ondo!

Ordun jun ginen Ondarretara, eta han zeren, goizen emakumek baldin bazeuken eta gizonak atsaldetik, ba goizekok bixitau eta atsalden ere bai, eta osaba eta biok gauen etxera bueltatu ginen. Badakizu hori zer zan?

Gero ama libratu zuen eta ez dakit... kuestioa da atte eraman zuen *a Alcázar de San Juan*. Eta ordun zegon kapellaue Ondarretan *José María no-sé-cuantos*, Azpaitikoa, eta harek egin zigun abixatu: “Bihar goizen korreoz pasatuko da zuen atte Ormaiztegitik; igo nahi badezue estaziora”... Han jun ginen atte ikustera. Lotuta, han zihon, atera zuen zerak eta... *a Alcázar de San Juan*. *Un hombre que no había ido nunca ni a una taberna*, esaterako; lana ta lana ta lana. Bueno, denbora asko ez zon egin han. Eta bitarte hortan bukau zuen orain dagon kartzela hori, Martutenekoa, eta ordun hor sartu zuen; hori ere probau zon. Gero, handik etxera, ez dakit zenbat denborara etxera.



Juana Peña eta Katalina Intxaustiren agiriak kartzelako bisitetarako. 1947-1948.



Julian Intxausti Tellerizaharreko sagastian, c. 1960.

2.14. Bigarren Mundu Gerra

1939ko irailean, Espainiako gerra bukatu eta hilabete gutxira, hasi zen II. Mundu Gerra, 1945a arte iraungo zuena. Hitlerrek Francoren laguntza nahi zuen gerrarako, eta hala, 1940ko urriaren 23an Hendaian bildu ziren biak; izan ere, Ipar Euskal Herriko zati handi bat alemanek zeukaten okupatuta.

Berriro ere Juan Mari Intxaustirekin egingo dugu topo, II. Mundu Gerran ere parte hartu baitzuen; Leclerc dibisioko Gernika Batailoian, hain zuzen ere, kapitain gisa¹⁶. Hori, 1944an, Bidasoa ibaia ihesean zeharkatu eta gero.

Joxe Urreta

–Gerra Mundiala hasi zan segitun, Espainiako gerra bukatu eta Gerra Mundiala. Bukau, *el cuarenta y cinco*? Bai, zeatik ni Afrikara *cuarenta y seisen* jun nintzen eta, gerrea bukau eta segitun.

Madalena Ramos

–Todavía había la ocupación alemana y resulta que teníamos derecho a hablar con parientes de España si ellos venían del otro lado y traían tres-cuatro firmas de la Comandancia de Irun; venían a Hendaia, al Puente de Hendaia, y teníamos derecho a hablar una hora con familiares o amigos. Fui yo a la Komandantur y vino María Luisa (Intxausti), tu madre, Carmen (Lasa), y Pilar Mercero. Nos controlaban los alemanes, estaban allí. Uno fue más majo... nos dejó hablar más...

Y la cosa es que Juan Mari dijo, “mi hermana ha ido, pues yo también voy a ir al Puente”. Y como tenía un íntimo amigo que era más bien del otro lado, pudo tener el permiso de la Comandancia de Irun para venir a verme al Puente; yo fui con mamá y lo veía de lejos, en el Puente Saint-Jacques; nos hacíamos la seña y... no le dejaron pasar, porque le faltaba una firma. Me mandó una caja grande de pasteles y dos fotos, sin dedicarme.

Carmen Lasa

–Goiz baten jun nintzen beatziek aldera edo... estazion nengon eta oi! ikusi non tren bat zetorrela eta makinea osaba Perikona ote zan. Laguntzailea zan Susperregi eta esan nion: “–Oi! gaur ez zoazte zuen makinakin. –Ez, gaur Franco Hendaia diho Hitlerrekin hitz egitera”. Osaba Perikok oso ondo zainduta edukitzen zon ba... Irungo Depositun *La Perla* deitzen zioen, hain ondo zainduta zeuken osaba Perikok *la siete mil doscientos nueve!* Ba hura hartu, trena egiteko, Franco Hendaia ekartzeko. Eta nik hola jakin nitun Franco nola zetorren Hendaia eta danak.

16. *Maixu* izenordearekin ageri da, Gernika Batailoiko kideen zerrendan hirugarrena [Larronde (1995): 111].

Madalena Ramos

–Y resulta que él hacía política siempre, no era de Franco. Le perseguían y un día alguien le dijo: “Márchate, Juan Mari, te persiguen”. Y al otro día le dijo a su madre: “Prepárame la muda, me voy unos días a hacer la contabilidad...”, no sé dónde. La cosa es que pasó la Bidasoa nadando. Era peligroso, porque había vigilancia; llegó a Hendaia completamente mojado. Pasaron varios. Ahí les acogieron en un Campo que estaba vigilado por una persona de raza negra, muy simpático por cierto. Al otro día mamá me dijo: “Ha venido una persona con este papelito”. Juan Mari, del Campo ése de Hendaia, vio pasar a una señora y le dijo: “¿Usted no podría mandar a mi novia esto?”. Y ella fue a casa a entregar personalmente el papelito. Ir a verle a Hendaia, que estaba en tal sitio, y efectivamente fui, porque desde que era su novia no le había visto. Allí, en el Campo, me presentó a un tal Andrés Prieto –que también pasó a nado– como su novia. Ya me hizo una cosa...

Kontxa Intxausti

–Juan Mari Bigarren Mundu Gerran ere ibili zan.

–Bai, ibili zan, Frantzin zegola, harutza alemanak eta zeratu zirenen, ibili zan.

–Batallón Gernikan ibili zan?

–Leclerc? Ni batalloiakín-eta ez naiz gogoratzen. Hainbeste izen esan zituen... eta nik hori ez dauket burun geldituta. Leikena da.

Madalena Ramos

–Ya después Juan Mari hizo conocimiento del Comandante Ordoki, Pedro Ordoki, Kepa. Entonces es cuando se inscribió en el Batallón Gernika, que eran muchos ya; fueron a la Pointe de Grave, estuvo un año. Casi todos los días tenía una carta, por dónde pasaban, lo que ocurría... tengo más de cien cartas.

Aquí se salvó de milagro porque los alemanes... fue el pobre Nalda (Ricardo) el que recibió la metralla que le cortó la mano; eso fue en la Pointe de Grave. Todos los días íbamos aquí, a Sabin-Etxea, un bar, donde Pablo, a saber noticias, y me dice la Pilar: “–No sabes, Madame Intxausti, ha habido muchos heridos en la Pointe de Grave, cantidad de heridos y muertos. –¡Ay, ay, ay, Juan Mari!”. Yo conocía muy bien a la mujer de Ordoki, y fue casi un milagro lo que pasó. “Yo tengo que saber lo que ha pasado en la Pointe de Grave, voy a ir a Biarritz, donde vive su hermano, igual sabe algo también”. Cojo el tren y paramos en la Négresse, porque había que coger otro tren para ir a Biarritz. ¿Qué me encuentro en la Négresse? ¡La mujer de Ordoki! Nos abrazamos y me dice: “Ahora voy a ver a los heridos”. Los heridos estaban en Biarritz; habían requisicionado un hotel para recibir a los heridos. Yo voy, miro, pensando ver a Juan Mari y veo: “–¡Ah, tú eres la novia de Juan Mari! –¿Qué le ha pasado? –Tranquila, a Juan Mari no le ha pasado nada. Estaba más enfermo que yo cuando atacaron; resulta que

Recuerdo de
Pointe de Graven
después de tomar Soulac
1945



Gernika batailoiko lau kapitain: Juan Mari Intxausti, Martínez, Andres Prieto eta Carlos Iguñiz. 1945.



Pointe de Graven, Soulac hartu ondoren; Juan Mari Intxausti ikurrinaren azpian, kaskoa buruan, eskuinetik bigarrena. 1945eko apirila.

estábamos uno al lado del otro, Juan Mari se agachó a tiempo y yo recibí en la mano la metralla; tengo la mano cortada. Pero tranquila, que Juan Mari está vivo”.

2.15. Ipar Euskal Herrian

Juan Mari Intxausti, II. Mundu Gerratik itzulita, Donibane Lohizunen ezkondu zen Madalena Ramosekin, eta bertan geratu zen bizitzen. Ezkontza prestatzeko gorabeheretan azaltzen da nola, Arcanguesko markesaren semea beste bi arrantzalerekin zihoala, txalupa hondoratu eta itsasoan galdu ziren hiru gizonak; 1946ko otsailean gertatu zen hori¹⁷.

Juan Mari Intxausti bezala, Iparraldean kokatu zen beraren lehengusu Inazio Mercero *Txiki* ere¹⁸. Inazio Intxaustik Argentinarako bidea hartu zuen, Igarako Miren Zufiaurre herritarrekin ezkondua; urteak pasatu arte, ez ziren itzuli Euskal Herrira.

Jose Antonio Agirre lehendakariari egin zitzaion hiletan (Donibane Lohizune, 1960ko martxoa), han ageri dira Juan Mari Intxausti –hilkutxa eramaten– eta Serafin Esnaola –apaizen artean–.

Madalena Ramos

–Me casé por el ayuntamiento el treinta de mayo de 1946; el primero de junio, por la iglesia. Juan Mari vivía en casa. Y como aquí todo era por tickets, no había ni tela, ni zapatos... no teníamos nada; sus padres mandaron el traje de Juan Mari. Entonces empezaban a dar los pasaportes, y yo fui a San Sebastián, donde una tía, unos tíos que tenían el bar Alvarez en San Sebastián. Y ahí la amoña Juana me trajo de Juan Mari, los zapatos... y ahí tuve muchos regalos.

Mis compañeras del taller de costura me ofrecían mi traje de boda, es decir, la tela y la *façon*, la hechura. Fui a Lasagabaster, compré diez metros de tela, el tul, los zapatos, todo... Y tuve muchos regalos de mi familia, porque en San Sebastián tenía mucha familia. Y me dijo mi tía: “Pero eso no vas a poder pasar por la frontera, no te van a dejar” –había que pasar la aduana y todo–. Entonces, mi tía me hizo hacer un cajón grande, cuadrado, así, y ahí metimos todo; cosimos con una arpillera... Y dice mi tía: “No te apures, aquí viene el hijo del Marqués de Arcangues con dos pescadores de San Juan de Luz, en barco. Hacen sus cuentas aquí, y después vuelven a San Juan de Luz. Pasado mañana tienes todo en casa”.

17. Michel zen Arcanguesko markesaren semea, eta harremana zuen Hego Euskal Herriak joandakoekin. 1948an, Biarritzen egin zen Eusko Ikaskuntzaren VIII. Kongresuan, markesak bere semearen idatzi bat irakurri zuen, hain zuzen ere euskal demokraziaren ezaugarriei buruzkoa.

18. Tarteka, herriko lagunak bisitan joaten zitzaizkien Ipar Euskal Herrian aterbetuta zeudenei. Adibidez, 1957an Donibane Lohizunen ateratako argazkian, hauek guztiak ageri dira: Txiki, Juan Mari Intxausti eta Madalena Ramosekin batera, Antonio Esnaola apaiza, Joxe Antonio Antia, Xanti Intxausti, Gregorio Irizar, Sebastian Mendizabal, Jose Luis Borde, Ramon Ezkurdia, Migel Mari Irizar eta Joxe Urreta. Argazkia Serafin Esnaolak egin da.

Yo no sé a qué venía el hijo del Marqués de Arcangues, si hacía política, si hacía tráfico... no lo sé; dos pescadores le acompañaban a Donosti. Ya quedé con mamá y Juan Mari que vendrían a buscarme al Puente Internacional. Allí estaban. Les beso y: “-¿Ha llegado el paquete? -¿Qué paquete? -El que ha mandado la tía con el hijo del Marqués de Arcangues. -¿Qué? Ha hecho *naufraige*. Han encontrado les *épaves*, los pedazos del barco; por lo visto les han atacado en pleno mar y les han matado”. Yo me echo a llorar y Juan Mari me dice: “No te apures”, tratando de consolarme. Con que voy al taller de costura, sin nada. “Le tissu? -me echo a llorar- Au fond de l’eau”, les expliqué. “iPauvre Madeleine!”. Entonces decidí no casarme de blanco, de largo, aunque lo merecía, ¿eh? Le dije a Juan Mari: “Yo me casaré con un traje sastre”. Pero tampoco había tela, así que a Sabin-Etxea, donde se juntaban todos los contrabandistas, todos los vascos.

Uno que traficaba con café: “Oye, ¿tú no me podrías hacer un recado en Donosti?” Le escribí tantos metros de tela. “Pasado mañana voy a Donosti y ya te traeré”. Compra todo el contrabandista, pero esa noche había mucha vigilancia y ve en el monte, cuando pasaba, que venían los *douaniers*, y esa noche llovía a jarros, y tira el paquete debajo de un arbolito que había. “-Que c’est que vous avez? -No, nada”. Ya vuelve a Sabin-Etxea, va Juan Mari: “No, que he tenido que tirar el paquete, venían los *douaniers*, mañana vuelvo”. Con que va al otro día, estaba el paquete, pero todo mojado. Había desteñido el forro del traje de mi marido en mi tela. Voy al taller, desplegamos la tela, con la suerte de que sólo la esquinita había desteñido.

Ya estábamos preparados para casarnos. ¡Pero! como todo estaba racionado, no había ni aceite, ni café, ni nada... Pensé: “Mi cuñado está en Sauveterre y por allí hay muchos caseríos”. En Lizuniaga, donde había una barraquita con muchas cositas, compré chicoria, aceite, hilos... y me fui a Sauveterre con todo eso; iba a todos los caseríos: “-¿No les interesa un poco de chicoria, hilos... -Passez, passez, Madame”. Y efectivamente, en uno tuve un pollo, en el otro tuve una botella de grasa de oca, en el otro otro pollo y en el otro otro litro de grasa. Y ese día hacía un calor... Yo sola por todos los caseríos... sudaba... me paro y digo: “¿Qué pasa aquí?” Resulta que las dos botellas, se había ido el corcho con el calor, iba sembrando el camino de grasa de oca; resbalo, por poco me caigo... pero me quedaba la mitad en una botella, la otra mitad en la otra... “bueno, ya me queda un litro; con eso ya podemos hacer la paella”. Eramos veintidós y, a Dios gracias, ya todo pasó bien, muy bien.

La noche de bodas fuimos al hotel Euskadi de San Juan de Luz, y de viaje de novios a Lourdes. Yo lo pasé muy bien. Y a la vuelta mamá nos esperaba; todo estaba lleno de flores... Y ahí termina nuestra historia de amor. Me casé con Juan Mari, y así fue. He sido muy feliz. He tenido buena familia, buenos hijos, buen marido, buenos nietos, buenos bisnietos. Soy muy feliz y moriré feliz.

Joxe Urreta

–Txikiri buruz...

–Bueno, Txikikin... Zenbat urte eukiko nitun? Frantzira jun ginen, bixitatzera jun ginen: Xerafin difuntue, Joxe Migel panaderoa, Ramon Ezkurdi?, Iturbe... Eta ordun zeren hor Monzon eta dana, San Juan de Luzen, eta Txiki ere hor zegon, Juan Mari ere bai. Eta nik ez dakit txibatazon bat edo izan zan, etxera etorri ginenen guardiazibilek etorri ziren, Joxe Migelena eta Iturbena eta... Ea nola jun ziren, zer egin zuen... zeatik han, kantun aritu ginen ba, *Gora Euzkadi* eta kantatzen. Neri hots egin zien, baino ni, *como menor de edad*, libre utzi nituen behinipehin. Nik zenbat urte eukiko nitun? Hamasei bat, edo hamazazpi bat, edo hola.

Ez dakit nola egin zuen gu harutza pasatzeko. Irunen Puente Internacionala oinez pasa gendun behinipehin... bueltan, etxera, eta hurrengo egunen, txibatazoa.

Madalena Ramos

–El quería ir a las Landas a trabajar de agricultor, y yo le dije que no, y mamá le escribió una carta también, que le acogeríamos en casa. Y así fue. Y os puedo jurar sobre mis hijos, que me ha respetado Juan Mari hasta que sea su mujer, viviendo en mi casa... En fin, respetar... ¡He sido virgen!

Vino a San Juan de Luz, y como era maestro pero no podía ejercer, tuvo que hacer de todo. Ha estado siete años entregando sacos de carbón, de carbonero. Después le querían vender el fondo, pero como no teníamos dinero para comprar... Estuvo descargando también en Cambo otros siete años. Pero yo tenía la tienda, ¿eh? Encontró trabajo en Cambo, fue mamá con las niñas a Cambo y yo quedé en San Juan de Luz. Ha sido mucho sacrificio nuestra vida, todo ha sido a base de sacrificio. Todas las semanas, los domingos a la mañana, iba a Cambo, cargada... Me escribían mis niñas, porque teléfono, no teníamos como ahora.

Y no he ido a Ormaiztegi... diez años sin ir a España, y cuando fui, para ser madrina de Imanol (Irizar Intxausti).

–¿Juan Mari cuándo volvió a Ormaiztegi?

–Durante Franco volvió, sí, sí, volvió con un amigo, Paco Laskurain, yo estaba inquieta, pero todo pasó bien.

Ya entonces, cuando nos nacionalizamos, tenía más derechos. Ya después fue como *répétiteur* que dicen, del liceo, y después fue profesor de español. Hemos batallado mucho, pero hemos salido adelante.

–Juan Mari murió el 93.

–Murió a los ochenta años y ocho meses.

–¿Seguía siendo socialista?

–Tenía reuniones aquí, de siempre ha sido socialista. Muy vasco, muy vasco, vasco socialista. Yo he aprendido muchas canciones vascas de él, sé cantidad.

Kontxa Inxausti

–Agirre hil zanen –hil zan Parisen nik uste det, ez dakit nun–. Kuestioa da berai –San Juan de Luzen zegon– berai abixatu ziela hor enterratu nahi zuela eta jendei abixua eman eta preparatzeko. Eta dauket argazkik, Jose Antonio Agirren entierroko argazkik, eta Juan Mari anaie ere hor dago.

Madalena Ramos

–En el funeral de José Antonio Agirre llevó el féretro. ¿Tenía relación con él?

–Me parece que les fue a ver durante la guerra, aquí... sí, porque hay fotos. Una bellísima persona, Agirre.

–¿Vivía Juan Mari el mal del exilio?

–Todo el mundo le quería, tenía mucho encanto. Simpatizaba con todo el mundo.



Donibane Lohizunen, Ormaiztegiko lagunak errefuxiatuei bisitan. Ezkerretik eskuinera, zutik: ezezaguna, Antonio Esnaola, Inazio Mercero, Jose Antonio Antia, Xanti Intxausti, ezezaguna, Gregorio Irizar, Madalena Ramos, Juan Mari Intxausti, ezezaguna. Makurtuta: ezezaguna, Sebastian Mendizabal, Jose Luis Borde, Ramon Ezkurdia eta Migel Mari Irizar Pontto Intxaustirekin. Lurrean: Joxe Urreta. 1957.



Agirre lehendakariaren hileta Donibane Lohizunen: Juan Mari Intxausti zerraldoa eramaten. 1960ko martxo.



J.M. Leizaolaren lehendakari zina, Donibane Lohizuneko hilerrian. Aterkiari eutsiz, apaiz jantzian, Serafin Esnaola. 1960ko martxo.

3. Postdata gisa, osagarriak



Honaino testigantzekin osatutako puzzlea. Kontatutakoa kontatuta, hari mutur ugari geratzen dira zintzilik; izan ere, zenbat eta gehiago arakatu, batekin eta bestearekin hitz eginez, orduan eta xehetasun gehiago azaltzen dira, gaia ia agortezin bilakatu arte. Horretan galdu gabe ere, pertsonaia eta talde batzuei azpimarra jartzea mereziko du. Horregatik, segidan, osagarriak.

3.1. Juan Mari Intxausti Maixu

Zalantzarik gabe, Juan Mari da istorio honetako protagonista nagusia. Hain ibilbide luze eta beteak izan zuen, bere arreba Kontxak eta emazte Madalenak nahiz beste informatzaileek kontatutakoaz gain, badago oraindik haren figura murrizteko datu gehiago, Carlos Blasco Olaetxeari eskainitako elkarrizketari esker.

1913an jaioa, *Juventudes Socialistaseko* kide egin zen Iruñean ikasle zen garaian. 1933an, Zumarragan eskola nazionala sortu zenean, hango irakasle gisa ageri da¹⁹. Gerra hasi zenean, bera izan zen herrian lehendabizi mugitu zena: alkateari deitu, Batzokikoei... Eta hala egin zen Defentsa Komiteko buru. Ardura hori zeukala, bere kezka nagusia izan zen herrian errepresaliarik ez izatea errepublikaren kontrakoak jo zitezkeenengan; horretarako atxilotu egin zituzten zenbait herritar, "...baina ez epaitzeko, jendearen errepresaliak saihesteko baizik".

Nazionalak sartu eta herritik ihes egin eta gero, Euskadiko Defentsa Juntaren aginduz, Azpeitia aldean ibili zen bonbardaketak egin behar zituzten pilotoen gidari gisa, hiruzpalau egunez. Amuategi batailoiko kide eginda, 1936ko negua Eibarren pasatu zuen. Tarte horretan Portugaleten "anti-gas" ikastaldi bat egin zuen, maskarak-eta nola erabili ikasteko. Gernikako sarreran harrapatu zuen bonbardaketak, 1937ko apirilaren 26an. Lemoako haitzetako borrokan ibili zen gero. Kapitain izatera iritsi zen.

Bilboko defentsan parte hartu eta nazionalak gainean zituztela alde egin zuten Amuategikoek Santander aldera. Intxaustik San Vicente de la Barqueratik Donibane Lohizunera ihes egin zuen txalupa batean beste lau lagunekin: "odisea bat", bere hitzetan. Bartzelonara joateko asmotan, Baionan errefuxiatuen tren bat hartu eta Toulousetik eta Puigcerdatik pasata, lortu zuten hara iristea. Han aldi bat igaro ondoren, zortzirehun gazte andaluziarrekin osatutako batailoio bat prestatu Valentzian eta komandante izan zen. Toledon eta Cáceresen ibili ondoren, Talaveran desegin zen batailoia, gerrako azken egunetan. Valentziara joanda, italiarrek atxilotu eta Albaterako (Alacant) kontzentrazio eremuan sartu zuten 1939ko martxoan. Lehen hilabeteetan hildako soldadu andaluziar baten identitatea hartu zuen.

19. Mendizabal (1996): 61.

Heriotz zigorraren mehatxupearan zegoen Ormaiztegiko zubiaren sabotajeagatik. Arreba baten bidez hori kendu ziotela jakitean, bere izenez azaldu zen. Valentzian, Portaceliko kartzelan zeukatela, Donostiako epaile militarrek –Urbistondo– erreklamatu zuen. Eta hala, bi goardia zibilen zaintzapean Madrilera lehendabizi eta handik Donostiara ekarri zuten; 1940ko maiatzaren 2an iritsi zen, tartean, bera ikusteko zain, jendez beteta zegoen Ormaiztegiko geltokitik pasata.

30 urteko kartzela zigorra ezarri zion Donostiako Epaitegi Militarrek; Bilboko Auditoriak, zigorra gehiegizkoa zela-eta, hamabi urte eta egun batera jaitsi zion, eta gero sei urte eta egun batera. Azkenean, Ondarretako kartzelan bi urte pasa eta irten zen, Valentziara deserriratu.

Ormaiztegi itzulita, eta Zumarragan lanean zebilela, Iparraldera ihes egin zuen. II Mundu Gerrak harrapatu zuen han eta Gernika batailoia osatu zenean, bertan izena eman eta kapitain izan zen. La Pointe de Graveko borrokaldian parte hartu zuen, 1945eko apirilean.

1946an Madalena Ramosekin ezkondu Donibane Lohizunen, eta han bizi izan zen geroztik. Hiru seme-alabaren aita –M. Angeles, Juanita eta Pontto–, hainbat langintzatan ibili eta gero irakaskuntzara itzuli ahal izan zuen.

3.2. Inazio Mercero Intxausti Txiki

Elkarrizketetan behin baino gehiagotan azaldu zaigu Inazio Mercero Intxausti Txiki, baina berri zehatz askorik gabe. Haren iloba Gema Azpiazu Mercerori esker zirriboratu ahal izan dugu bere ibilbidea.

Hiru senideren artean erdikoa zen, Pilar zaharrena, eta Gontxalo gazteena. Ama, Maria Intxausti, Tellerizaharrekoa, gazterik geratu zen alargun eta Beasaindik Ormaiztegi itzuli zen bizitzera seme-alabekin.

Gerra garaian, Amuategi batailoian ibili zen, eta ordutik zetorkion Txiki ezizena, oso gaztea baitzen (1921ean jaioa). Gerra bukatuta, Iparraldera ihes egin zuen. Gurseko kontzentrazio eremuan egon eta gero, Biarritzen, Parisen (1961 inguruan) eta Donibane Lohizunen bizi izan zen. Tartean, Tahitin bost urte pasatu zituen.

Iparraldean, Eladia Miurarekin ezkondu eta banatu eta gero, Urruñako Simonne Usandizagarekin bi seme-alaba izan zituen, Marina eta Nino, biak ere Iparraldean bizi direnak.

1956ko urriaren 9an hil zitzaion ama, eta hurrengo egunean Ormaiztegi etorri ahal izan zen, Vicente Brunetek bidea zabaldua²⁰; Brunetek mugaren ardura zeukan jeneralari eskatu zion mesedea, eta hark eman, egun haietan alaba ezkontzen zitzaiolako. Geroztik, artean Franco bizi zela, azaldu ohi zen Txiki tarteka, autoa hartuta,

20. Vicente Brunet gerra garaian iritsi zen Ormaiztegi, Francoren armadako ofizial gisa. Zelaikoko Mari Carmen Telleriarekin ezkondu, Ormaiztegi bizi izan zen urte askoan.

familiarekin. Franco hil ondoren sarriago etortzen hasi zen, eta 1980ko hamarkadan Ormaiztegin jarri zen bizitzen; pintorea izana zen lanbidez, eta jubilatatu bitartean bere iloba Iñaki Azpiauren tapizerian aritu zen lanean. Urtero, apirilaren 14an, traje eta korbataz jantzi eta klabelina gorria jartzen zuen paparrean, Errepublikaren eguna ospatzeko; izan ere, bere sinismenei tinko eusten zien.

Legazpiko Zaharren Egoitzan igaro zituen azken urteak, 2005eko ekainaren 22an hil zen arte. Azken agurra Ormaiztegiko eliz-atarian egin zitzaion, elizara sartu gabe, berak agindu bezala; Juan Kruz Mendizabalek zuzendu zuen elizkizuna, azalduz nola Txiki ez zen sinistuna. Aurreku bat eskaini, eta Errepublikako bandera eta ikurrina jarri zitzaizkion zerraldoan; gerora, testamentua irekitzean, jakin zuten familiakoek bandera komunista ere jartzea nahi zuela.

3.3. Joxeba Ezkurdia

Joxeba Ezkurdia (1913) izan zen, Ormaiztegiko jeltzaleen artean, Francoren matxinadaren aurrean zein jarrera hartu garbi ikusi zuen lehena²¹. Bere ibilbidea familiar-tekoek gordetzen dituzten dokumentuetatik marraztu ahal izan dugu batez ere. Hasteko, Loiola batailoiko 3. konpainiako gudari txartela ageri da bere izenean, argazki eta guzti. Kontatzen zuenez, “bautismo de fuego” Legutioko borrokaldietan hartu zuen: balak ziztuka ezker-eskuin, “bakarren batek joko nauk ba”, baina libratu zen. 1937ko abuztuaren 26an preso hartu zuten; seguru asko, Limpiasen (Cantabria) izango zen hori, Loiola batailoikoek toki horretan entregatu baitzizkieten beren armak Fletxa Beltz italiarrei. Castro Urdialeseko kontzentrazio eremuan sartu zuten hamabost egunerako. Handik Miranda de Ebroko eremura eramán zuten, beste berrogeita bost egunerako. Hurrena, Batallón de Trabajadores nº 24-ra bidali zuten, eta hamabost hilabete pasatu zituen hor, besteak beste Campo de Gibraltarren. Zer lan klase egiten zuten adierazten dute familiakoek gordetzen dituzten betaurrekoek: alanbre sare finez egindakoak dira, sokekin lotzen direnak buruaren bueltan; harria txikitzen ibiliko ziren, eta begiak babesteko erabiliko zituzten betaurreko horiek.

1939ko uztailaren 1ean (26 urte bete zituen egunean) lizentziatu zuten, eta Ormaiztegi itzultzeko baimena eman. Hala ere, dokumentu horretan ikusten da urtero-urtero aurkeztu behar izaten zuela herriko alkatearen aurrean; azkeneko ziurtapena 1947koa da.

1940ko urtarrilaren 22ko Boletín Ofizialean argitaratutako aginduak hauxe dio: “Inhabilitación perpetua para el desempeño de escuelas” Joxeba Ezkurdia eta Juan Mari Intxausti maisuentzat. Joxeba Orion izan zen maisu gerra aurretik; Boletínean Ormaiztegiko “maestro interino” gisa aipatzen da; harrez gero, ez zion sekula ikasitako lanbideari heldu ahal izan.

2004an, Ferroleko eta Guadalajarako artxiboetatik pasa eta, azkenean, Alcalá de Henaresen aurkitu zuten Ezkurdiatarrek Joxebaren fitxa, Goardia Zibilaren informazio zerbitzuak egina. Ahapaldi esanguratsurik ez zaio falta:

21. Inazio Intxaustik, Carlos Blasco Olaetxeak egindako elkarrizketan.

De buena conducta en todos los aspectos. Este individuo estaba afiliado al Partido Nacionalista Vasco, y secretario de la Junta Municipal de dicho Partido, durante la dominación roja en la villa actuó con armas en la cuida de detenidos por los rojos y prestación de guardias, durante el mismo se dedicó a suministrar víveres a los milicianos [...] por lo que está considerado como “DESAFECTO” a la Causa Nacional.

1955eko abenduaren 29an dago egina fitxa hori, gerra bukatu eta hamasei urte pasatxora: 1936ko gerraren itzal luzea.

3.4. Amuategi batailoia

Errepublikaren alde gerrara joandako ormaiztegiar gehienak Eibarko Amuategi batailoian ibili ziren. Hala, Jesus Gutiérrez Arosaren *La Guerra Civil en Eibar y Elgeta* liburuan, batailoia hartako nominan (1936-11-15ean), ormaiztegiar hauetxek topa daitezke: Franzisko Baztarrika, Pio Galarraga, Alejandro Guerra, Nikolas Gurrutxaga, Inazio eta Juan Mari Intxausti, Inazio Mercero eta Jose Anjel Zufiaurre. Juan Mari Intxausti batailoia horrek argitaratzen zuen *Voz miliciana* boletineko idazleen artean ageri da.

Iñaki Egañak *Gerra Zibila Euskal Herrian* sortako Gipuzkoari buruzko liburuan hauxe dio batailoia hari buruz: “Amuategi batailoia, Euskal Herrian gerra-baja gehien izan zuena, Gipuzkoako fronte guztietan borrokatu zen, Beasaindik Iruneraino”. Kide gehienak Eibarko komunistak zirela dio, baina bazeudela UGT eta CNTko militanteak ere, eta eibartarrez gain, beste herri batzuetako gazteak, horien artean, Ormaiztegiakoak. Liburu horretan bertan, Gipuzkoako gudari eta milizianoen zerrendan, ondokoak ageri dira Ormaiztegin bizilekua dutela: Jose Aguirrebengoa (Ormaiztegi 7. taldea), Julian Altama (UGT) –Aldama da, ziurrenik, abizen zuzena–, Migel Garmendia (UGT) eta Juan Intxausti (Izquierda Republicana).

3.5. Batailoia abertzaleetako gudariak

Goian aipatutako liburuan, Euzko Gudaroztearen zerrendan, beste hauek azaltzen dira: Juan Iturbe Loiola batailoian, eta Santiago Intxausti EAE-ANVko Azkatasuna batailoian. Dena den, Euzko Indarran ere ibili zen Intxausti, beti ere ANVkoekin.

Aurrekoez gain, gudari izan ziren Ramon Cerrajería (beasaindarra baina urte luzez Ormaiztegin bizi izana, don Gaspar Insausti apaizaren arreba Maritxurekin ezkontuta) eta Alejandro, Joxe Migel eta Gregorio Irizar (Amaiur batailoia) anaiak. Cerrajería eta Alejandro Irizar tenienteak izan ziren.

Bada pasadizo bat Gregoriok kontatzen zuena. Aragoi alde horretan, Teruelen segurasko, elkarrekin zeuden bera eta Pio Galarraga; halako batean, piloto italiar bat erori omen zen; hegazkina han geratu eta Gregorio eta Pio saiatu omen ziren hura martxan jartzen: “Antoneneko zelaien jetxiko gaituk”. Pio mandotan jarri, Gregorio helizeari eragiten, baina ez zuten lortu hegazkina lurretik altxatzerik. “Eskerrak!!! –esaten omen zuen Gregoriok–, bestela batek daki nun azalduko ginen”.



Juan Mari Intxausti kapitain. 1945.

Queridísimos hermanos: después de largo silencio motivado por la guerra, te dirijo estas líneas para anticiparte que algo bien, aunque espero tengas tus ideas de tu contestación, si si bien trabajando en la misma cosa, o si has cambiado de patrones. Las hermanas se quejan hablando en cosas como verdaderas "maquinillas". De Phauti, he de decirte que esperan licenciamiento de él el día 30 de este mes, ya que en quinta está licenciándose. La tía paterna que se no está en casa, llegará un día de esto pues le cogen los beneficios de la Anunciata firmada por el Caudillo. Y creo que se le cogen los beneficios aunque no estoy seguro. El rompe cabezas de casa es el finísimo piezo (Guarín) que está me despues de hablarme colorado. Después del trabajo y marcharme donde la madre pensando que podría colocarse mejor. Yo le he escrito diciendo que no me puede hacerle pues a él pobre madre le costaría un disgusto. No estaría de más que tú le escribieras para que te aconseje de conversar. Yo creo que no está de todo mal pero como no has querido contestarme no me replica lo motivo de dejar el trabajo. Involuntaria escribible y ver el te contesta a ti y te reteras para comunicarme a mí. Nada más que darle mucho abrazo y rogarte me escribas en seguida. Hazme llegar alguna foto para recordarme.



Albateratik Juan Mari Inazio anaiari bidalitako postala. 1939.




Monolitoa Albaterako kontzentrazio eremuaren tokian.



Oroigarria Albaterako kontzentrazio eremuaren sarreran. 2012.



Inazio Mercero eta Inazio Intxausti St. Meneten (Marseilla, Frantzia). 1941-03-13. Familiakoei eskaintza.





Inazio Merceroren ezkontza Eladia Miurarekin. Beheko ilaran, ezkerretik bigarrena Gonzalo Mercero; eskuinean zutik Juan Mari Intxausti eta eserita Madalena Ramos, altzoan M. Angeles alaba duela. c. 1949.



Gonzalo Mercero, Millan Irizar, Vicente Brunet eta Joxe Urreta Ordesan. c. 1960.

GUDA - ZAINGOA
DEPARTAMENTO DE DEFENSA

GUDARI - TXARTELA
TARJETA MILITAR



Izena / Nombre: Ezkurdia Jose

Saildea / Batallón: 3º Gudarria

Jayoteria / Natural de: Ormaiztegui

Herri / Natural de: Ormaiztegui

Herria / Natural de: Ormaiztegui

Euzkadi'ko gudarozteari sartu aurretik bizi zana
 Residencia habitual antes de su ingreso en las milicias de Euzkadi

Kalea / Calle: San Andres

Bilbao, _____ urtea / año: 1937

Comandante: [Signature]

Saildiko Buruzaga, El Comandante Jefe del Batallón

Joxeba Ezkuriaren gudari txartela, 1937.

BATALLON DE TRABAJAD
 Núm. 34

En cumplimiento a lo dispuesto por el Coronel Inspector de los Campos de Concentración de Prisioneros de Guerra, en la orden de 27 de Julio del presente año, en el día de hoy se procede al licenciarse al trabajador de este Batallón, en remplazo de 1934, José Ezkurdia Zigor, para que pueda fijar su residencia a _____ donde debe presentarse al Comandante de postea de la Guardia Civil más próximo, enviándole el presente pase para acreditar su situación militar fuera de filas y ejercer el interesado de cartilla militar.

Los firmados en _____ de Julio 1937
 AÑO DE LA VICTORIA.
 El Comandante Jefe,
[Signature]

RENTADO 31-12-36
 RENTADO 6-12-37
 RENTADO 1-1-38
 RENTADO 1-1-39

PRISIONEROS DE GUERRA
 BATALLON DE TRABAJAD
 N.º 34

Joxeba Ezkurdia Zigor Batailloietan aritu zeneko agiria; 1947ra arte urtero aurkeztu behar zuen Udaletxean, 1939.



Amuategi batailoia Eibarko frontean: Inazio Intxausti, Alejandro Guerra eta Joxe Anjel Zufiaurre (goian, ezkerretik bigarrena, laugarrena eta bosgarrena) eta Inazio Mercero (behean, eskuinetik lehena). 1936.

4. Elkarrizketen transkripzioak



4.1. Kasilde Arzelus Loiola (Ormaiztegi, 1916-06-18)

Elkarrizketa: Ormaiztegin, 2009-07-07an

–Zuen attek ekarri emen zon nazionalismoa herrira.

–Atte zan txerri tratantea. Villafrancan erosten zitun, Ordizin, eta juten zan Mondrago, Eibar, Elgoibar eta Markinara, hor ibiltzen zan. Ama berriz baserrin lanen, Arraitegi baserrikoa zan eta gu baserrin bizi ginen.

–Eta zuen atte nazionalista nundik nora?

–Horixe ezin det jakin. Nola haren burun sartu zan nazionalismoa ez dakit. Baina ibiltzen zan... Eibarko parrokoa oso nazionalista zan eta gero nik ez dakit nola zabaldu zan Eibarren eta hortan nazionalismoa. Eta hura bera kuadrilan ibiltzen zan Eibar eta Elgoibarko lagunekin.

–Ormaiztegin Batzokie zegon.

–Bueno, Batzokie... Lehenengo Ezkurdianeko –komedore bat zeuken beheran, sartu eta ezkerretara– komedoren. Eta igande atsaldetan edo iluntzen, afaltzeko izango zan, juntatzen ziren. Gure attek ekartzen zon notizik Eibartik; eta notizi hak leitu eta ean arten egiten zuen. Ba, ziren Ezkurdianeko Ramonen-eta atte, gero zan Larga Arizmendikoa eta gero bestea zan Zufiaurre; Kaxkagorri esaten ginuna, Etxeberri Azpikoa –Isidore eta han atte–; Panaderiko atte, gure atte... horik ziren. Badakit seguro horik egoten zirela bileran. Ordun, ekartzen zon zerbait eskribituta Eibarren-eta hitz egiten zonakin, hak kontau, bilera izango zala edo... eskursiok ere egiten zituen. Besterik ez dakit. Ze ni arten gaztea –umea ez, e?, umetik pasata baino–...

–Etxen bertan ere nabarmen giro nazionalista emen zenduen.

–O! Giroa, giro-giroa, han, gure etxen. Sei urtekin hasi nintzen ni eskolara, baino eskolara juterako nazionalismoa ia baneuken burun.

–Kontatu zenidan iluntzatan, errosarion ondoren, kantatu ere egiten zenduela.

–Bai. “Euzkadin zan gizon bat”.

(Kantatuz)

Euzkadin zan gizon bat, behar degula maita
Sabino Arana Goiri, euskaldunen aita.
Hain gizon prestua eta jakintsua,
Errespetatu zagun gure maisua.

Hori egunero-egunero etxen zegonen, zergatio ostegunen ia juten zan –oinez ibiltzen zan txerrikin, txerrik ere oinez, orain adine automobil ez zan izango– eta Antzuolaraino juten ziren tirada baten.

–Deskarga eta dana pasata.

–A, bai, bai. Handik behera jetxi... bueno, lehenengo Santalutzin; zeuken ohiturea –baso txikik izaten ziren, nola zan, oso aguardiente fuertea–, ¿cómo le llamaban?

–Uxuala?

–Uxuala, bai, uxuala izango zan. Uxuala eta ogi koskor bat jaten zuen eta harekin Antzuolaraino juten ziren; ia gero han gaue pasatzen zuen eta gero beste herritara juten ziren.

Hak zaldikin eta karrokin hasi ziren, eak karron. Bi anai ziren, atte eta Pablo –tío Pablo Bergarakoa– ziren bik alkarrekin ibiltzen zirenak, bi anaiek. Eta bat karron eta bestea oinez, txandaturaz, hala ibiltzen ziren. Eta gero automobil bat erosi zuen, *Chevrolet* bat. [...]

–Etxen ikurrine ere bazenduen.

–Baaai! Ikurrine, bat, gizonezkona. Zergatik bi ikurrin izaten ziren, bat gizonezkona eta bestea emakumeena. Eta gizonezkona zegon gure etxen. Egoten zan, baul txiki bat zan, umeen erropak egoten ziren, eta han azpin sartuta egoten zan. Eta noizipehin attek erakusten zigun. Eta ikurrin hura Ayuntamentura eraman zuen; harutza juterako neronek plantxatu non. Eta bestea zan ikurrine emakumeena, trapu zuri bat, haundie, eta gero eskinan ikurrinen kolorek zeuzken. Eta gero, egurretik txintxilika zeuken Ormaiztegikoa zala, zein urtetan egin zan... Nartxionekok bordauta. Eta hura zegon gordeta Zelaikon. Hura ez zan atera ordun, bestea atera zanen, eta gero, Franco hil zanen, atera zuen hura eta en cambio bestea ez dakit erre edo zer egin zien Ayuntamentun, baino ez zan gehigo azaldu gure ikurrine. Baino emakumeena zeran dago, Bilbon.

–Nazionalismon Museon.

–A, ikusita zare! Ze ederki bordauta dagon!

–Esan dezu zuen ikurrin hura Ayuntamentura eraman zuela. Izan ere, zuen atte kontzejala izan zan eta eduki zon momentun baten iskanbila alkatekin-eta...

–Ba hori zan, herriko festak, sanandresak zetozen. Eta gazte jendea ari zan festatarako jartzen... ez dakit. Behintzet nahi zuen balseon egitea eta Ormaiztegin arten ez zan egiten, suelton bakarrik. Eta alkate zegon osaba eta gero teniente alkate zegon Lasa. Eta ezetz, ez zala dantzarik egingo, ez zala soinu loturik joko. Eta ordun Karteroneko nik ez dakit zan Juan Mari edo Inazio, bitako bat, jun ziren Donostira gobernadorena eta hak eman zien permisoa, papel bat Ayuntamenturi esaten, uzteko dantzan. Eta ordun esan zon alkatek: “Ba ni hemen alkate nagon bitarten, hemen ez da balseon dantzarik egingo”. Hurrengo teniente alkatek: “Ba nik ere ez”. “Hortaz, dimitituta geratzen gera egun hortarako”. Gure attek baietz, hura konforme zegola-ta, eta hala egin zuen sanandres festea.

Eta ordun izaten zan San Andres egune eta hurrengo jaien repetizioa. Eta hura pasau zanen, alkatea eta teniente alkatea jun ziren Ayuntamentura eta ean barea hartu eta hasi ziren alkate eta teniente alkate eta dana. Eta ordun kastigatu zuen atte edo zeozer izan zon partidukin [...]. Esan zien berak segitu behar zola, eta horregatik kastigatu zuen. Baino alkate segitu zuen lehenagokok, ean barea hartu eta...

Gero, Ormaiztegiko zubie bota zuenen, ia ordun etxera etorri beharko nola edo, nola etorriko nintzen... amak konsegitu zon jutea. Harutza juteko ere izan zon! Jun zan zeran bila, pasaportea –papel bat ematen zuen, hemendik Villafrancara juteko ere ez ziguen uzten, Ayuntamentun atera behar gendun-. Ateratzera jun zan papela eta esan zien oraindio gaztea zala eta... behintzet ez zien eman gure amari. Eta emen zetorren Ayuntamentun behera, eta Guillermo (Lasa). Honek esan emen zion: “Zer pasatzen zazu, Maria?” Ba hau eta hau. “Ez iezu kasorik egin. Etorri zaitetz bihar goizeko seietarako honera eta jungo zera”. Eta halaxe, ama jun zan goizeko seietarako Ayuntamentura eta soldaduk emen zihetzen, hemen janik ez eta Vitorira jan bila, Gasteiza. Eta harutzaino eraman emen zuen, estazioraino, soldadu horik. Eta gero han trenea hartu eta Vitoritik etorri zan nere bila.

Gero, etorri nintzenen, ikusi non zubie botata, danak ikaraz genden. Eta esan zien, nundik sartu dire? Eta Lierni aldetik etorri emen ziren.

Eta etorri ziren gure etxe pareraino, Arraitegiraino, han zeuken topea. Danok genden bildurtuta zer pasauko ote zan. Eta gure attekatik jun ziren galdezka eta amak esan emen zien: “Ba, kanpon da”. Eta gero esan emen zien: “Hara, oraintxe dator” –automobilaren hotsa aditu emen zon amak-. Eta tarra jarri emen ziren, eskopetak hola zituela. “Zer egin behar degu?” “Ez, ezer ez, ezer ez, etorri dedila”.

Eta ordun artasoro bat genduken eta arto arten zegon gordeta guardaguja bat, estazioko guardagujea –izena eta dana nekin, gero trenak harrapau zon gixajoa-. Eta irten emen zan atena –ezagutu egiten zon automobile- eta esan emen zion: “Están delante de tu casa, así que, tú verás”. Buelta eman eta jun zan atzera. Eta esan emen zon amak: “Laster da, laster da... Buelta eman do!” Hari irtetzen zitzaion momentu hartan pasatzen ari zana.

Eta hala, jun zan Eibarrera. Geratu zan Eibarren, bastante denboran egon zan. Eta hemendik, soldaduk-eta Santalutzin egin zuen bastante denbora –ordun ezagutu zon Mari Carmen Telleriak gizona, Brunet, bai-.

Eta Ormaiztegin jarri zuen Bainuetxen Ospitala, eta morok eta danak zeren, e? Bueno, beltz beltz horik ez. Eta Bergaran egin zuen parapeto bat edo, bestek ez pasatzeko; esaten zien *Cinturón de Hierro*. “Hemen? Hemendik ez dituk pasako. Hemen nola pasako dire ba?” Eta ordun abioiak ekarri zituen eta abioiakin segitun puskau zuen. Eta handik jun ziren ia Bilboraino kasi segidan, bastante tardau zuen baino bastante segidan. Eta herri bakoitza hartzen zuenen, kanpaiak, elizako kanpaiak, eta gainera desfile bat edo manifestazio bat egiten zuen kalen danak, ean aldeko danak irtetzen ziren.

Hala, Bilbora jun ziren eta nere atte, Joxe Migel ere han zan –nere gizona– eta Alejandro –Joxe Migelen anaie–. Hamabost urte egin zitun kartzelan harek.

Nere gizona eta bere anaie Bilbon, entregatzeko asmon zerela, etxe baten sartu emen ziren. Eta etxe hortan irten gabe ezin egon eta hirugarren egunen ezer gabe emen zeren eta “irten behar diagu ba norbaitek”. Eta hala, Joxe Migel irten emen zan ikustera herrin zer pasatzen zan edo ze ambiente zegon. Eta bertan, aten ondoren, ikusi do Antianekoa, Beorretakoa. Eta ziren Joxe Migel eta bera oso lagunek, eta “motel, motel! Kendu zak erropa hori!” Eta berak kendu erropea eta soldaduskako erropea –bera soldadu zebilen– eman zion Joxe Migeli. “Orain jun hadi etxera, baino erropa horrekin, e?” Eta beste aldekon uniformekin etorri zan Ormaiztegiara.

–Alejandro, nere gizonan anaie, Alejandro zan caballerikoa. Eta izango zan sarjento baino gehiago, bastante mando zeukena.

–Gudarie zan.

–Bai, gudarie zan. Harek bere burue hain gaizki ikusi zonen, tiro bat eman zion bere bururi, baino ez zan hil, e? Begie galdu zonen. Eta ospitalera eraman zuen eta handik Puerto de Santa Mariara detenituta. Han hamar urteko kartzela eman zien, baino bost urte egin zonen –egiten zien bat bi bezela lana egiten zonari– eta harek egiten zonen eta hamar urtetik... bost urtekin ia irten zan kalera. Irten zan, etxen zegon –ni ordurako ezkondu, hura kartzelan zala ezkondu nintzen–, baino hura etorri zan gixajotuta erabat. Eta bera zan bastante zekina garai hartarako, maixue zan eta, Mondragon zegon maixu gerrea zeratu zanen. Eta ordun zegon alkate Olaizola –Olaizola ez zan partidu... baino karlistatan apuntau, bere burue defenditzeko, karlistatara–. Eta egin zuen alkate. [...] Piak Ordizikoa eta gure osaba Antonio (Izuzkiza), horik ziren etorri zirenak mandokin hemen. Eta gero jarri zan Olaizola alkate.

Inor ez emen zegon, danak alde eginda edo... eta esan emen zion Alejandrori: “Egingo al dek ofizinakoa zeozer Ayuntamiento, zeatio ezer gabe gerek-eta”. Eta baietz, gustora. Eta hala jun zan Ayuntamiento, sekretariatza bezela egitera. Handik pixka batera etorri zitzaion gizon bat Ayuntamientoara.

Baino gizon horren historie haundie da. Lehenengo, Lapatzakok zeuken taberna bat Donostin. Eta taberna hortan zegon alaba soltera bat eta gizon bat juten emen zitzaion sarritan, gerrako kontuk galdetu-eta... Eta handik atera zonen behintzet nola Alejandron lagune, Juan Mari Intxausti, Frantzin zegola. Eta etorri da eta esan dio nola eskumueinek eman zion eta esan ziola harek emango ziola salvoconductoa –esan ziola berak–. “–Eta norako nahi dek ba, Madriderako edo...? –Ez, ez, ez. Bartzelonarako. –Nik hori ezin deiket eman, zeatio puertoko tokirako nik ezin det eman”. Hala, aritu emen ziren hizketan eta hizketan eta atzenen konbentzitu do Bartzelonarako egiteko. Eta Bartzelonarako egin dionen, solapea altxatu eta polizie!

Eta handik hartu zuen eta eraman zuen Donostira lehenengo. [...]

Ondarretan sartu zuen eta juizioa egin arte han egon zan, bastante denbora. Eta egin zien, hogeitau urteko penaa eman zien. Eta hogeitau urteko ezin emen die

Donostin egon eta jun behar zon penalera. Penalera bidali zuen Santoñara, eta han egin zitun beste hamar urte.

Eta nola hogei urte zeuken hasi ginen aber libratzen gendun. Lana egiten zon, han, Santoñan, lan asko egiten zon. Zeatio Puerto de Santa Marían zegon bitarten, ingles bat emen zegon berakin eta inglesa ikasi zon. Eta gero, Martutenera jun zanen izan zan garaie, ba gerrea bukatuta edo... makinak eta ekarri behar zituen estranjeritik, zeatio makina danak militarizatu zituen eta dana estropeatuta zegon, eta jarri behar zituen makinak. Eta makinak etortzen ziren ingelesez, nola montatu behar zan-eta, eta harek traduzitu egiten zon. Hango makinan zera erderaz jartzen zon. Eta hori egiteagatik ematen zien hilen bost erreal edo –gutxi behintzet–, hala ematen zien baino lana egiten zon.

Eta jun ginen eta esan ziguen ezin leikela irten, *reincidente* zala. Beste hamar urte bete behar zitula. Disgusto ikaragarrie izan zon berak. Joxe Migel jun zan frailetara –gure etxen frailek izan dire, pasionistak, etxen bezela, zergatik hak ez zeuken telefonorik, guk bagenduken eta han enkargu danak rezibitzen ginutzen, eta beti frailen bat etxen zegon–. Eta esan ginun zer pasatzen zan Alejandrokin. “Oi! guk daukegu fraile bat, Irunen dago, zeran ibili zana, Francokin batailoien –apaiz bezela, e?– Harretxei esango diogu”. Eta hala, jun zan Burgosa eta juezana jun zanen esan emen zion: “Baino neronek eman zioat horri kastigue –bueno, erderaz–. Neronek juzgatu det. Nun egon zerate orain arte?” Eta hala, haren bitartez libratu zan. Hamar urte egin zitun, bost urte besten... hamabost urte kartzelan egin zitun harek.

–Zuen familie ere erdibituta egon zan ba...

–Bai. Ahizpa jun zan segitutik Markinara –gure ama Markinakoa zan eta haren lehengusu batzun etxera–. Denbora guztie han egin zon... Eta attek eta Julenek... Ibili ziren ahal zuen tokin. Zeatio bi aldiz ere biali zituen Frantzira. Gero, handik etorri... eta atteri ipini zien lana, zeozer emateagatik, jana emateko jendeari, platerak betetzen janakin. Eta Julen berriz, ahal zola defenditzen. Bonbardeo bat izan emen zan ordun Bartzelonan, bonbardeo haundie. Atte emen zihen Ayuntamentura hildakon listea ikustera –listea jartzen emen zuen–. “Ez zegok ba hemen. Nun ote da nere semea?” Eta eskilaratan behera dihola topatu berekin; bera, atte hil ote zan jakitera. Eta handik bi-hiru egunera beste bonbardeo bat, eta ordun ere hala galdu ziren. Eta hok Frantzira jun ziren eta atte ez zan *campo de concentración*-era jun, nik ez dakit zeinen bitartez, han zebilen Frantzian. Eta Julen, *campo de concentración*. –Ez dakit liburu bat leitu dezuen–...

–Gurs?

–Bai, Gurs. Ez zon nahi izaten, etxera etorri zanen, “ez iazue aitau ere”... bere bidez ez gendun jakin ezer. Gero, liburu hori leitu non, eta asko pasau zuen.

Julen etorri zan. Pasatzen ziren automobilkadea Frantzitik Espainira. Eta gero, Espainin, lokal haundi bat zeuken eta txertatu egiten zituen, bakoitze txertatu egiten zuen eta handik jakiten zuen zein zan eta dana.

Eta gure atte etortzeko jarri zan... Lehenengo, gu Punttura juten ginen, o sea *que* Irundik eta Nafarrora bitarteko errekea, erreka hartan bera alde batetik eta gu bestetik, hizketan aritzen ginen attekin. Baino hori izaten zan Franco Donostira edo Pamplonara edo etortzen zanen, soldadu edo militar guztik haruzkaldera juten ziren eta ordun jakiten gendun eta juten ginen ikustera.

–Ze distantzira?

–Gertu, igarin pasatzeko modun. Behin anaiek, Davidek, pasa egin nahi. Esan ginun, ez, zeatio gaizki ikusi behar gera eta ezetz. Xendarmek edo, nola dire Frantzikok? Goitik ikusi zuen nola hizketan ari ginen; ez zien ezer esan bestei. Peligrón zegola eta igotzeko.

Eta hala, ez genekigun nola komunikatu bata bestetik eta zubin, Irungo zubin, ez zuen ametitzen ez kotxerik eta ezer pasatzerik. Baino zeren bi maletero preparauta, maletak eraman, pixau... Eta maletero hori zan Eibarkoa, eta ezagutzen ginutzen, eta gu zubin honuzkaldetik tabernan egoten ginen, ama eta David askotan, eta bestaldeko alden zegoen beste taberna bat. Guk eskribitzen ginun papel bat eta atteri pasatzen zion, eta gero, honuzkon, atzera ekartzen zigun. Eta hala komunikatzen ginen alkarrekin.

–Han zegola, zuen atte gaixorik ere egon zan...

–Operatu egin zuen. Roseaieko, ez dakit klinikea izango zan, etxe bat zala esaten zon berak. Jun nahi izan gendun operaziorako eta... *que somos peligrosos y que no*. Han zegoen Antia (Dionisio), eta harek kaso egin zion eta harekin komunikatzen zan.

Eta beste batzutan berriz komunikatzen ginen... geok ere ez gendun diru asko, ez zegoen dirurik, baino inguratzen genduna, behintzat, Lazkaoko frailei ematen ginun. Askotan, hogei duro igoal e?, baino ahal zana. Attentzako. Eta hak frailetan, han ematen zien atteri.

–Beloken.

–Bai.

Eta gero attek etorri egin behar, ari zan denborea pasatzen eta attek etorri nahi zon. Eta Eibarko *Pacomio* –gaitzizena, horkok danak gaitzizenakin zeren, Eibar eta Elgoibarkok eta–. Eta *Pacomio* honek galdetu zion gure osabari, amaren anaiei, nun zan atte edo zeozer. Esplikatu zion dana nola genbiltzen eta *Pacomio* aditu. “*¿De quién estás hablando, de Vicente? Este no puede estar allí, ¿eh? Ya le traeré yo*”. Eta hala, abixau zion, lehenengo espedienten sartzeko. Automobile izaten zan... animalik bezelaxe. Eta medikue, ez dakit ba, Irungoa edo, eta hari esan zion gure atte ez txertatzeko. Eta pasa zanen, hizketan egin emen zuen, eta pasa. Eta gu genden irterako aten, taxi baten, ama eta ni. Sartu da atte, *Pacomio*, eta Eibarra jun ginen. Eta han egin zon denbora asko.

Eta Eibar zegoen ordun, han ere bonbardeo haundik egin zituen, bonbardeok edo sue izan zan behintzat, erre egin zan Eibar asko, Irun bezelaxe, Eibar ere erre egin zan. Eta Ayuntamentuko papelak eta danak erre egin ziren, Ayuntamentun

izango zan aberirik haundina. Eta ordun Pacomiok, nola papelik ez zegon, sartu emen zon hangoa balitz bezela. Eta han, Eibarren egon behar. Baina ez zeuken gogorik, etxera ere etorri nahi zon, eta etortzeko Joxe Kapadorea –etortzen zan astero gure etxera, txerrik kapatzera– eta harek eta bestea Elkoro –argizalea, Araxes edo ez dakit zer zeuken–, hura, attek mesederen bat eginda edo zeozer, ba horik bik egin ziren responsable gure attenak guardia zibiletan, Beasainen. Eta ez zon presentatzerik eta ezer izan. Harrezkero ez zan txerrikin eta hasi, edadea ere bai-eta...

–Zenbat urte?

–Hirurogei pasata zeuzken. Zeatio David soldaduskarako zegon, baina hirurogeitik pasata egon ezker, seme bakarrak jun behar zon. Eta hala, Davidek esan zon “ni jungo naiz soldaduskara”, eta, hala, Julen etorri zan etxera.

–Eta Pilareren historie.

–Pilare, nazionalista zan hura. Hemen eskau zuen nazionalistan... Bittori Astarbe, Errotakoa, Franco zon gizona apelduz, Bittori hori presidente edo sekretaria zan Batzokikoa. Ordurako Batzokie ia Muruanen genduken, zergatik lehenengo Ezkurdianen, baino gero Muruaneko goiko komedoren genduken Batzokie. Jun ziren Batzokira eta ez zuen ikusi ezeren apunterik, eta ordun esan zien apuntatzeko zeintzuk ziren nazionalistak, Bittori Astarbe honeri. Ipini zitun batzuk, danak ez, esan zidan: Hara! inor, pixkat deklarauta zegona, Pilare bezela, Mercedes, Bittori bera... horik danak apuntatu zitula, baino ni ez ninula apuntau. Eta nik gogor egiteko Batzokin ez nengola.

Eta gero, badakizu, ni telefonon nengon, eta telefonotik despatxauta, ez zegon lehengo konturik. Eta etxen nengon. Eta alkaten andrek, Manoli Lasak, abixau zidan: “Oso gaizki dabiltz, zergatik soldadun eskun dago telefonoa, ez baserrin izenik entenditzen due, ez telegramarik, eta han dago mordoia, eta jungo bazine...” esan zidan. “Bai, ni jungo naiz”. Eta hala jun nintzen. Eta zegon teniente Morriones eta komandante... bat Lara eta bestea Morriones.

Hortarako ni han nengon telegrama horik apartatzen, gero mutilek biartzeko etxetara, eta sartu zan osaba. “–Zuk zer egiten dezu hemen? –Ba telegrama horitxek... –Ez al zegon beste inor hau egingo zonik?”. Eta hola, jenio txarren nola esan zidan, ni ixilik. Hura barrun sartu zanen tenientek esan zidan: “–¿Qué te ha dicho? ¿Quién es ese señor? –Pues éste, ahora le han hecho alcalde, es mi tío”. Dana kontau nion, nere atte eta nola han zeren, ahizpa ere bai, eta ni gaixokatik kanpora junda nengola eta nola etorri nintzen, eta esan zidan: “Quédate tranquila aquí, que vas a seguir aquí. No hagas caso”. Hala, han segi non.

Halako baten nun etortzen zaten bi falangista eta bi requete beste gizonezko batekin Ayuntamiento. Sartu nituen sekretarin, sekretarioa ere han zegon, eta *la depuración me hicieron. Había que hacer la depuración*. Eta galdera batzuk egin zien –orain ez naiz gogoratzen, zergatik hain nerbiosa nengon ordun– baino hiru lau aldiz esan zien Batzokin nengola eta nik ezetz. Ahizpa bai eta atte ere bai, baino ni ezetz. Ezetzen, ezetzen... nik uste det jo banituen ere ordun ezetz esango nola, e? Gogor jarri nintzen. Eta halako baten, hainbesterainoko galderak eta egin zidan,

esan nion: “Hor dago sekretarioa eta horren alaba da nere lagune eta nun ibiltzen naizen jaietan eta beste gainerakotan, horrek daki”. Eta sekretariori galdetu zion: “¿Es verdad? –Y sí”. Nahikoa egin zon zergatik hura ere halamuzkoa zan. “Que sí”. Eta orduntxe libratu nintzen ni han egoteko.

Hortik aurrerako istorik berriz, badakizu, izarak zirela garbitzeko...

–Bainoetxeko hortan, ezta?

–Hor zeren... jendea, ba asko sartzen zuen, batzuk herituta-eta, hor jende asko egon zan. Eta erroparik ez zeuken danantzako lain. Eta hor, esango zizun Kontxak, nola erropea haren etxetik eraman zuen. Etxe guztiko erropak, bueno, izarak eta hori. Eta garbitzeko-eta, frailetan. Baino ordun labadorarik ez zegon; zeuken eak holako ontzi haundi bat jaboiaikin bueltaka bueltaka ibiltzen zana eta gero nola uide nahikoa zegon bertan, akklaritzen zuen... Baino etxe guztitara pasatzen zituen iluntzan izarak. Bakoitzentzako bina-hiruna ematen zituen. Eta gure etxera ailegatzen zirenen: “Aquí uno más, porque éstos son de los otros”. Han egoten ginen gau guztin, zeatik egunez ez zegon sekatzan jartzerik, zorrie ikusten zan izaratan, nola! korritzen zon arten, garbitu eta gero... Eta sukalde gainen, garbitu eta jartzen ginutzen alanbre baten. Gau guztin egonda gare gu erropak sekatzan; sue egin eta erropak sekatzan.

Gainera argie ere txikie genduken, eta gure ama eskulanak egin beharrekoa, jostune zan. Eta neri erakusten ari zan opoa egiten galtzerdin. Ez gendun ondo ikusten eta, –mahai haundi bat genduken sukalden–, mahaiain gainen silea jarri, argi gehiagokatik...

–Izara horik partitzera zein juten zan?

–Ez dakit. Herrikok ere izan zitezkeen. Ni ez naiz akordatzen, zergatik horrek hartarainoko errabie ematen zigun... ba hartu, eta eramaten ginutzen eta kitto. Eta ez nizuke esango baten bat Ormaiztegiak ote zan. Zeatio gero biltzen zituen erropak eta dirue soldaduntzako eta ordun gure etxera etorri ziren herriko bi emakuma dirue eta erropea edo zeozer eramateko. Eta gure amak diru asko ez, eta duro bat eman emen zien, eta gero txamarra haundi bat, nola tratun ibiltzen zan atte, txamarra haundi bat, ona. Parre egin emen zien! Besterik ez, eta parre! Gure amak esaten zon, “balekie zer dagon gure etxen”... Eta horregatik esaten dizut, hak ibili ziren esken. Automobilen ere norbait ibilikozan, herrikoa, pentsatzen det nik... Bestela nola jakingo zuen gu bestekoak ginela eta guri gehigo emateko-eta? Ez naiz akordatzen zein ibiltzen zanik; kamioneta zahar baten ibiltzen zirela bai.

–Lehen goan esaten zenidan, gogorrena, desprezioak.

–Mine emateko asko, eta familikok asko. Beti, hak ez direla honezkero etorriko-eta... hamaika holako aditu gendun.

–Pilareren senargaiarena gelditu zaigu kontatzeko.

–Pilareren nobioa, bai. [...] Justo Andueza, Legazpikoa. Ez det uste gerrako garaien ikusi ere egin zirenik. Zeatik hura soldadu gerrara jun zan eta gurea baserrin geratu

zan, Pilare. Jakin zon herituta ospitalen zegola, eta juteko asmotan zegoen. Burun zeuken balea. Ez det uste alkar ikusi zirenik.

–Lehen Alejandroren (Irizar) historie kontatu dezue, baino Gregorio ere Batallón de Trabajadoresen egon zan.

–Kontxak esan al dizue? Ze, Xanti, bik alkarrekin egon ziren horik. Ni ez naiz gogoratzen gure Gregorio nun egon zan eta nola egon zan eta... Baino dakit Xantikin bik zebiltzela, zeatio gero Alejandro kartzelan egon zanen Donostin, Xanti eta ama eta danak kartzelan egon ziren. [...] Asten egun baten libre genduken bixita, baino beste egun baten juteko solizitau eta pagau eta dana egin behar zan. Tortila bat eramaten bazitzaion, dana zula-zula egiten zuen kutxilokin; melokotoi potek, danak irikita...

–Hori Ondarretako kartzelan?

–Bai.

–Xanti eta Gregorio Coruñan ibili ziren, La Bacollako aeroportoa egiten.

–A, bai, eta gure Julen ere bai. Julen pasa zanen Frantzik, hiru egunen bagoien eduki zituen, atera gabe, hura bete arte. Eta lehenengo eramane zuen Bilboko aeroportoa egitera, eta handik eramane zuen Extremadurara, kaminok egitera. Ailegatu zan oso gaizki. Lagun batek eskribitu zigun bera ez zala gauza ibiltzeko eta nola zegoen, eta gu ezin jun harutza, eta nere apurone jun nintzen don Jeronimona. Don Jeronimok segitun telefonotik hots egin zion herri hartako alkateari (edo apaizari?). Eta hurrengo egunen apaiz horrek platan bat behintzat –besterik ez dakit zer– eramane emene zion eta ospitalera erretirau. [...]

Hura ere bastante azkar uste det irten zala, zergatik, esango dizut, Txiki han zegoen. Bik zeren. Eta gure attek partidun bitartez atera zion Julen handik, lanen bat edo bilau zien. Eta Txikik ez zion ahazten. Sekula ere ez zion gogoko izan Txikik, bera atera ez zolako gure attek. Herrikok baino, hura oso sozialistan aldekoa zan eta gurea berriz partiduk atera zion.

–Julen gudari ibili zan?

–Ez, ez zeuken edaderik harek. Nik hogeitabat, harek lau gutxiago...

–Eta Joxe Migel, zure gizona, gudari ibili zan?

–Bai! Mendin ere bai, zeatik esaten zion, ze usaie erre zuenen... Gernika. Hurrengo egunen ze usai zegoen haragi errena.

–Urte batzuk aurrera eginda, hemen fusilatu zituzten han berri izan zundun...

–Hak fusilatu zituen ni etorri baino lehen Briviescatik. [...]

Eta gero etorri zan, Franco hil eta laister, emakuma bi, Oñatitik. Etorri ziren panaderira zeozer jakitera. Esan zidan: “Zu akordatzen al zera kanposatun hil zuenik eta...”. Baietz, aditzera, baino besterik ez. Nekiela bakarrik batek apaize eskau zola. “Ba, nere atte zan”.

4.2. Kontxa Intxausti Peña (Ormaiztegi, 1919-01-27)

Elkarrizketa: Ormaiztegin, 2009-07-06an

–Zuen familie republikanoa zan. Nundik zetorkizuen hori?

–Gure attek esaten zon: republikan bizi gera, republikek ematen digu jornala, republikanok gera. Ideas políticas igual ez zitun hainbeste edukiko, baino republika baten bizi ginen, republikek pagatzen zion soldata, eta, bueno, ba, republikanoa.

–Zuen attek lana egiten zon, zertan?

–Nik batzutan ezagutu det, beste batzutan entzun egin det. Entzun non baita bolaran ibili zala Beasaingo CAFera jutun goizen seietako releborako, oinez. Orain esaiozu baten bati hori. Ba harutza jutun zan. Eta han alemanak-eta emen zeren. “No, no, porque el carrito cuando hace fi-fi –esaten zon– el carrito tiene que hacer fa-fa-fa”, alemanak instrukziok ematen. Harutza jun oinez eta gero fi-fi-fi, fu-fu-fu...

–Gero trenbiden ibili zan.

–Gero bai, gero ibili zan. Juten zan Legorretaraino gauez farolakin, karrilez. Ormaiztegitik Legorretaraino, *ya está bien, ¿no?* Eta gero buelta, merkantzin baten etortzen emen zan. Hori esaten zon. Eta gero, azkenaldira, zegon guardagujas.

Hemen zegon, estazion, jefea, bi faktore eta bi goardaguja. Eta goardaguja hori, bat, nere atte zan. Eta ordun egiten zon gainera lana gaueko hamabitatik goizeko zortzietara.

Ni ordun Donostin ibili nintzen, estudiatzen, eta hartzen non sei ta erditan trena, hemen, estazion. Behin ere ez zidan ihes egin trenak. Instituto Peñaflorida, Donostin, *en aquel tiempo... que luego fue Ingenieros y ahora es Mitxelena*. [...]

–Karteronera itzulita, rebistak eta jasotzen emen ziren zuen etxean.

–El TBO. Eta gero korrespondentzie. Eta baserritara ere eramaten gendun. Neri behin tokatu zitzatan Mendizabala. Ordun ez zeren oraingok, beste batzuk zeren. Eta eman nion karta eta txakurre aldamenen katekin lotuta, zaunka... Lurrera bota nitun txakurrek. Eta pagatzen zituen hamar zentimo. Arizmendin bi bizitza ziren, baten kontratista semea. Hango etxeakoandrek sekula ez zon izaten kanbiorik. Eskeintzen zidan sagardoa.

–Zuen hiru anaiek gerrara jun ziren.

–Lehenengo egunetan Ayuntamiento biltzen ziren gaztek. Hortan asko ibili zan Juan Mari, maixue. Eta gu genden bildurrez. Ailatu ziren Españolara eta aldin behin pun-pun, oilo bat. Guk genduken Granja Avícola Intxaurpe; cuatrocientas gallinas; horik genduzken gerra aurretio; oilo txuri-txurik. Handik ikusi egiten zuen. Gure attek: “Hemen ez dago egoterik”. Eta lehenengo jun ginen Zarautza, amaren familiko jendea. Oilok saldu; behiek berriz, Antonenekok zeuken kamioia,

eta horik eraman ziguen Sestaora. Hango karnizero batek hil zitun; *tres vacas suizas lecheras*; danak kendu egin behar. Eta horik danak egin eta atea itxi eta jun ginen, hamar lagun. Hala irten ginen. Hamar lagun ginen: attejaune –amaren atte–, beste attejaunen anaie, atte-amak, eta gu sei senide, hamar lagun.

Gu ez ginen enteratzen, e? Guk ez gendun jakiten nun zebiltzen. Aldin behin baten batek... Inazio, herituta, masailen, *en el Hospital de...* Algorta. Gero sendatu zan eta berriz ere frentera, nundik nora ez gendun jakiten. Xanti berriz txofer, kapitanen batekin edo.

Gero Bilbao erori zan. Sestaotik Santanderrera jun ginen. Attejaune hil zan hemendik irten eta berehala. Santanderren jende asko juntau ginen eta janakin eta oso gaizki. Radiotik esaten zuen eta gu juten ginen zine baten sarrerara; ematen ziguen *un pedazo de queso de bola y un cacho de pan*; gure bazkarie hori izaten zan; barrura sartu, hura jan eta etxera. Eta gero anuntziatzen zuen radiotik: “mujeres, niños, mayores... que se apunten al barco”. Eta halako baten attek: “Ba apuntau egin beharko dezue”.

Eta apuntau ginen hiru ahizpak eta osaba hori. Hori, solteroa, gurekin bizi zan eta hirurogeita hamar-hirurogeita hamalau urte izango zitun; Amerikatara jun, sobrare osasunek ez ziola laguntzen-eta... gure etxera; behetik gorako terrenok bere izenen zeren; gukin bizi zan, ondo.

Laurok apuntau eta barkun sartu ginen (“Sarastone”, carbonero inglés); bagihotzen –ez dakit, egun pare bat edo zenbat– biden; lehenengo egune zan eta hotsegin zuen: “¡Cervera a la vista!”; kañonazon baten zai; kañonazon bat edo bi botako digu; edo bestela berak nahi don puerto batera. Danak negarrez, hiru mila lagun; azkar esaten da, e? Hiru mila lagun. Denborea pasatzen, pasatzen... ez zan ezer gertau.

Hurrengo egunen: “¡Tierra a la vista!”. Hori ia notizi hobea zan. Pozik.

Jetxi, Saint-Nazaire, Frantzin. Mapan ikusten da, sarrera haundi bat. Ordurako zeuken montatuta tren bat kotxe askokin; sartu ginuzten kotxe horitan *los tres mil*; bazihon trena eta halako baten gelditu, eta azkenengo bagoia han gelditzen zan. Hurrengon, segi aurrerago, berriz ere gelditu... holaxe partitu ginuzten. Eta gu ailatu ginen a Dijon, eskubi aldera, goien. Harutza ailatu ginen eta handik herritxo batera, Arnay-le-Duc.

Hor egon ginen hiru hilabeten.

Hor ginen hogeita hamar lagun: attonak –agurek–, umek, amonan bat ere bai.

Han egin zuen estali bat kanpon –hori zan eskola bat–; egin zuen estali bat kanpon, fregadera eta sue. Eskolako pabelloi bat zan. Jarri ziguen bina tabloi eusteko, hiru ohol eta gero txorrokako koltxoiak; horik bueltan eta erdin mahaie. Aste baten bi-hiru andra, janak erosi, preparau... Erropak labaderotan garbitzen ziren. Apuntatzen ziguen koaderno baten gastuk eta *que pagaba el gobierno*. Nik ordun frantzea berrie non eta nere talden nik egiten non erosketea.

Eta gainerantzen, hiru hilabete pasa ziren. Bitarte hortan Santander erori zan. Atte-amak genduzken han. Eta izeba Matea –atten arreba– genduken hemen, eta hari eskribitzen ginun eta harek esan zigun nola atte-amak Santanderren zerela.

Kuestioa da, egun baten idatzi zigun esanez osaba hori –bere izenen zeren terrenok eta– nola anuntziatu zuen presentatzeko “los que habían abandonado los bienes” edo. Eta nola etorri? Harek *oui* esaten ere ez zekin frantzesez. Nola etorri behar zan han goitik Irunera bakarrik? Prefektok papela edo egin zion eta papel harekin etorri zan Iruneraino trenez eta hor zeuken zai izeba Matea.

Ordun, garai hartan, Beasainen zegon komandantzie, eta han presentau behar zan; presentau zan komandantzin. Ordun izeba Matea alkatena jun eta esan emen zion hau eta hau, esplikatuz zion eta bueno, “nere esku dagona nere aldetik egingo det”; hurrengo egunen libratu zuen. Ordun ia etorri, etxea zabaldu eta... dana hustuta.

Beatzi ohi zeren. Mueblekatik etzan izango, ze garai hartan mueblek, ahal zan bezela. Baino koltxoiak –beatzi koltxoi–, mantak, izarak eta ontzik eta dana... ezer gabe. Militarrek izango ziren batzuk eta beste batzuk herriko jendea igual eta... hola.

–Zuk beti eduki dezu susmoa herriko jendekatik?

–Bai, danerako jendea gare-eta...

Gero etorri ziren atte-amak Santandertik. Eta gero, klaro, guri jarri ziguen julio-agosto-septiembre, oporretan pabelloia libre zegon. Eskolea zan eta gero eskolea hasi egin behar zuen eta esan ziguen: “La frontera de Barcelona o la frontera de Irun”. Ordun ia gure etxera, sarrera baitzegon, hiru ahizpak Irunera etorri ginen. Eta hor irten ziren responsable batzuk, izeba eta Xapa, zapateroa, hori ere jun zan. Sobrare berari larritasun pixka bat sartuerazi zien gorrik hemen egon zirenen eta Juan Marik lagundu zion. Eta gero berak hori estimatu eta jun zan responsable bezela egitera Irunera, tia Mateakin. Joxe Zapateroa. Etorri ginen etxera eta gero gerokok.

–Horik izan ziren uztaile, abuztue eta iraile 37kok...

–Bai, treintaisietekok.

–Kartzelako kontuk aipatu behar ditugu.

–Batzuk izan ziren. Bat, eraman zituen tía Matea, Pilar Mercero eta nere ama Tolosako kartzelara. Han zeudela, mutil ruso batzuk. “Que ¿cómo estaban ahí? Que venían con txitxibitas –lentejak edo–, que les cogieron en el mar”.

Gero, *en la cárcel de San Cristóbal*, maiatzen, ihes egin zuen ez dakit zenbat presok. Pilarrek nobioa Estankokoa zeuken, Bernardo, gero gizona izan zona, eta haren bidez libratu zan. Ama eta izeba Matea Donostiko Ondarretara eraman zituen; maiatzetik gabonak bitarten, bixitarik gabe eta janik sartu gabe egon behar izan gendun.

Izeba Mateak postal baterako eskubidea zeuken. Amak ere bai, baino ez zekin idazten, gurutze bat egiten zon eta kitto. Kuestioa da, eak egiten zuen postal bat

asten –zentsuratuta–, eta guk egiten gendun beste postal bat. Oraindik ere gerrak segitzen zon, eta *la tía Brígida*. *La tía Brígida* “ba oso gaizki dago bolara hontan, ataken bat eman dion edo, oso pattal zegola”. Eta hurrengon ba ia sendatu ote zan eta... gerraren gorabeherak hor ematen ginen beai, galdu edo irabazi, frentetan zer egiten zuen. Gero ia gabonetan libre utzi zituen bixitak eta ia juten ginen.

Izeba Mateak egin zitun hiru urte eta egun batzuk kartzelan; alargune, eta seme bat zeuken, eta hura gukin egoten zan.

–Ez ziren hor bukatu kartzela kontuk.

–Ez, ez, ez. Gero anai gazteena, Xanti... Beste bik, zaharrenak, Santanderretik ihes egiteko modue izan zuen, Inaziok eta Juan Marik, baino honek ez. Eta hartu zuen baino ez zeuken hola, kartzelara eramateko... Kuestioa da jendea ere behar zuen, zubik eta kaminok-eta egiteko ordun; *Batallón de Trabajadores*en sartu zuen; eta La Bacollako aeropuertoa, esaten zon: “Guk egin gendun hori”.

Eta zeren Panaderiko Gregorio eta Gabiriko baserri bateko mutile, hiruek ezagunek eta oso lagun egin ziren. Bueno, hasi ginen bialtzen jana, egurrezko kajatan: Gabirikok babarrunak ekarriko zituen, Panaderikok nolabaiteko ogie egiten zuen eta guk arrautza egosik-eta... enfin, bialtzen ginen kaja bat. Utzi egin behar izan gendun. Egiten zuen iriki, janak hartu eta gero han sartu edozer: aza zaharrak eta eta egur pusketak-eta sartu, josi eta hura entregatu.

Gero Julian Zabalak –hori zegon ezkondata Panaderiko Mercedesekin, Gregorion arrebakin– txapazko zera bat egin zon, kaja bat. Giltza bat biali ginen hari korreoz eta bestea guk; han sartu gauzak, baino han ere tapea altxatu egiten emen zuen. Holaxe egon ziren denboran.

Gero eraman zituen Andaluzi aldera. Eta egon ziren *en no-sé-qué de Filomena Díaz*. Eta esaten zigun kartan, “badare inpreso batzuk eta horik bete itezue, eta bi firma bilatu eta Ayuntamiento eraman”... Harek nahi zon nunbait ejerzitora pasa eta ordun ematen dizue egun batzuk etxera juteko-edo. Eta guk egin gendun gestio hori, sekretario zahar harek leitu eta tris-tras, *a la papelera*. Eta hortan egin zitun sei urte etxera etorri gabe, papel hori ez zeukelako.

Gero ia libratu zuen, etorri zan, lanen hasita zegon, eta ordun gertau zan...

Ba ordurako beste anaie ere, zaharrena ez, bigarrena, harrapatu zuen ez dakit ze lekutan, Donostira ekarri, juizioa egin zien, defenditu zan eta eman zien *libertad con destierro*. Ordun Valentzin egon zan, kunplitu arte. Gero Valentzitik etorri, jendea detenitzen hasi ziren eta ihes egin zon Frantzira.

Handik puxka batera etorri ziren baita bi maki –bolarea zan–...

Etorri ziren bi. Bat zan eibartarra –oraindik ere bizi da, horren apellidue gogoratzen banaiz esango dizuet– eta bestea asturianoa. Nola Juan Marikin egon ziren Frantzin, ondo zegola... norabaitera zihotzen. Pistola bat utzi zuen etxen.

Gure attek –soldaduskarik ere ez zion egin– eta ez zion batere inportantzirik eman; baino gero Xanti etorri zan tallarretik eta... pistolea; ordun, zer egin zion? Zaku baten bildu, eta gure terrenon zegoen zulo bat edo –ezberdintasunek egoten dire– eta han utzi zion.

Kuestioa da, sobrare harrapatu zituen beste bi horik, eta esan zuen pistolea gure etxan utzi zuela; ordun polizie etorri zan eta Xantik: “Pues tiré al río”. Eta ordun ekarri zuen buzoa eta errekan ez zuen bilau, klaro. Ordun sobrare eman egin zien eta esan egin behar izan zion nun zegoen; etorri ziren berekin polizik, eta etxe ondolik igo eta han zegoen, zulo hartan zegoen pistolea.

Ordun ba hori, atte eta ama, Xanti ere han zegoen, M. Luisa Zumarragan –ahizpa–. Behintzat lauek egon ziren batera Ondarretan; eta osaba eta ni berriz egunero Ayuntamentura presentatuz.

Ordurako ia sekretarioa aldatuta zegoen. Sekretariok esan zidan: “Biok etortzen ez zaitzte ibili, zu etortzea nahikoa da”. Etortzen nintzen, Ayuntamentura presentau eta bale. Eta gero jarri zigun juezak edo fetxa bat, ilbeltzan hamarra, eta goizeko beatzietan halako juzgadutan Donostin egoteko. Ilbeltza zan, elurre zegoen, ordurako izeba Matea hiru urte eta piko eginda zegoen kartzelan, etorrita zegoen eta gurekin bizi zan. Ordun, harek lagundu zigun osabari eta neri goizeko sei ta erditako trenerako. Elurre zegoen eta bota haundi batzugin eta jun ginen. Hura bueltatu zan etxera eta gu Donostira. Juzgadura jun ginen eta leitu zigun –ez dakit zer leitu zigun– ta-ta-ta, “y quedan ustedes en libertad”. Oso ondo!

Ordun jun ginen Ondarretara, eta han zeren, goizen emakumek baldin bazeuken eta gizonak atsaldetik, ba goizekok bixitau eta atsalden ere bai, eta osaba eta biok gauen etxera bueltatu ginen. Badakizu hori zer zan?

Gero ama libratu zuen eta ez dakit... kuestioa da atte eraman zuen *a Alcázar de San Juan*. Eta ordun zegoen kapellaue Ondarretan *José María no-sé-cuantos*, Azpeitikoa, eta harek egin zigun abixatu: “Bihar goizen korreoz pasatuko da zuen atte Ormaiztegitik; igo nahi badezue estaziora”... Han jun ginen atte ikustera. Lotuta, han zihon, atera zuen zerak eta... *a Alcázar de San Juan. Un hombre que no había ido nunca ni a una taberna*, esaterako. Lana ta lana ta lana. Bueno, denbora asko ez zion egin han. Eta bitarte hortan bukau zuen orain dagon kartzela hori, Martutenekoa, eta ordun hor sartu zuen. Hori ere probau zion. Gero, handik etxera, ez dakit zenbat denborara etxera.

–Danok bildu zinetenerako, noiz ote zan?

–Danok ez ginen bildu azkenen, zeatio Frantzin zeren anai zaharrenak, hak ez ziren juntatu gukin. Juan Mari halako baten etorri zan, Inazio ez; baino gero Juan Mari ezkondu zan, bestea ere bai Igarakoarekin, Frantzin; Frantzin segitzen zuen haik. O sea, ez ginen danok juntau. Ez ginen inor hil baino... haik Frantzin segí zuen eta guk Ormaiztegin.

–Juan Mari Bigarren Mundu Gerran ere ibili zan.

–Bai, ibili zan, Frantzin zegola, harutza alemanak eta zeratu zirenen, ibili zan.

–Batallón Gernikan ibili zan?

–Leclerc? Ni batalloiak-in-eta ez naiz gogoratzen. Hainbeste izen esan zituen... eta nik hori ez dauket burun geldituta. Leikena da.

–Paris libratu zuenen han ote zan...

–Paris libratu zuenen ez dakit, baina nik dauzket argazki batzuk Agirre hil zanen –hil zan Parisen nik uste det, ez dakit nun–. Kuestioa da berari –San Juan de Luzen zegoen– berari abixatu ziela hor enterratu nahi zuela eta jendeari abixua eman eta preparatzeko. Eta dauzket argazkik, Jose Antonio Agirren entierroko argazkik, eta Juan Mari anaie ere hor dago.

–Gerra garaian, etxera itzuli zinetenen, etxea hutsik...

–Batek koltxoia uzten zigun, bestek... *de prestado* ibili ginen, harik eta guk egin arte.

–Jendek laguntzen zizuen?

–Bai, bai, laguntzailek ere bagenduzken. Bestelakok ere bai baina laguntzailek ere bai.

“En esta casa hay una máquina de coser nueva nueva”. Hori bezina izandako batek komandanteari esan emen zion. Eta gure attek, etxetik irtetzerako, klaro, zortzi egun makina ekarri gendula gerra aurretik...

–Kontatu zazu makina horren istorie, zurea zan makina...

–Bai, neri erosi zidan, zergatik nik utzi nitun estudiok *tercero de bachiller* eginda, Instituto Peñafloresta hortan. Hemen, Beasainen, egin nitun *ingreso y primero* monjatan, gero harutza bialdu nituen eta han egin nitun *segundo y tercero* eta aburritu nintzen. Hamasei urte neuzken. Ordun egin non uda hortan bertan josten ikasi Beasainen, *corte y confección*. Zerbait egiten non, baina hortarako behar zan makina. Eta erosi zien makina... *ocho días antes del Alzamiento Nacional. ¡Qué casualidad! ¿No? El diez.*

Attek, etxetik irten baina lehen esan zon: “Makina hau...”. Hor, Alegi aldeko ezagun bat bazon, txabolan edo gorde, eta ez zuen eraman.

–Beste kontu bat, Te Deumak izaten emen ziren elizan...

–Bai, holako egin zuela eta kanpaiak. “Orain ere badek”. Blin-blon, blin-blon... kanpaiak. Eske Franco berrogei urten eduki gendun hemen; kontuk atera itzezu bitarte hortan zenbat persekuzio. Eta etortzen ziren; “hemen izango dire ba neskazahar horik”. Hiru bat. Etortzen ziren gure etxera, besteetara ez dakit juten ziren. Atea itxita edukitzen gendun eta hor ba aldabea jo eta ni izaten nintzen kargu hor neukena. Atea iriki. “De parte del comandante que a las siete hay Te Deum, iy para asistir!”. Eta bestek: “Sí, sí, ipara asistir!”. Buelta eman eta juten ziren. Ordun, baten batek jun behar zon *al Te Deum* eta juten zan atten osaba hori, hor dago, Joxe Gabriel, fotografarin. O sea, bakoitzak genduzken...

–... zereginek erabakita.

–Gure attek gero, beti ibilita ganadukin eta hegztikin eta... oilo batzuk ipini zitun eta behi bat erosi zon. Honek txahala egin eta katea erostera abiatu zan Beasaina. Oinez zihola, alkatea, Joxe Mari Telleria. Hura bidera atera emen zitzaion: “Ez daukezu juterik”. Eta buelta etxera.

–Gerra bukatu eta gero, zuen etxen hartzen emen zan radio debekatue...

–Nola zan? Pirenaica! Gure attek jartzen zon... eta gainerantzen ba lana egin eta...

Nik egin non beatzi urten Beñaran, lana, *haciendo punto*. *Calcetines* eta gero udako goantek. Eta klaro, han egiten non txanpona atteri ematen nion.

–Zuen atte eta ama oso markatuta gelditu ote ziren gerrako kontu horikatik?

–Atte ez zan... ama, Aizmazabalgoa, gehiago hitzegitekoa zan. Atte seriogoa.

–Gorrotorik eta?

–Ez.

–Zuk ze sentipen?

–Aurrera atera ginen eta pozik.

4.3. Carmen Lasa Eguren (Ormaiztegi, 1917-08-24)

Elkarrizketa: Ormaiztegin, 2009-07-07an

–Kontatu zazu nola jakin zundun gerra hasi zala.

–Nola jakin? Ba gogon dauket. Maria Jesus Bordek, lagun batek, esan zidan bere etxeko leihotik goizeko bederatzik aldera: “iOye Carmen, que ha empezado la guerra!”. Berak erderaz hitz egiteko ohiturea zon. Holaxe esan zidan, nik hala jakin non. Eak radioa zeuken etxen, eta radioa entzun eta hola jakin. Baino guk ez genduken radiorik, arten ez genekigun guk ezer. “Oye, Carmen, que ha empezado la guerra”. Horixe izan zan hasierea.

–Gerra hasi eta berehalaxe osaba Joxe Ramon milizianok karreatzen ibili zan.

–Bai. Ormaiztegin ez zan gudaririk eta izan, milizianok izan ziren. Eta Joxe Ramonena... Joxe Ramon arten praka motxakin ibiltzen zan; mutil koxkorra zan baino automobile ibiltzen oso ondo zekin, etxen ikasita.

Gure hiru anaiek etxen ikasi zuen, ordun autoeskuelarik ere ez zegon, baino horik ez zuen beharrik izan, etxen...

Eta... gauen ba Joxe Ramon ez zala etxera etorri, afaltzeko garaien eta ez zala etorri Joxe Ramon. Eta larritu ginen eta norbaitek esan zigun: “Bai, Joxe Ramon milizianok jarri due ba milizianok eramaten, zerara, Mandubira, automobilekin”. Eta

Joxe Ramon handik bi egunera agertu zan, Loiolatik, nunbait gero Loiolara jun zan eta handik etorri zan eta ia lasaitu ginen.

–Behin tiro arten harrapatu zintuen...

–Ordun lantokie itxita zegon. Gerrako lehen egunek oso nahastuk izan ziren, gauzari ez zitzaion antz ematen. Lantokie itxita baino attek Ezkurdianeko Xabin Bilbaura bidali nahi zon, lantokirako zerbaiten bila. Eta papel batzuk behar eta ni bidali nindun attek lantokira papel horin bila. Jun nintzen, lasai. Gero, hasi ziren hortik requete naparrak, Segura aldetik, hasi ziren tiroka. Jo! Eurie bezela. Kanka-kanka-kanka! balak tailarran gainen; ni bakar bakarrik han; ez non irten nahi, nola irtengo nintzen... baino eurie balitz bezela eta dana puskatu behar balue bezela, teilatu guztie. Ni bildurrez, bakar bakarrik, garraxika... baino denbora asko egin non hola. Eta halakon baten, denbora askon jardun eta gero gelditu ziren eta etxera jun nintzen. Baino estuasun galanta pasata. Nik uste non, benetan sinisten non, han hilko nintzela. Hori zan lehenbizikoa, lehenbiziko egunetakoa. Eta naparrak Segura aldetik Ormaiztegiara. Segura hor bertan dago ba, mendiz jun ezkeru gertu dago. Hura zan estuasun ikaragarrie. Pasa zan.

–Zubie moztu zueneko...

–Herrin hotsa zabaldu zan zubie moztu behar zuela, eta gu ba nola zubie hain ondo ikusten gendun etxetik, etxeko galeri haundi hartatik, han genden zai zer ikusiko. Eta, jo!, gure atte larri zegon, harek ez zeuken gogorik zubie mozten ikusteko; guk bai, baino berak ez. Eta danok barrura eraman giñutzen, etxen barrura, ezer ez ikusteagatik.

Eta gero bai, moztu zuen. Eta gero etorri ziren –horixe, Paris, Madrid, Lisboa eta danak lotzen ditun zubie da hori– eta etorri ziren... nola zan jeneral hura?

–Mola.

–Jeneral Mola eta danak etorri ziren ikustera zer gertatu zan zubie moztuta. Eta...

–Konpontzera?

–Ez lehenbiziko egunen e? Denborakin konpondu zuen. Baino guk genduzken bi osaba makinistak, trenekin ibiltzen zirenak. Horregatik, gu trenari oso lotuta genden, oso lotuta. Eta azkenengo trena zubin osaba Periko makinan eta bere lagune... Susperregi eta osaba Periko. Azkenengo trena pasa zuenak Ormaiztegin eak ziren, Irundik Alsasura. [...]

Gero autobusek jarri zituen Beasaindik Zumarragara jendea ibiltzeko, eta hola.

Zubie moztu zuen, bai eta esan zuen Bergarako Altos Hornosko sopletista batzuk zirela. Eta gero gertatu zan ba sopletista horik Ormaiztegiako kanposantun fusilatu zituela.

Nik –gaixo nengon ordun eta ez non lo asko egiten– bi gauetan entzun nitun fusilamentun deskargak. Bi gauetan izan ziren. Nik gero esan, gauen halako hotsak entzun ditut. Deskarga itxi itxi bat eta gero ta-ta-ta-ta, horik *los tiros de gracia*.

Horik danak garbi entzun nitun nik bi gauetan. Eta bizi ginen holaxe, giro hortan, bildurtuta.

Eta gero zubie konpondu zuen. Baina zubie konpontzeko jarri zituen behe behetik, bidetik goraino zerak... andamiok jarri zituen eta ikaragarri argi. Gau guztie herrie argitan egon zan eta gauetz eta egunez lana egiten zuen, hogeita lau ordutan. Eta hala ba zubi hori –horixe, garrantzi haundikoa zan–, hala ba konpondu zuen zubi hori.

[...] Osaba Periko izan zan merkantzi batekin azkena pasa zana zubin moztu aurretik eta gero ere, pruebatan, gogon dauket, bi makina lotu alkarri –makina horik ziren Brown Boveri, makina elektrikok, e?–. Ba bi makina hola lotu alkarri bide baten eta beste bi makina beste biden, eta indar guztin lau makina, Zumarraga aldetik Beasain aldera, eta gero Beasain aldetik Zumarraga aldera berriz ere, zubie pasatzen, ea ondo zegon, pruebak egiten.

Goiz baten jun nintzen beatziek aldera edo... estazion nengon eta oi! ikusi non tren bat zetorrela eta makinea osaba Perikona ote zan. Laguntzailea zan Susperregi eta esan nion: “–Oi! gaur ez zoazte zuen makinakin. –Ez, gaur Franco Hendaiara diho Hitlerrekin hitz egitera”. Osaba Perikok oso ondo zainduta edukitzen zon ba... Irungo Depositun *La Perla* deitzen zioen, hain ondo zainduta zeuken osaba Perikok *la siete mil doscientos nueve*... ba hura hartu trenea egiteko, Franco Hendaiara ekartzeko. Eta nik hola jakin nitun Franco nola zetorren Hendaiara eta danak.

–Atzera eginez, lehengo baten esan zenidan hegazkinek pasatzen zirela hemendik.

–Oi! Ba udazkenen usok pasatzen direnen talden, uso asko... hegazkinek hola. Hamasei-hemezortzi hegazkin, danak alkarrekin pasatzen ziren. Alderdi hontatik Durango aldera, eta Elgetan eta Durangon eta hor egiten zituen bonbardeok. Horik ikusten ginutzen eta hemendik entzuten ginutzen bonban hotsak. [...]

–Lehen esan dezu bildurrez bizi zinetela, eta zuen etxera ere sartu ziren gainera, registratzera.

–Baaai! Etorri ziren polizik eta ohiko koltxoiai eta danai buelta ematen zien; danak astintzen zituen. Eta ordun attek zeren rebista eta liburu danak –ba rebistak izango ziren Arantzazukoa eta...– larri atte, leihotik behera botatzen, liburu danak, harrapatzen zitun danak. Eta polizik ba ohiko koltxoiak eta danak jirutzen.

–Hori zeinekatik egin ote zuen?

–Jakin egingo zuen nazionalistak ginela edo; hori jakingo zuen. Herritan jakinda egongo ziren; horregatik izango zan gure etxera jutea.

–Bilbaura jun zinen hartakoa, Larrinagara.

–Bai, ni Bilbaura sarri juten nintzen. Kobrezko haria Bilbautik etortzen zitzaigun, motorrak egiteko; rodamentuk ere bai, beti SKF. [...]

Ni Bilbaura asko juten nintzen eta herrin bazekien hori. Trenen juten nintzen, Zumarragan trena hartuta, Vasco­tako trena, Maltzagara. Eta gero Maltzagan ezartzen zien Donostitik zetorren trenari bagoia. [...]

Eta hemen bi neska zeren senargaie kartzelan zeukenak. Bat Pilare Arzelus, gero hil egin zan, gazterik; senargaie zan Justo Andueza legazpiarra. Eta beste bat Eulogia Otegi, eta Modesto Campos zan haren senargaie. Eta kartzelan zeren, beste asko bezela. Eta nerekin jungo zirela ba Bilbaura. Eta behin, ez dakit ba nik, Eulogjakin jungo nintzen? Larrinagako kartzelara. Gogoratzen det aldapa bat zegola Larrinagako kartzelara juteko Bilbaun. Eta egun hortan bagihozten eta handik behera, aldapan behera, emakuma bat, baserrikoa izan behar zon, zeatik buruko painuelokin eta hola eta eskun saskitxo bat, eta negarrez zetorren. Gu aldapan gora eta bera aldapan behera; negarrez zetorren. Beregana jun nintzen eta galdetu egin nion: zer dezu? Eta esan zidan: “Ba semea dauket kartzelan eta harena etorri naiz eta goizetan jarrita egoten da aten gainen fusilatu dituenen orrie, izenakin. Eta gaur goizen etorri naiz, eta nere semen izena han dago, bart fusilatuta”. Etxera zihon negarrez emakuma hura.

–Tailarren mobilizatuak izan zenituen, soldaduskara jun orde­z baten batzuk egon ziren hor lanen.

–A! Ahal zuen guztik. Ahal zuen guztik egiten zuen hori, tailarren baten sartzea, frentera ez juteagatik, horixe!

–Flechak eta pelayok.

